

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-11-07  
ASTELEHENA  
341. ZENBAKIA  
8. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



"Labanagintza eta artazigintzarekin zuen lotura jende gehienaren lanak"

Jose Antonio Azpiazu | Historialaria | 7

Gurasolandia, ume eta gurasoen harremana sendotzeko ekintza | 12



Umorea eta ura protagonista film laburren Oñatiko II. rallyan | 29



Aretxabaletak irabazi zuen Oñatiko derbia (0-1) | 22



## Bigarrenengoz, azkarrena

Iaz bezala Dabid Gartzia nagusitu zen Soraluze-Bergara krosean. Ia 500 lagunek egin zuten 10 kilometroko ibilbidea | 26-27

Dabid Gartzia durangarra helmugan.

JULIO CALLEJA



San Juan erreka beteta. | ENERO AZKARATE

## Errepideak itxi eta lur-jausiak eragin ditu euriak asteburuan

Bergara eta Soraluze lotzen dituen GI-627 errepidea itxi behar izan zuten atzo iluntzean, baita Des-kargako mendatea ere, Antzuolako noranzkoan. Horrez gain, ur puntzuak sortu dira errepideetan nonahi eta lur-jausi ugari ere eragin ditu. | 5

### 2.500.000 euro Loteria Nazionalarekin Bergarara

Zapatuko zozketako bigarren saria osorik saldu dute han | 15

### Olaso dorrea izango da Jakiunderen egoitza nagusia

Horretarako dorretxea eraberrituko dute | 2-3

### Erromanikoaren eta gotikoaren mezu ezkutak ezagutzeko ikastaroak AED-k antolatuta | 11

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!

GOZATU, MEREZI DUZU !

**Esko Sport** | **AZKOAGA ENEA** | **Barceló BIDAIAK**

Txartela, beti aldean

► Zoaz 21. orrialdera



# Olaso dorrea, Jakiunderen beharretarako leku egokiena

- ▶ Akademiako 44 kideek batzartzeko leku egokia izango dute Bergarako dorretxe historikoan
- ▶ Hemendik urte batzuetara 80 izango dira, eta guztiondako leku aproposaren premia zuten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bergarako Olaso dorrea izango da Jakiunde akademiaren egoitza nagusia, eta hori "gauza ederra izango da Bergararendako; Euskal Herri osorako akademia bat, Jakiunde, han egoteak Bergara berriz kulturaren mapan ipiniko du". Jakiunde kide baten eta bergarar baten hitzak dira horiek, Jesus Ugalde fisikari eta kimikariarenak, hain zuzen ere.

Jakiunde Zientzia, Arte eta Letren Akademia, Olaso Dorrea Sorrerakundea eta Kutxa Fundazioa ados ipini dira Jakiunderen egoitza nagusia, behin betiko, Olaso etxea izan dadin. Bergarak Euskal Herriko kulturaren eta, batez ere, kultura akademikoan duen historian pauso handia izango da hori.

## Bi ganbara Jakiunderendako

Olaso dorretxeak bi ganbara ditu, eta biak izango dira Jakiunderen egoitza. Han izango dira bulego batzuk eta baliabide batzuk -liburutegi txikia eta abar- baina Jakiunderen premia nagusia

## ESANAK

**"Egoitza finkoarekin, antolaketa lana errazagoa izango da"**

**"Jakiunde Bergaran izatea gauza ederra da herriarendako"**

JESUS UGALDE | JAKIUNDEKO KIDEA

**"Eraberritze lan handia du Olaso dorreak; sei hilabete hartuko du"**

JESUS LASKURAIN | ARKITEKTOA

batzarretarako leku egokia topatzea zen, eta batez ere horri erantzuten dio Olasok. Jesus Ugaldek honela azaltzen du: "Bilera gela behar modukoa izango da, kontuan izanda 80 bat jakitun izango dituela hemendik urte batzuetara, eta denondako leku aproposa behar dela".

Gaur egun ere, horien erdiak pasatxo izanda (44 jakintsu dira), arazo franko zituzten: "Urtean bi batzar orokor egiten ditugu, eta orain arte, Iruñean, Gasteizen, Donostian, Bilbon, Hendaian... egin izan ditugu. Leku finko baten beharra zegoen, jakitunak ere jakinean egon zitezten urtean bitan hara joan behar zirela. Bestetik, egoitza finkoa izanda, idazkari teknikoarendako ere gauzak errazagoak dira: orain arte, infra-estruktura guztia batzar bakoitzetarako muntatu behar zen, eta lan handia zegoen hor ere. Orain gauzak errazagoak izango dira".

Izan ere, jakintsuak leku askotatik datoz: "Batzuk Madrilen, Bartzelonan, Parisen... bizi dira; Ameriketako Estatu Batuetan ere



Jakiunderen batzar nagusi bateko argazkia; horrelakoak Bergaran egingo dituzte Olaso dorretxean.



Oraingoz, 44 jakintsu ditu Jakiunde akademiak. | JAKIUNDE

badugu jakintsu bat, William Douglass. Horiek guztiak batzeko, non egon bilatu behar zen; gero, 44 lagunendako batzar areto egoki bat... Orain arte, erakundeen laguntzarekin, topatu izan dugu lekua, baina hala ere ez zen batera erraza", gaineratzen du Jesus Ugaldek.

Bergarako egoitzan, hortaz, ekitaldi garrantzitsuenak osoko bilkurak izango dira. Batzordeak, bilera txikiak eta bestelako ekintzak ere hantxe egingo dituzte. Esate baterako, hilean behin Jakiunde mahai iraunkorra batuko da, eta Olason izango da bilera hori.



**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO





Dorrea gertu dagoenean. | JAKIUNDE



Olaso dorretxea; kanpotik ez da igartzen egokitze-obrak egiten dabiltzala. | EDU MENDIBIL

## Kaleraino igogailua eta 150 metro koadrotik gorako gela

Jesus Laskurain arkitekto bergararren esanetan, "segurua da sei hilabete, gutxienez, hartuko dutela obrek". Lan handia du dorreak: "Moztutako haberen bat topatu dugu; eta, bestalde, goiko ganbarako lurra desnibel handia dauka".

Orain arte, habeak indartzen ibili dira. Segidan, goiko eta beheko ganbaren lurra maila berean

ipiniko dute. Gero, espazioak aterako dituzte: beheko ganbaran, bost bulego eta komunak; goikoan, batzar gela, 150-200 metro koadrokoa.

Kaleraino igogailua ere izango du, eta Jakiunde eta Olaso Dorretxea Sorrerakundeak modu independentean sartu ahal izango dira bakoitzari dagokion espaziora.



Ikasleekin topaketa bat, Gasteizen; Bergaran halako bi antolatutako dituzte. | JAKIUNDE

hiru gara eta, zoritxarrez, Bergaran ez gara inor bizi. Guk gogoa bageneukan, herri mina ere bai, gure bultzada txikia egin genuen eta gu pozik gaude, baina ez dut uste horregatik izan denik erabakia; izan ere, oso tratu kome-nigarria da Jakiunderentzat", esaten du Jesus Ugaldek.

### Kontzertua eta bi topaketa

Olaso Dorreak erreforma lan handia du, eta horretan badabiltza dagoeneko hilabetean Bergarako Jesus Laskurain arkitektoaren bulegoak.

Jakiunde, hala ere, ez du luze itxoingo Bergaran lan egiten hasteko: hala, azaroaren 16tik 18ra Bergaran izango dira jakintzuak, eta urtean egiten dituzten osoko bilkuretatik bigarrena, udazkenekoa, Bergaran egingo dute hilaren 18an, egubakoitza, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 20:00etan. Jakintzu gehienak hantxe izango dira.

Batzar egunaren aurretik, honako beste ekintzak egingo dituzte: 16an, eguaztena, Jesus

Ugalde eta Mari Carmen Gallastegi Ipintza institutuko ikasleekin batuko dira, 12:00etan, Topaketak programaren barruan, eta abenduaren 13an Miguel Altunako ikasleekin beste topaketa bat izango da. Topaketak programa Jakiunde bultzatutakoa da, eta helburua da akademikoen eta irakaskuntza ertaineko azken urteetako eta unibertsitateko lehen urteetako ikasleen arteko elkar-irizketa irekiak antolatzea. Hala, ikasleek edozein gairi buruz berba egin dezakete akademikoekin, eta haiek euren esperientzien berri emango diete ikasleei.

Horrez gain, herritar guztiei zabalik egongo den hitzaldia ere antolatu dute hilaren 16rako, Bergarako Udalarekin elkarlanean. Jesus Mari Ugalde fisikari eta kimikariak eta Amaia Zurututza Grapheneako zuzendariak egingo dute, Kimikaren Nazioarteko Urtearen testuinguruan. Hitzaldi hori osoko bilkuren aretoan izango da, 19:30ean.

Hilaren 17an, hausnarketarako foroa egingo dute Irizar jau-

regian. Hor, proiektuak aztertu eta lehenetsiak zehaztuko dituzte jakintsuek, eta hurrengo eguneko osoko bilkuran eztabaidatu eta, hala badagokio, erabakiak hartuko dituzte. Batzar nagusiaren bezperako programa bukatzeko, Alacant-etik etorritako Benantzi Bilbao organo-jotzailearen kontzertua izango da, Santa Marina parrokian, 20:00etan.

Hiru eguneko programa horrek aurreratu egiten du datozen urteetako dinamika: "Jakiunde Bergaran egoteagatik, joera naturala hainbat ekitaldi han egitea izango da. Herriak eta akademiak uztartze-puntu batzuk badituzte eta izango dituzte", dio Jesus Ugaldek.

### "Askatasuna sustatzeko"

Jakiunde "gogoetan egiteko foroa da, pentsamendu-askatasuna eta sortzeko askatasuna sustatzeko eta defendatzeko", Pedro Miguel Etxenike presidentearen esanetan. Debagoieneko bost jakintzu ditu: esandako hiru bergarrez gain, Itziar Astiazaran eta Jon Mar-kaide.

### "Segituan erabaki genuen"

Jakiunderi Olaso Dorrea fundazioaren eta Kutzaren aldetik etorri zitzaion proposamena. Egoitzarako beste aukera batzuk ere ikertu zituen, baina "segituan" erabaki zuen Jakiunde Bergararen alde: "Ikusirik Bergarak ze posizio izan duen Euskal Herriko

kultura akademikoan -Adiskideen Elkarte han izanda, Errege Seminarioaren historia...-, beste herri batzuk baino berezituagoa da", esaten du Jesus Ugaldek.

Jakiunderen hiru jakintzu bergararrak -Ugalde bera, Mari Carmen Gallastegi eta Jabier Retegi- pozik daude: "Bergarakoak

**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak  
Leihoak · Tarimak  
Egur lanak







Bergarako Elikagai Bankuko kideak, zapatuan, Arrasateko Eroskin. | MIREIA BIKUÑA

## 5.940 kilo elikagai batu dituzte Arrasaten egindako kanpainan

Debagoieneko eta inguruetako herrietan banatuko dute behar berezia duten familien artean: garbantzuak, pasta, dilistak, galletak, irina...

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Eroski Fundazioak eta Gipuzkoako Elikagai Bankuak antolatuta elikagaiak batzen egon dira aste bukaeran Arrasateko Eroski hipermerkatuan, zortzigarren aldiz. Bergarako Elikagai Bankuko ordezkariak egon ziren bezeroei informazioa eta plastikozko poltsak ematen. Zapatuan eta domekan 5.940 kilo elikagai batu zituzten. "Herritarren erantzuna oso ona izan da beti, eta oraingoan ere bai. Martxoaren 23an zabaldu genuen Bergarako Bankua eta elikagai asko batu dugu", esan digu Bergarako Elikagai Bankuko arduradun Jose Antonio Agirrebeñak.

**Banaketa hainbat herritan**

Arrasaten batutako elikagai guztiak –garbantzuak, pasta, dilistak, galletak, irina...– Bergarako biltegira eroango dituzte, eta handik bideratuko dute banaketa, Debagoieneko eta gure bailaratik kan-

poko beste herri batzuetara. "Guk ez dugu banaketa zuzenean egiten. Udala, Caritas eta GKE-k arduratzen dira horretaz", dio Agirrebeñak.

*Zure erosketako pixka bat, asko da lelopean egin duten kanpainan jasotako elikagai kiloen %20 gehiago ematen du Eroski Fundazioak beharra duten familien artean banatzeko.*

Elikagaiak batzeko zortzigarren kanpaina izan da aste bukarakoa. Aurreko zazpitan 37.270 kilo janari batu zituzten. "Krisiak gogor astindu ditu familia asko, eta janaria behar dute. Halako kanpainak beharrezkoak dira", esan digu Agirrebeñak.

ESANAK

**"Krisia tarteko elikagaiak batzeko kanpainak beharrezkoak dira beti"**

JOSE A. AGIRREBEÑA | ELIKAGAI BANKUKO KIDEA

## PSE-EEK ezustekoak iragarri ditu azaroaren 20rako

Kongresurako Gipuzkoako zerrendaburu sozialista Odon Elortza Arrasaten izan zen egubakoitzean

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Kongresurako Alderdi Sozialistaren Gipuzkoako zerrendaburu Odon Elortzak Arrasaten hasi du Gorteetarako hauteskunde kanpaina. Egubakoitzean Arrasateko Laubide plazan izan zen arrosak banatzen.

Ekitaldia hasteko Isaias Carrascorekin batera terrorismoaren biktima guztiak gogoan eduki nahi izan zituen Elortzak. Horren harira azaldu zuen sozialisten konpromiso irmoa dela datozen urteetan pertsona guztien arteko elkarbizitzaren alde lan egitea.

**Emaitza onen esperoan**

Elortzak ezustekoak iragarri zituen azaroaren 20ko gauerako. Euskal Autonomia Erkidegoan oso emaitza onak espero dituzte, eta ez dute alboratzen lehenengo indarra izatea. "Oso fidakor daudenak, beraiek jakingo dute zer egin, baina ardurata egon beharko lirateke, edo ondo egingo lukete Gipuzkoako instituzioak gobernatzera dedikatuko balira. Rajoy baino Rubalcaba nahiago duen asko dago eta horiek denak mobilizatzen baditugu ezustekoa emango dugu hilaren 20an".



Odon Elortza arrosak banatzen egubakoitz goizean. | ARRITXU BARRUSO

## Amaiur: "Euskal Herriaren bozgorailu izateko Madrilén"

Maite Aristegi zerrendaburua Arrasaten izan da

T.MADINA/M.ALTUBE | ARRASATE

Hauteskunde kanpaina hasi orduko egin ditu ekitaldi bi Amaiur koalizioak gurean. Egubakoitzean, Arrasaten izan zen Maite Aristegi Gipuzkoako zerrendaburua eta zapatuan, Bergarako kideak elkartu ziren.

Arrasateko alkate ohi Xabier Zubizarreta eta Ino Galparsoro eta Alternatibako zinegotzi ohi Joseba Ugaldere babesa izan zuen Aristegik. Hauteskondeen garrantzia azpimarratu zuen hark: "Konbentzita gaude azaroaren 20ko hauteskundeak erabakigarriak direla bake eta normalizazio politikoan sakontzeko". Eta gaineratu Madrilera joango direla "Euskal herritarren eskubideak, erabakitze eskubidea eta eskubide sozial guztiak defendatzeko aukera aprobetxatzea".

**Euskal Herriaren bozgorailu**

Zapatu goizean kalejira egiteko asmoa zuten bergarrek, baina eguraldi narrasaren ondorioz San Martin plazako arkupetan elkartu ziren. Telesforo Monzon izan zuten gogoan ekitaldi guztian "abertzale eta ezkertiarrek elkar-tzearen garrantziak" jabetu zelako hura. Preso dauden bergararrak ere izan zituzten gogoan eta senideen aurrean agurra dantzatu zuten. Agurra Barruso alkate ohiak, Lauri Askargorta zinegotziak eta Aralarko Rafa Sanchezek Gernikako Akordioaren eskaerak bete araztera joango direla Madrilera esan zuten: "Euskal Herriaren bozgorailu izango da Amaiur kongresu eta senatuan, nazio eskubideak aldarrikatzeko". Ondoren talde argazkia atera zuten elkartutakoek.



Aristegi egubakoitzean, Arrasaten, komunikabideekin. | TXOMIN MADINA



Zapatuko ekitaldian, Bergaran, presoen senideei egindako omenalditxo. | JULIO CALLEJA

## Arrasatetik Loiura eta alderantziz, autobusak

MIREN ARREGI | DEBAGOIENA

Azaroaren 1ean ipini zen mar-txan eta Arrasatetik irten, Bergaratik eta Eibartik pasatu eta Loiuko aireportura egingo du PESaren linea berriak egunero. Berdin egingo du alderantzizko ibilbidean. Arrasatetik Loiuko aireportura egunero bost autobus irtengo dira honako ordutegi-tan: 05:15ean, 09:15ean, 13:15ean, 17:15ean eta 21:15ean.

Loiutik Arrasaterako linearen ordutegia, berriz, honakoa da: 07:15ean irtengo da lehengo. 11:15ean, 15:15ean, 19:15ean eta 23:15ean irtengo dira gainontzekoak. Arrasatetik Loiurako eta alderantzizko ibilbidea egiteko, ordu eta erdi beharko ditu.



# Lur-jausi ugari eta errepideak itxita euritearen ondorioz

Ur putzuak nonahi, ibaiak beteta eta lur-jausien ondoriozko zirkulazio arazoak

GOIENA | DEBAGOIENA

Euria izan da zalantza barik aste-buruko protagonista. Suhiltzaileek eta Ertzaintzak emandako datuen arabera, arazo larrienak kostaldean izan baziren ere, gurean ere nonahi izan dira euriaren ondoriozko gorabeherak. Arazo handienak atzo arratsaldean sortu ziren: ur putzuak errepidean, lur-jausiak... Ibaiak ere gune batzuetan gainezka egiteko arrisku handian zeuden atzo gauean. Hori zen esaterako Bergarako Amillaga kaleko, San Lorentzo industrialde inguruko kasua. Han Deba ibaia oso bete zatorren arratsaldeko azken orduan, eta Udaltzaingoa gauean gainezka egingo zuen beldurrez zegoen.

## Lur-jausiak arazo

Errepidetan hainbat lur-jausi izan ziren atzo arratsaldean. Larriena iluntzeko bederatzietan gertatu zen GI-627 errepidean, Bergaratik Soraluzeako noranzkoan. Ondorioz errepidea moztu egin zuten. Gainera, Deskargako mendatea, Zumarragatik Antzuolarako



Bergarako San Antoni auzoan, ibaia bete-beteta zetorren. | ENEKO AZKARATE

noranzkoan ere itxita egon zen iluntzean, euriaren ondorioz. Horrez gain, Oñatin, Zañartu auzoan Olatera bidean errepidea moztu behar izan zuten beste lur erorketa batengatik. Lehenago, Bergara eta Osintxu artean lur-jausia izan zen, hala ere, ez zen errepidea mozteko adinakoa izan. Leintz Gatzaga gainean, Gasteizera bidean ere izan zen lur erorketa bat 20:00rak inguruan.

**DATUA**

# 99

LITRO METRO KARRATUKO

**Arantzazun jaso dute datua. Egubakoitzean euria hasi zenetik domekako 19:00ak arte jasotakoa da.**

## Arrasaten ere azalduko du aurrekontua Diputazioak

Hilaren 16an Diputatu nagusia Arrasatera etorriko da 2012rako landutako aurrekontua azaltzera

L. KORTABARRIA | ARRASATE

Martin Garitano diputatu nagusiak zuzenean aurkeztuko die herritarrei Foru Aldundiak 2012rako landu duen aurrekontua. Hamar batzar egingo ditu horretarako, beste horrenbeste herritan, bere gobernuko beste kide batzuekin batera, eta batzar horietako bat Arrasaten izango da, hilaren 16an, hain justu ere.

### Kanpaina abiarazi berri dute

*Gipuzkoa ezberdin baterako, kontuak garbi* izena jarri diote kanpaina berriari eta Larraitz Ugarte foru gobernuko bozermaleak eta Arantza Ruiz de Larrinaga Hiritarren partehartzerako departamenduko zuzendariak aurkeztu dute pasa den eguaztenean.

Aurrekontuaren berri emateko antolatutako batzarrak irekiak izango dira interesa duten herritar guztiendako eta horrekin batera Aldundiko departamendu bakoitzarekin lotura duten erakundeekin ere elkartuko dire.

Larraitz Ugartek prentsaurrekoan adierazi zuen, 2012ko

aurrekontuaren proiektuan ez dutela herritarren partehartzerako mekanismorik erabili Batzar Nagusietan aurkezteko izan duten "denbora eskasiagatik". Hala ere, Aldundiko ordezkariak nahi dute herritarrek "zuzenean ezagutzea proiektua", aldatu ezingo duten arren.

### Gaur hasiko dira

Foru Aldundiko sail bakoitza bere politikekin zerikusia duten elkarte eta taldeekin batzartzen ibili da eta gaurtik azaroaren 18ra arte egingo dute herritarrei zuzendutako komunikazio kanpaina. Herriko batzar horietan izango dira Martin Garitano, bere gobernuko bi diputatu, Bilduko zuzendari orokorra eta dagokion bailarako batzarkideak. Batzar bakoitzera gonbidatuko dituzte gainera, tokian tokiko alkateak eta zinegotziak eta eskualde horretako gainerako alderdietako batzarkideak.

Arrasatez gain, Errenterian, Azpeitian, Tolosan, Irunen, Beasainen, Eibarren, Zarautzen, Donostian eta Hernanin egingo dituzte batzar horiek..

## Bidegik Deskargako tunel berria sartu du aurrekontuan

Asmoa proiektuaren jarraitzea bada ere, finantzazio bideak lotzen ari dira orain

ARRITXU BARRUSO | ANTZUOLA

Gipuzkoako Diputazioak Bide eta Azpiegitura Sailaren aurrekontuak murrizketa handia izango du 2012an. Larraitz Ugartek zuzentzen duen departamenduak 108 milioi euroko aurrekontua izango du datorren urtean; aurreko baino %37,44 gutxiago. Dena dela, Deskargako tunelari eta Urretxu-Bergara errepide zatiari "lehentasuna" eman nahi ditela adierazi du Ugartek.

### Finantzazio bideak lotzen

Hain justu ere, Bidegik publiko egin berri duen 2012ko aurrekontuan jasotzen da 26 milioi euro bideratuko direla datorren urtean Urretxu-Antzuola autobideko lanetara. Dena dela, Bide eta Azpiegitura Sailatik jakinarazi dute "zuhurtziaz" jokatu nahi dutela eta aurreikuspenak horiek diren arren, oraindik ere finantzazio bideak lotzen ari direla: "Zuhurrak izan nahi dugu. Gure

asmoa da Deskargako tunel berriaren proiektuarekin aurrera jarraitzea, baina banketxeekin negoziatzen ari gara orain. Diputazioaren egoera ekonomikoa oso gogorra da. Aurrekoek utzi digutena hori xe da, eta ahal dugun eta ondoen kudeatzen gabilta. Ez da erraza". Dena ondo bidean, 2013an beste 22 milioi euro bideratuko dira Urretxu-Antzuola tramura eta 2014an 17 milioi euro gehiago.




Autoak eta kamioiak Deskargako mendatean. | GOIATZ ARANA

Urretxu eta Antzuola batuko dituen tramua bukatuta, errepide berria Bergararaino luzatzea gertuko litzateke Beasain-Bergara ardatza amaitzeko.

### 680 metroko tunela

Urretxu eta Antzuola arteko errepide zati berriak 2,7 kilometro luze izango ditu eta egungo bidearen puntu beltzak ezabatzea ahalbidetuko du, besteak beste, Deskargako portuaren azpitik pasatuko den 680 metroko tunelari esker.



### Bilbao

Gran Vía 19  
Plaza Barria 2

### Tolosa

Kale Nagusia 21-23

### Gasteiz

Foruak 12

### Iruña

Arrieta 7

**skunkfunk**



# Fagor Etxetresnek aliantza egin dute BDR Thermearekin

Espainiako confort arloan hazten lagunduko dio BDR multinazionalarekiko hitzarmen estrategikoak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibak Espainiako merkaturan confort arloan hazteko bidea emango dion aliantza egin du. Hain zuzen, BDR Thermea multinazionala da Mondragon Korporazioko kooperatibaren aliatu berria. BDR Thermea munduko enpresa garrantzitsuenetariko bat da etxeko zein industriarako berogailu eta ur-berogailu sistema berritzaileetan. Fagor Etxetresnen esanetan, hitzarmen horrek bi enpreson produktuak komertzializatzeko erraztasunak emango ditu, eta "biak haziko" dira, eta Fagor Etxetresnen posizioa hobetu egingo da confort arloan. Hitzarmena lotuta dago eta egunotan dira formalizatzekoak. Fagor Etxetresnen hitzetan, "luze landutako" akordioa da, azkenean gauzatu egin dena.

BDR Thermeak Herbehereetan du egoitza nagusia, eta Europako sei herrialdeetan -Erresuma Batua,



Frantzia, Espainia, Italia, Alemania eta Herbehereak - lidergo posizioak ditu, eta azkar hazten dabil Europa ekialdean, Turkian, Txinan, Errusian eta Ipar Amerikan. Thermearen apustu estrategikoa da hainbat herrialdeetan hainbat markapean saltzea: adibidez, Remeha, BaxiRoca eta DeDietrich.

#### Txinara begira

Fagor Etxetresnek beste enpresa batzuekiko aliantza estrategikoak egiteko bidean aurrera egingen du,

mundu mailako krisi testuinguruan. Krisi hori, batez ere, Europako merkaturan igartzen da. Fagor Etxetresnak Europako bosgarren ekoizlea da: bere salmenten %86 inguru Europan egiten du, eta %14, kanpoan. Horregatik, Txinan ere aliantza bidez hazi nahi du orain Arrasateko ekoizleak, eta Txinako "agente nagusi batekin" egin nahi dute hori, Fagor Etxetresnen esanetan. Dagoeneko lantzen dabil etorkizun hurbilerako aliantza hori.

#### Merkatu egonkorra

Momentuz, krisiaren eraginez, Europako merkaturak egonkor dago, hazkunderik gabe ia, eta aurreikuspenek diote 2015era arte ez duela hobera egingo. Hala ere, Fagor Etxetresnek Europako 5. postuari eutsi diote. 9,8 milioi euroko galerekin itxi zuten 2010eko jardunaldia, 2009an baino %50,7 gutxiago (ordu, 19,9 milioi galdu zituen).

# Eroskik Indraren teknologia zabalduko du 550 dendara

L.K. | ARRASATE

Eroskik eta Indra teknologia eta berrikuntza enpresak Eroskiren 550 saltokitan zabalduko dute bien artean egindako Salmenta-Lekuaren Kudeaketa Eredua. Helburua da salmenta-lekuetan produktibitateko baldintzak hobetzea. Hitzarmena bost urterako da.

Denetara, Eroski sarean 989 supermerkatu daude: Eroski/Center, Eroski/City eta Caprabo. Bada, aldaketa horrek Eroski/Center eta Eroski/City motako 550 dendari eta taldeko 25.000 laguni eragingo die, Hego Euskal Herrian eta Espainian.

#### Hiru urteko elkarlana

Eroski Taldeak ezarritako kudeaketa eredu Indraarekin hiru urtean egindako lanaren fruitua da, eta jarraiko produktibitate eta hobekuntza politiketan dago oinarrituta. Horretarako propio egindako aplikazioak dituzte, eta negozio prozesuetan balio

erantsi handia ematen duten elementu berritzaileekin integratuta daude elementuok, hala nola salmenta-lekuetan ekintzak egiteko prozedurak, leku horietan egiten diren operazioen estandarrek, lantaldeen tamainaren gaineko irizpideak edo langileendako lan ordutegiak sortzea. Bada, orain, kudeaketa eredu hori Eroskiko supermerkatu gehiagotan ipiniko dute.

Hori egiteko, bulego teknikoak sortu dute Indrako eta Eroski Taldeko ordezkariak. Han, ereduaren eta aplikazioaren mantentze-lanak egingo dituzte.

#### Liderra Espainian

Espainiako informazio teknologietako lehenengo multinazionala da Indra, eta Europako eta Latinoamerikako lehenengoetariko bat. Europan, bere sektoreko bigarrena da I+G inbertsioan.

# Familiek janari gehiago erosi dute abuztuan uztailean baino

Edari alkoholdun, ekilore-olio, fruta fresko, ogi eta behi eta txerri gehiago erosi zituzten

L.K. | ARRASATE

Hego Euskal Herriko eta Espainiako familiek %3,3 elikagai gehiago erosi zuten abuztuan uztailean baino, eta %4,6 gehiago gastatu zuten horietan, produktuak %1,5 garestitu zirelako. Espainiako Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioaren datuak dira.

Edari alkoholdun gehiago kontsumitu ziren (+%8,1, graduazio altukoak); baita ekilore-olioa (+%10,2), fruta freskoa (+%5,6), ogia (+%3,6) eta behi eta txerri okela ere (+%5,3 eta +%3, hurrenez hurren); eta gutxiago, bildotsa (+%9), untzia (-%5,9) eta barazki eta patata freskoak (-%0,8).

2010eko irailetik 2011ko abuztura artean, ordea, familiek %2,4 elikagai gutxiago kontsu-

mitu zuten, eta elikaduran gero eta gutxiago gastatzen joan dira (abuztuko datua -%1,9 da). Abuztuan, pertsonako urteko gastua 1.453,08 eurokoa zen.



Ogia saltzen azokan. | J. ARANTZABAL

# Errezeta berriekin, 5 milioi aurreztuko da bi hilabeteetan

Azaro hasieratik, printzipio aktiboaren arabera errezetatu behar dute medikuek



Artxiboko argazki baten, farmazialariak lanean. | GOIENA

L.K. | ARRASATE

Osasun eta Kontsumo Sailaren kalkuluen arabera, botikak printzipio aktiboaren arabera errezetatuta, datozen bi hilabeteetan 5 milioi euro aurreztuko dira farmazia gastuan.

Azaroaren leian sartu zen indarrean 9/2011 Errege-lege Dekretua. Horren bitartez, medikuek printzipio aktiboaren edo izen generikoaren arabera bidali behar dituzte botikak, eta farmaziek botika merkeena saldu behar dute. Bada, arau berriarekin eta aurretik indarrean zeuden beste neurri batzuekin, Osasun Sailak 27,43 milioi euro aurrezteko espero du farmazia-arloan, 2011n: 5,8 milioi euro 2011ko ekainari dagozkie; 11,37, erreferentziako prezioengatik (2011ko martxoa) eta prezio txikiagoengatik (2011ko iraila); eta 5,26, farmazia gastuari eusteko neurriengatik.

## Enpresen %40k produktuen ingurumen inpaktua murriztu dute

Euskadiko enpresa industrialen %40 baino gehiagok produktuen ingurumen-inpaktua murrizteko neurriak hartu dituzte eta enpresa horien % 31k "berdetu" egin dituzte zerbitzuak. Horixe da 2011ko ekobarometro industrialean jasotako datu nagusietako bat. Ihobe sozietate publikoak eta Ingurumen sailburu Pilar Untzaluk aurkeztu dituzte emaitzak.

## Industria-produkzioa %0,6 hazi da iazko irailarekin alderatuta

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa %0,6 hazi da 2011ko irailan, 2010eko hilabete berarekin alderatuta. 2011ko abuztuaren aldean, berriz, %0,6 murriztu da, baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

## Ulmak bidezko merkataritzako kafea aukeratu du

Ulma Taldeak bidezko merkataritzako sei kafe-makina ipini ditu Oñatiko Garagaltzako bere egoitzan. Gainera, Ulmak Bidebarri Enplegu Zentrua enpresa kontratatu du vending zerbitzua emateko. Oñatiko Udalaren eta Caritasen bidez sortutako enpresa da, ezinduei edo gizarteratze programetan daudenei lana emateko.

## Gipuzkoan, 3.700 euro kostatzen da metro koadro urrian

Gipuzkoak zituen urrian Hego Euskal Herriko etxebizitza garestienak (3.704 euro/m<sup>2</sup>), eta Bizkaia da bigarrena (3.407 euro/m<sup>2</sup>). Espainiako prezio handien gainetik daude: Madril (2.982 euro/m<sup>2</sup>) etaartzelona (2.644 euro/m<sup>2</sup>). Donostia eta Bilbo ereartzelona hirien gainetik daude. *Idealista.com*-en datuak dira.

## Adegiko bazkideek abantailak izango dituzte Euskaltekin

Adegiko enpresa bazkideek abantailak izango dituzte Euskaltelen telekomunikazio zerbitzu aurreratuak kontratatzeke, Gipuzkoako patronalak eta Euskaltelek egin duten hitzarmen baten bitartez. Enpresa bazkideek telefono eta banda zabal tarifetan %10 eta %15 arteko deskontuak izango dituzte, besteak beste.





Jose Antonio Azpiazu. | MIREIA BIKUÑA

Jose Antonio Azpiazu | Historialaria

# "Bergaran, labanagintza eta artazigintzarekin lotura zuen jende gehienaren lanak"

- ▶ Aro Modernoko jarduera haien gaineko liburua egin du oñatiarrak
- ▶ Mundu mailako merkatuetan saltzen ziren hemen egindako tresnak

GOIATZ ARANA | ARRASATE

*Cuchillería y tijerería de Bergara en la Edad Moderna* du izenburua Jose Antonio Azpiazuren lan berrienak. Formatu digitalean dago eskura, Bergarako Udal Artxiboaren webgunean.

**Garai bateko labanagintza eta gurazegintza ez dira oihalgintza bezain jardun ezagunak Bergaran, baina garrantzitsuak izan ziren.**

Orokorrean, Deba bailarako eta Bergarako historiako hainbat arlo ikertuta daude, baina beste hainbat ez. Bergara beti mahoia-ekin eta San Antonio Algodonarekin lotu da, baina XVI. eta XVII. mendeetako oihalgintza -lihoarekin lotutakoa-, adibidez, gutxi aztertu da. Baina erabat ahaztuta egon direnak labanagintza eta artazigintza izan dira eta horiek ikertu gura izan ditut. Dokumentazio piloa dago.

**Kokatu gaitzen garai hartako Bergaran. Zeintzuk izan ziren jarduera hau Bergaran garatzea posible egin zuten faktoreak?**

Bergara Gaztela eta itsasoaren

tartean dago kokatuta, oso kokapen berezia du merkataritzarako eta baita industria aldetik ere. Jende asko pasatzen zen bertatik baina herrian bertan ere asko ekoizten zuten. Hor aurkitzen dira labanagintza eta gurazegintza, beste industria bat moduan, baina ezagutzen ez den mailako industria zen.

**Jardueraren tamainaren eta garrantziaren ideia bat egiteko, Bergarako eta bailarako zenbat jende egiten zuen lan honetan, zuzenean nahiz zeharka?**

Jo dezagun Bergarak garai hartan 3.000 biztanle inguru zituela; baina kanpoko jende asko pasatzen zen edo bizi zen bertan: *poblacion flotante* deitzen zaion hori. Ez dut uste astakeria denik esatea biztanleriaren gehiengoaren lana labanagintza edo gurazegintzarekin lotuta zegoela. Ez denena zuzenean, baina bai zeharka; hor zeuden basoan ikatza egiten zutenak, garraioan zebiltzanak, merkatariaik -dirua aurreratuz, tailerra aurrera ateratzeko

modua izan zedin... Jende asko zegoen, herri gehiena; nik esango nuke, askogatik, industriarik inportanteena hura zela.

**Ez ziren, beraz, artisaugutxi batzuk, bertakokontsumorako zihardutenak. Hori baino askoz ere handiagoa, zabalagoa eta egituratuagoa zen.** Bai eta, batez ere, merkatuari begira ziharduena. Pentsatzen dugu batzuk labanak eta artaziak egiten ikasi zutela, baina oso

**"Erabat ahaztuta eduki ditugu labanagintza eta gurazegintza"**

**"Sevilla, Gaztela, Frantzia eta Ameriketara begira egiten zuten lan"**

kanpora begira: Sevillara, Gaztelara, Ameriketara eta baita Frantziara begira ere. Beti esan ohi dugu Europatik datozela aurrerapenak, baina bertan ere egiten ziren instrumentu aurrerakoiak. Zabala zen bere esparrua eta Bergararen bilakaeran oso garrantzitsua izan zen.

**Eta inguruko herrietan, zenbaterainoko eragina izan zuen?**

Oñatin ere baziren labanagintza eta artazigintza -bigarren hau, batez ere-, baina Bergarakoari oso lotuta zegoen eta gutxiengo bat zen hor zebilena. Baina garrantzia zuena, material aldetik, izan zen Arrasateko altzairua. Hemen go altzairua Europako onenetakoa zen, Milanekoaren parekoa edo hobea eta, beraz, labanagintzarako eta artazigintzarako hementiko altzairua eramaten zuten, eta horrek sekulako potentzia eta kalitatea ematen zion produktuari.

**Lehiakorra zen Europan ere.** Europatik ahalegintzen ziren hona labanak, artaziak eta moz-

ketarako bestelako tresnak ekartzen, baina hemengoak askoz ere hobek ziren. Han marketina hobeto lantzen zuten, baina bertakoa zen onena eta kanpokoek ere hemengo materiala eskatzen zuten. Batez ere Ameriketara eramateko; ez zuen zerikusirik Frantzia eta beste toki batzuetatik ekarritakoarekin; Bergarako materiala zen onena.

**Liburuan aipatzen dituzu, besteak beste, Ternuako balea arrantzaleak. Zer zerikusi dute horiek Bergarako labanagintzarekin.**

Gaiaren kalitatea erakusten du horrek. Kirtenak egiteko, erabiltzen zituzten arbola klase baten egurra, edo burdina edo balearen bizarrak. Material hori zen garai hartako plastikoa, plastiko naturala eta oso ona. Luxuzko labanak nahi zituztenek, balea bizarrez egindakoak eskatzen zituzten. Altzairua Arrasatek ekartzen zen moduan kirtenak Ternuakoak ziren. Globalizazioa ikusten da hor ere.

**Nola etorri zen jardueraren gainbehera?**

Esaten dute XVII. mende bukaeran Arrasateko altzairua agortu egin zela; beraz, Bergaran ezin zituzten lehengo kalitateko tresnak egin. Bestetik, Madrilgo Gobernuak uzten zuen kanpotik kontrabandoko gauzak ekartzen. Horrela egin zuen gainbehera hemengo industriak.

**"Arrasateko altzairua erabiltzen zuten: Europako onenetakoa zen"**

**"Luxuzko labanen kirtenak egiteko balea bizarra erabiltzen zuten"**



## ZABALIK

OSKAR ELIZBURU  
http://goiena.net/iritzia/

## Neurrian

Dena neurrian egin behar omen, neurrian eta ez neurrira. Tamaina kontuek burukomin dezente ematen digutela ezin, hemen, ukatu. Gauza guztiak tamainan egitea ez da batere erraza, ezinezkoa dela ez esatearren. Neurri-raketa lanetan, gainera, neurgailu ezberdinak ditugula argi dago; nor berea dauka eta bere neurrira egina, jakina!

Eta neurriarena denerako eta denontzat balio behar badu (hala diote, behintzat, jakintsuek), are gehiago herritarron iritzia eta nahia jasotzeko baliagarriak diren ekimenetan, hauteskundeetan adibidez. Hauteskundeak neurketa ekintza dira; zer zenbatek gura duen jakiteko aukerako tresna. Hortaz, tresna bera nola erabili behar den adosteko eta neurtzeko garaia dugu hau, bakoitzak bere erabakia eman aurretik.

Euskal Herrian gaudenez, eta gure berezko hizkuntzarekin batera bestelako bi hizkuntza ere badaukagunez, neurrian jaso eta erabili beharko lirateke aipatutako hizkuntzak. Badator kanpaina eta alderdi guztiek izan behar lukete kontuan hizkuntzaren erabilpen egokia, eskubide delako bakoitzak bere ama hizkuntzan informazioa jasotzea eta ematea, informaziorako tresna delako hizkuntza.

Lehen esan dudaz bezala, bakoitzak bere neurria dauka; baina esango nuke, orain arte, zoritxarrez, euskararendako neurria izan dela eskasena, beti galtzaile atera dela beste hizkuntzen aurrean. Eta hori gertatu bada erkidegorako edota udaletarako hauteskundeetan, are gehiago estatuari begirakotan.

Eta, horregatik, gauzak neurrian egitea eta bere neurria ekartzea garrantzitsua delako, eskari zuzena egin nahi nuen, lerro hauetatik. Hauteskunde kanpainen, hortaz, euskaraz jaso nahi dugu informazioa; denen informazioa, idatziz eta ahoz, eta neurrian. Euskaraz bizi nahi dugunok, hautatu ere, euskaraz hautatu nahi dugu.

## USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | zuzen@goiena.com

## Bineta ala ordain-saria?

Aspaldi onartuta daukat nolabaiteko tasa edo zergaren bat ordaindu beharko dugula errepideak mantentzeko, baldin eta ez badugu zerbitzu sozialak edo euskara eta kulturako diru-hornidurak, esaterako, arriskutsuki murriztuta ikusi nahi. Badirudi Gipuzkoan alderdi gehienak ados daudela. Arazoa sortzen da bineta bidez ala ordain-sariz finantzatu behar ote den erabakitzerakoan. Nik bi zalantza ditut: berdin ordaindu behar al dute 40.000 edo 1.000 km egiten dutenek? Bigarrena: Gipuzkoak bere bineta martxan jartzen badu, zer gertatuko da Arabak, Nafarroak edo Errioxak erabaki bera hartzen badute? Bineta ezartzea merkeagoa, duda barik, baina baditu bere arazotxoak.

## KALE INKESTA

Gustura hartu duzu aste bukaeran egindako euria?

LEIRE  
ZUAZUBISKAR  
ARRASATE

"Euria eskertzen da, baina azken egunetan izan dugun eguraldi epelak, udazkena eta negua motzagoa izatea dakar".

MAITE  
GURIDI  
OÑATI

"Aldaketa eskertzen dut, hautsa kendu, errekek garbitu, eta giroa aireztatzeko. Egin dezala euria egin behar duenean".

GARIKOITZ  
BARRUTIA  
ARRASATE

"Alde onak eta txarrak ditu: kalean ibiltzeko desatsegina da, baina mendiak berde eta errekek garbi egoteko, ezinbestekoa".

ELOINA  
RIVAS  
ARRASATE

"Euria egin behar du. Ez da ohikoa urrian tirantedun kamisetarekin ibiltzea. Errekek zikin, urtegia ur barik, euliak eta moskitoak barra-barra..."

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Apokalipsia pizza eta garagardo artean

Mikel Garcia  
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Zein unetan hasiko zinateke, heriotza usaineko bunker itogarrian giltzapetuta, erotzen?

Zenbat iraungo zenuke, hasi arte biziraupenaren izenean albokoa zanpatzen, lagun-etsaia torturatzen, gizatasuna galtzen?

Berdin dio ama prestu, suhiltzaile edo abokatu zaren zure egunerokoa, lurpeko bizilekuan sen primarioena gailentzen da, muturreko egoeran barru-barruko izaerak egiten du eztanda.

Eta beldurgarria da emaitza.

Beldurgarria delako *The Divide*, agonikoa, hertsia.

Baina lehenbizi girotu dezagun filma bere ingurumarian, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean eskaini baitute pelikula, eta berezia, oso berezia da Donostian egiten den zinemaldi hau.

Izuak eta algarak bikote ezin hobea osatzen dute

Beldurrezko Astea: hasieratik festa nagusitu da Antzoki Zaharrean, trufa eta dibertsioa.

Poltsa bete litxarrerri eseri da butaka-kidea eta eskutan pizza bat duela (!) iritsi da atzekoa. Garagardo katxiak barra-barra aretoan.

Armiarma-sarek eta eskeleto irudiz atondu dute antzokia, baina gutxi batzuk baino ez dira ausartu mozorrotuta, aurpegi margotuarekin edo katana bizkarrean dutela agertzera.

Filmak iraun bitartean mugikorrak piztuta izatea ez dago debekatuta, ezta pantaila handiarekin eta gainerako ikusleekin interaktuatzea ere; areago, kasik nahitaezko baldintza da, iluntasunaren babesean eta pelikularen tentsioa arintzeko komentario umoretsuak ozen jaurtitzea eta hilketak bibaka hartzea -zenbat eta bortitzagoa heriotza, orduan eta handiagoa aztoramena-.

Aperitifa *Paths of Hate* film laburra izan da, bideojoko estetikadun basakeria odoltsua.

Eta jarraian, Xavier Gens-en pelikula: bidaia eromen esperpentikoenera, gainbehera erabatekora.

Benetako ikara sortzen daki zuzendari frantziarrak,

susto efektisten beharrik gabe, tripak eta burmuinak barreiatuta erakutsi barik, baina odolari, biolentziari eta gizakion alderdi ankerrenari muzin egin gabe.

Pertsonaia bakoitza eta egoerak behartuta jasaten duten eraldaketa ondo irudikatzen ditu lanak, onen eta gaiztoen, onaren eta gaizkiaren mugak lausotuz.

Etorkizun ezezagunerantz jausten diren protagonisten bilakaera psikologiko eta fisikoak atezuan mantentzen du ikuslea, eta geroz eta handiagoa da estutasuna, zirrara.

Gustatu ez zaidana, gizatalde estatubatuarra bunkerrera eramaten duen arrazoa: iparkorearrena dirudien eraso nuklearra; besterik ez genuen behar potentzia anglosaxoiaren nazioarteko politika onetsi eta segurtasunaren paranoia aragotzeko.

New York hiriaren irudi suntsitu-apokaliptikoaren aurrean, "hau da Zapaterok utzi digun herentzia" entzun da aretoan, barre artean. Txantxak, izua, eta erritmo biziko amaiera. Gorputzaldi arraroarekin eta sentsazio indartsuekin atera naiz antzokitik.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna**  
Leire Kortabarria  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale.  
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



TORRA+PORTELLA

# Nahi baduzu, lor dezakezu

*Kibuc-en orain zerbitzu azkarreko altzariak ditugu. Argazkian ikusten den sofa atsegin badezu, eta lenbaitlen etxean izatea nahiko bazendu, zatoz Kibuc-era.*

**KIBUC** Zure bizitza errazteko aukerak

## Zerbitzu azkarra



gutxieneko prezioa bermatuta



Sofa

# 999 €



3D proiektuak doan

## KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 [gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com)



Proiektu eta eraberritze integralak

**KIBUC**  
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Sofaren neurria 272x160cm. Eserleku ateragarriak eta buru mugikorak. "Chaise longue"aren azpia aprobetxagarria eta 2 "pouff" barrenean dituen besoa. Ezker edo eskubialdean izan daiteke "chaise longue"-a.



## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Mertxe Mondragon** | Aramaioko alkate ohia (2003-2007)

- ▶ Bi aldiz zinegotzi izan ostean, alkatetza lortu zuen
- ▶ Burututako proiektuen artean haur eskola dago
- ▶ Hainbat auzotan ere egin zituzten lanak

## "Hamalaren ilegalizazio zela-eta politikoki giro onik egon ez arren, Udalean lan egiteko garai ona izan zen"



Mertxe Mondragon, gaur egun. | TXOMIN MADINA

TXOMIN MADINA | ARAMAIO

2003ko ekainaren 14an Aramaioko lehen -eta oraingoz azken- emakumezko alkate bihurtu zen Mertxe Mondragon (Aramaioko, 1949). Ordurako bazuen eskarmenturik udal jardunean, aurrez bi etapatan zinegotzi izan zen-eta.

**Nolakoa izan zen alkatetzara heldu arteko bidea?**

Beti ibili izan naiz elkarteetan-eta, eta gero EAJn sartu nintzen. Hor egin nuen nire bidea; besteak beste, agintaldi baten zinegotzi moduan eginaz eta 2002an ordezkari zinegotzi izanda.

**Behin alkatetzara helduta, nola aurkitu zenuten herria?**

Kontua ez zen izan alkatetzara heldu eta hutsetik hasia; EAJk beti izan du proiektu bat eta gauzak nahiko bideratuta zeuden. Nire lana izan zen bide horri jarraitzea.

**Nolako agintaldia izan zen? Oposiziorik ez zen egon...**

Hamalau plataforma ilegalizatu zituzten garaia ziren, eta gu, EAJ eta EAK osatutako koalizioa, bakarrik egon ginen udalbatzan. Nahiko talde ona osatu genuen, giro onarekin jardun genuen. Ilegalizazioa zela eta politikoki, ez zegoen giro onik, baina Udalean lan egiteko garai ona izan zen.

**Herriko lehenengo alkate emakumea izateak izan zuen eraginik?**

Nire aldetik, nire lanean eta besteekin nuen harremanetan ez. Besteen nirekiko tratuan ere ez dut uste, giro normala genuen.

**Garai hartan egindako zein proiektuekin zaude gusturen?**

Askorekin, baina egia da lau urtek ez dutela gauza asko egiteko ematen; egin gabe utzi genituenak, dena den, dirulaguntzekin utzi genituen. Gure garaikoa da haur eskola. EAJren politika izan zen auzoko problematikari erantzutea: ura, saneamendua... Guri egokitu zitzaigun Arexola bukatzea eta Arriola, Zalgoerrotabarri eta Eguzkierripakoak egiteko dirulaguntzak

lortuta utzi genituen, guk ez bukatu arren. Sartu ginenean Udala diru gabe zegoen, eta urtebete kosta zitzaigun hori eguneratzea. Guk diruarekin utzi genuen.

**Arantzatxori geratu zitzaizun?**

Udalan sartzean egundoko proiektuak dituzu buruan. Zaharren egoitza bat jartzeko asmoa genuen, nahiz eta planteatzea bera bakarrik oso zaila izan. Lortu genuena da Aita Mennirekin genuen hitzarmena zabaltzea, plaza gehiago lortu. Bertara joateko garraioa ere jarri genuen. Egoitza bera, baina, ez genuen lortu.

**Herri txiki bateko alkate izanda, borroka handia egin behar izan zenuen erakunde handiagoekin?**



2007an ireki zuten Aramaioko Masusta haur eskola. | GOIENA

Bai, garai hartan Aldundian PP zegoen eta zaila izan zen. Garrantzitsua da Aldundian dagoen jendeak herriak eta bertako arazoak ezagutzeko, eta PPko askok ez zuten Aramaioko ezagutzen. Ordu asko galdu genituen: lehenengo, konbentzitu egin behar zen, gure herriaren arazoak azaldu; eta gero, genituen proiektuak planteatu eta burutzea lortu behar zen. Esan behar da lan handia eginda proiektu asko atera genituela aurrera.

**Zer da horrelako kargu baten egoitearen onena? Eta txarrena?**

Aramaiokoa izan eta herria ezagutu arren, gehiago ezagutzeko aukera eman zidan, lekuak eta jendea. Herriaren alde egitea izan

zen onena. Txarrena? Hori dagoeneko borratu dut. Ni izan nintzen Aramaioko soldata izan nuen lehen alkate. Lan hartan jarduteko nire lana utzi behar nuen, eta beti izan naiz, lehen eta orain, alkateok kobratzearen aldekoa. Erabaki oso kritikatu izan zen baina zuk ezin dituzu azalpen guztiak eman.

**Alkate izan eta hurrengo hauteskundeetan ez zinen hautagai izan. Erretatu bukatu zenuen?**

Adinean aurrera nindoan eta beste planteamentu batzuk nituen. Ondo edo gaizki, baina herriaren alde lan handia egin nuen, eta nekatu samar nengoan. Aldatu beharra sentitzen nuen, atsedean hartzekoa. Faltan igartzen dudana? Ez, izugarritzko lana da. Oraingoz, ez dut itzultzeko asmorik.

**Egun, nola ikusten duzu herria?**

Ondo. Egun daudenak ezberdinak dira, batez ere lan egiteko orduan, baina onartu beharra dago. Gazteak dira eta horrek asko poztzen nau, ni haien ideia berekoa izan ez arren. Oso ondo dago Aramaioko orain, baina gustatuko litzaidake azpimarratzea nire aurretik egondakoekin egindakoen ondorio dela hori batez ere. Izen abizenak dituzte, baina denak dira politikariak, askotan hain gaizki ikusita dagoen hitza.

**"Alkate izateak leku eta jendea gehiago ezagutzeko aukera eman zidan"**

**"Egun Udalean gazteak dira, eta horrek asko poztzen nau"**

# ALOÑA-UDA

GOENA TELEBISTA | HARMAILATIK | ALOÑA-UDA DERBIA

AZAROAK 7, 20:44 | XABI URTZELAIK AURKEZTUA

BABESLEA: KIBUC GURE AMETSA





# HERRIAK



Estilo gotikoko San Juan parrokia; beirate argitsuak ditu. | IRATI GOITIA



Bedoñan dagoen estilo erromanikoko Santa Eulalia eliza. | I.G.

## ARRASATE

# Erromanikoaren eta gotikoaren mezu ezkututuak ezagutzeko aukera

Arte estilo horien gaineko ikastaroak antolatu ditu AEDk azarorako

IRATI GOITIA | ARRASATE

Arrasaten dauden estilo erromaniko eta gotikoko eraikinak gerutik ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du AED elkarteak. Izan ere, bi ikastaro antolatu ditu arte estilo horien inguruan. Irakaslea Arantxa Otadui izango da eta ikastaroek bi alderdi izango dituzte: batetik, alderdi teorikoa; eta bestetik, bisita gidatuak.

### 'Irudiaren ezkutuko mezua'

Ikastaroaren helburua da jendeak estilo askotariko lanek zer esanahi duten jakitea. "Egun, jendeak ez du jakiten Erdi Aroko arteak orokorrean zein sinbologia ezkutatzen duen". Otadui adierazi digu horixe azaltzen saiatuko dela ikastaroan. Gaineratu digu estilo bakoitzak irakurketa bat duela, eta balio duela Arrasaten, Burgosen edo Parisen. Jendeak estilo bakoitza identifikatzen jakitea; horretarako, ezaugarri zehatz batzuk erabiliko ditu Otadui bere azalpenetan: "Erromanikoaren kasuan hartu dut eskulturaren adibidea eta gotikoan berriz, arkitekturarena".

Hain zuzen, helburu horri jarraituz, erromanikoaren gai-

neko hitzaldiaren izenburua da *Irudiaren ezkutuko mezua*. Horrela, erromanikoko irudiek duten esanahia zein den ikasiko dute. Adibidez, zentauro batek Erdi Aroko jendearentzako zer esanahi zuen edo azoka irudikatzen zela lizunkeriaren irudia zizelkatuta. Horretaz gain, erromanikoaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren ere ikasiko dute: erabiltzen den arku mota, elizen egitura, Santiagorako bideak estilo horren garapenean izan zuen garrantzia...

### PROGRAMA

#### ERROMANIKOA

Izen-ematea hilaren 8ra arte.

**Azaroak 9** Hitzaldia.

**Azaroak 12** Bisita gidatua.

#### GOTIKOA

Izen-ematea hilaren 22ra arte.

**Azaroak 23** Hitzaldia.

**Azaroak 26** Bisita gidatua.

### Santa Eulaliara bisita

Behin alderdi teorikoa landu ostean, Bedoñara joango dira Santa Eulalia bisitatzen. Estilo erromanikoan Gipuzkoan gelditzen den aztarnarik zaharreneko da, eta egokien kontserbatzen denetariko bat. Haren berezitasun nagusia leihoak dira, ez da-eta haien jatorria ezagutzen; aurretiazko beste eraikin baten elementuak ziren. Otadui bisitan leihoen jatorriaren gainean teoria bat botako du; baina hori ezagutzeko ikastaroan eman beharko da izena. Leihoek dituzten ikonografiaren inguruan ere emango ditu azalpenak.

### Gotikoan, hiribildua ardatz

Bigarren ikastaroa estilo gotikoaren gainean izango da. Kasu horretan ere, hitzaldia izango da lehenik eta gero bisita gidatua. Erljioak hiribilduaren eguneroko bizitzan zuen garrantzia azaltzen saiatuko da Otadui. Arrasatek oraindik hiribilduaren itxura mantentzen du, eta argi ikusten da zein den hiribilduko bizitzan ardatz nagusia: San Juan Parrokia; erdi-erdian dago. Hain zuzen, parrokiara egingo dute

bisita eta bertan ezagutuko dituzte estilo gotikoaren berezitasunak; hala nola beirateak eta arku zorrotzak.

Otadui argitu digu arte estilo horiek aukeratu dituztela

jarraipena izan dezakeen ikastaro moduan planteatu dutelako. Hala, aurtengoek erantzun ona izanez gero, datorren urtean errenazimentuarekin eta barrokoarekin jarraitzea aurreikusten dute. Otadui gaineratu du Arrasate herri pribilegiatua dela, hiribildua sortu zenetik estilo guztietako aztarnak kontserbatu direlako.

### Izen ematea bost euro

Ikastaro bakoitzeko prezioa bost euro da. Interesatuak AEDra joan, telefonoz deitu (943 77 12 28) edo mezu bat idatzi dezakete (aed@aedelkarte.com).

MAITE AGIRRE | AED-KO DINAMIZATZAILEA

## "Norberaren ezagutza besteekin partekatzea da ikastaroen helburua"

ELKARTrUK programaren barruan antolatu ditu AEDk artearen gaineko ikastaroak.

### Zer da zehazki ELKARTrUK egitasmoa?

AEDk martxan jarriko duen egitasmo berri bat da. Azaroan hasiko gara Arrasateko historiari buruzko bi ikastarorekin eta urtarirlean irrintzi eskolekin jarraituko dugu. Hala ere, ekimenak jarraipena izango duela aurreikusten dugu, beste ikastaro batzuekin.



Maite Agirre. | GOIENA

### Zein da egitasmo honen helburua?

Elkarteko bazkideek edo herriko euskaltzaleek musu-truk emango dituzten ikastaroak dira eta euren ezagutza partekatzea da helburua. Azken baten, ikastaroretara joaten direnekin euren jakituria

trukatzea. Era berean, bai bazkideak eta bai euskaltzaleak elkartearen bueltan biltzeko gune eta uneak sortu nahi ditugu. Beraz, herritar guztiak animatu nahi ditugu izena ematera.



## ARRASATE



Masaje ikastaroa egin zuten guraso eta umeen arteko komunikazioa hobetzeko. | IRATI GOITIA

## Haur eta gurasoen arteko harremana lantzeko ekintza ugari Gurasolandian

IRATI GOITIA | ARRASATE

*Ikasi, transmititu eta praktikan ipini!* lelopean Gurasolandia egin dute hirugarrenegoz. Eguaztenean hasi ziren gurasoei zuzendutako ekintzak eta asteburuan izan dute jarraipena. Hala, zapatuan hainbat hitzordu izan ziren: jostailu erakusketa eta masaje tailerra.

**Erakusketa eta ikastaroa**

Kulturaren euskarazko jostailuak ezagutzeko eta aholkuak jasotzeko aukera izan zen: jolas koope-

ratiboak, sinbolikoak, txoko digitala... denetarik zegoen.

Haur masaje ikastaroa ere egin zuten. Helburua izan zen haurren eta gurasoen arteko komunikazio modu berri bat garatzea: ukimena. Guraso zein haurrendako onuragarria den komunikazioa dela adierazi zuen Garikoitz Lopez de Muniain irakasleak.

Atzorako jaialdia zuten antolatuta, baina bertan behera gelditu zen eguraldi txarragatik.

**MAITE URANGA**  
ARRASATE

"Irakurri nuen erakusketa zegoela, eta Gabonak hurbil ditugunez, ea zer aukera dagoen ikustera etorri gara; ideia batzuk hartzera. Dotore jarrita dute eta jostailuak oso politak iruditu zaizkit".

**JONE AGINAGALDE**  
ARAMAIO

"Oso ikastaro interesgarria iruditu zait. Gogo handia nuen horrelako ikastaro bat egiteko eta oso gustura egon naiz. Erakutsitako teknikak haurra erlaxatzeko balioko didatela uste dut".

**ASIER URGOITIA**  
ARRASATE

"Seme-alabekin etorri gara, ikus dezaten nolako jokoak dauden. Umeendako oso egokiak iruditu zaizkit; guztiek elkarrekin jolasteko oso aproposak eta gainera oso politak".



Neskatala erakusketan zeuden joko eta panpinei begira. | I.G.

## ANTZUOLA

## Eskulanak eta merienda eginda hasi dute ikasturtea gazte txokoan

MIRARI ALTUBE | ANTZUOLA

Zapatuan, hilak 5, zabaldu zituen ateak Eguzki auzoan dagoen gazte txokoak. Barruan egoteko eguraldi aproposa zegoen eta herriko hainbat gaztetxo sartzeko zain zeuden.

Zapatu eta domeka guztietan zabalduko dute 12 eta 15 urte arteko gaztetxoendako -DBHko 1. mailatik 3.era- maiatza bitartean. Dagoeneko 31 lagunek eman dute izena baina oraindik zabalik dagoela epea gogorarazi dute begiraleek -kuota, 45 euro urtean-.

**Filmak ikusi eta sukaldean ibili** Eskulanak egin dituzte bi egunotan, eta meriendatxoa ere bai ikasturteari hasiera emateko. Datorren aste bukaeratik aurrera filmak ikusiko dituzte eta sukalde kontuetan ere jardungo dute.

Sei begirale ibiliko dira herriko gaztetxoekin, aste bukaera bakoitzean bina. Baina ekintzak proposatuko dituztenak gazteak eurak izango dira; begiraleek gero, ekintzak gertatzen lagunduko diete.

**JON MATA**  
13 URTE

"Iaz hasi nintzen etortzen eta oso ondo pasatzen dut. Pin-ponean jokatu, filmak ikusi, sukaldean jardun... oso gustura egoten naiz. Ikasturte bukaerako irteera gustatu zitzaidan gehien iaz".

**XABIER IPARRAGIRRE**  
13 URTE

"Bigarren urtea da natorrena eta oso giro ona egoten da. Telebista ikusi eta sukaldean ibiltzea dut gustuko. Taloak egin, pintxoak gertatu... Argiñanok berak baino hobeak egiten ditut!".

**IDOIA RAMIREZ DE OKARIZ**  
BEGIRALEA

"Adin tarte zaila da parte-hartzera bultzatzeko baina eurei esaten diegu ekintzak proposatzeko eta gustura ibiltzen dira gero. Gainera, guztiok ezagutzen gara hemen eta giro polita izaten dugu".



Mutil koadrila gazte txokoaren irekiera egunean, jolasean. | M.A.



Pin-poneko mahaiaren bueltan mutilak baloiaekin jolasean. | M.A.





Gizonak perretxikoei begira. | J.C.



Epaimahaia dastatutako pintxoak puntuatzen. | IRATI GOITIA



Lehiaketara aurkeztutako pintxo ederrei begira. | JULIO CALLEJA

## ELGETA


# Herria girotzeko asmoz, pintxo lehiaketa eta perretxiko erakusketa

Maialde hoteleko Jesus Kalboetxeagak eginiko pintxo izan zen atzoko txapelketako irabazlea



**JESUS KALBOETXEAGA**  
IRABAZLEA

"Orain dela hiru hilabete ireki genuen hotela eta herriko ekintzetan parte hartzeko asmoz eman zuten izena, txapelketak larregi gustatzen ez zaizkidan arren. Ez nuen irabaztea espero".



**PATXI BASAURI**  
TURISMO BATZORDEKO BURUA

"Herriko sei tabernek hartu dute parte lehiaketan; esango nuke oso harrera ona eduki duela. Are gehiago, pintxo oso onak aurkeztu dituzte. Lastima izan da eguraldiak lagundu ez izana".

IRATI GOITIA | ELGETA

Berdura, ganba eta perretxiko betetako kalabazina, txipiroi salta eta tomate mermeladaz. Ez dago pintxo probatu beharrik, irakurtzea nahikoa da ona egon behar duela jakiteko. Horixe, atzo Elgetan egin zuten pintxo lehiaketako irabazlea, eta Maialde hotelera bertaratu zirenek, irakurri ez, dastatzeko aukera ere izan zuten.

Guztira sei tabernek hartu zuten parte atzoko txapelketan: Iñaki, Haizea, Bolatoki, Espaloia, Patxi eta Maialde hotela. Aurten laugarrenegoz egin dute eta partehartzaile bakoitzak bi pintxo aurkeztu behar zituen. Beraz,

epaimahaiak 12 pintxotatik hobereana aukeratu behar izan zuten. Javi Gamarra, Jose Luis Gartzia eta Dayami Baro izan ziren lan horretan jardun zutenak. Balaratu zuten pintxoaren elaborazio, aurkezpena eta zaporea. "Pintxo irabazlearen zaporea ona azpimarratuko genuke" esan zuten, eta gaineratu: "Denetarik pintxoak egon dira, landuagoak eta sinpleagoak, baina parte hartzea da garrantzitsua".

## Perretxiko erakusketa

Pintxo guztiak ikusgai izan ziren Udaleko arkupetan. Bertan jarri zuten, perretxiko erakusketa ere.

Asteazken zehar herritarrek udaletxera eramandako perretxikoekin egin zuten; izendatuta eta pozoitsuak eta ez pozoitsuak bezala sailkatuta jarri zituzten.

## Herri giroa sortzea

Giro bikaina sortu zen atzo Elgetan, batez ere, tabernetan. Izan ere, egiten zuten euri zaparradarrekin hobe tabernen berotasunean eta goxotasunean, kalean baino. Trikitilariak ere alaitu zuten goiza; tabernaz taberna ibili ziren kalejiran.

Hain zuten, egitasmoaren helburua horixe da: herria alaitzea. Jendea erakarri nahi dute: "Base-rietatik jendea kalera jaistea eta beste herrietatik jendea etortzea nahi dugu" esan zigun Patxi Basaurik. Horrela, azarorako hainbat ekintza antolatu dituzte, besteak beste: argazki lehiaketa, umeendako jolasak edo pilota partiduak. Lehiaketan parte hartu zuten tabernetan, puntuazio altuena jasotako pintxoak dastatzeko aukera ere izango da domeketan euro baten truke, trikitilari edo bertsolariez girotuta.



ELGETA

JULIO CALLEJA

## Gaztaina erre jana erretiratuek

Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteak gaztaina erre jana egin zuten egubakoitz iluntzean, 18:30ean. Dagoeneko ohitura bilakatu dute, izan ere, aurten laugarrenegoz egin dute. 25 kilo gaztaina erre zituzten danbolinean eta 60 pertsona inguru elkartu ziren afaltzeko Oskarbi elkartearen duten lokalean. Adierazi digute giro bikaina izan zutela eta gustura izan zirela jan-edanean.

## BERGARA

## Jon Olibares, Osintxuko auzo alkate berria

Jon Olibares izango da Osintxuko auzo alkatea datozen lau urteotan. Hala, Luis Mari Alberdi ordezkatu du. Atzo egin zituzten auzo alkatea aukeratzeko bozak auzoko liburutegian eta guztira 95 herritar gerturatu ziren botoa ematera. Olibaresek 33 bozka jaso zituen; beste hautagaiei alde handia atera zien.



JULIO CALLEJA





Egoitza txukuntzen jardun dute gaztetxoek lehen asteburuetan. | ARTXIBOA

## Gaztegunea bizi-bizi lehen hilean, eta hala jarraitzeko erabaki irmoarekin

Egoitza txukundu ostean, hainbat plan dituzte 'gaztetxokeroek' datozen aste bukaeretarako

**JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE**  
Urriaren 14an ireki zenetik, Txatxilipurdiko arduradunen arabera, bizitasunez jositako hiru aste bukaera bizi izan dituzte *gaztetxokeroek* gaztegunean: egoitza txukuntzen ibili dira, hormak margotzen, karaokea probatu dute, film laburrak egin dituzte –baita beste batzuk ikusi ere–, gau beltza ospatu dute eta hankapaloek ere protagonismo berezia izan dute. Asteburuan, egunero 40 eta 90

gaztetxo artean egon dira; nahikoa lan izan dute hezitzaileek gaztetxo guztiak ezagutu eta gazteguneko arauak azaltzen.

### Irratia, murala, artisautza...

Azarora begira, gainera, egitarau berezia antolatu dute: irratia mar txan jarriko dute eta mural erraldoi bat margotuko dute, eta artisau aste bukaera ere izango dute: narrua eta alanbrea lantzen ikasiko dute, besteak beste.

### Paddy Rekaldek 'Spray' liburua aurkeztuko du hilaren 11n, gaztetxean

Ikuskizun berezia izango da gaztetxean azaroaren 11n. AEDk eta gaztetxeak elkarlanean, *Spray* poema ikuskizuna antolatu dute. Hainbat graffitariekin batera, Paddy Rekalde eta DJ Katzak hartuko dute parte. Hitzordua azaroaren 11an izango da, egubakoitza, 20:00etan. Sarrean borondatea ordaindu beharko da.

Maiatzeko literatur jauzien barruan aurkeztu behar zuen Rekaldek baina azken orduan taldekoren batek ezin izan zuen etorri. Bueltan dator.

### KINTADAK

#### 1957AN JAIOTAKOAK

Hilaren 12an bazkaria egingo dute. 50 euroko ordainketa egin behar da 3035 0047 10 0471082190 kontu zenbakian, azaroaren 9a baino lehen. Izena eta lehen bi abizenak jarri kontzeptu moduan.

#### 1955AN JAIOTAKOAK

Hilaren 26an Errioxako Done-miliaga Kukula herriar bazkaria. 60 euroko ordainketa egin behar da 3035 02 02792021039641 kontu korrante zenbakian.



Tom Tom Makuts-en zuzeneko Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. | GOIENA

## Hip-hop akustikoa oinarri duen Tom Tom Makuts taldea asteen

Brasilgo erritmoak, afrokubatar estiloa eta jazz ere eskainiko ditu seikoteak Kooltur Ostegunean

**J.B. | ARRASATE**

The Screaming Targets taldea izango da gaztetxeko agertokira joan den egunean. Kontzertua ez zen ordubetera iritsi baina saio bizia izan zen. Power pop eta rock doinuak nagusi eta Gisela Crespo abeslariaren ahotza taldearen bereizgarri. 100 lagun inguru elkartu ziren.

### Doinu eta instrumentu asko

Gasteizko Tom Tom Makuts taldea izango da datorren gonbidatua Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan. 2008an

sortu zen taldea eta Ortophonk, Gasteiz Big Band eta Electric Five Samba taldeko kideek osatzen dute, besteak beste. Hip-hopa, Brasilgo erritmoak, jazz, doinu latinoak zein doinu afrokubatarak uztartzen dituzte. Seikotea dira, eta ohiko instrumentuez gain, bibrafonoa, cavaquinhoa, perkusioa eta scratchak erabiltzen dituzte.

Lehen lanarekin Arabako Aldundiaren musika lehiaketa irabazi zuten eta Mondo Sonoro aldizkariak 2010eko maketa onenaren saria eman zien.



JOKIN BEREZIARTUA

## Biribilgunearen irekiera telefono sareak atzeratuko du

Garagartzako biribilguneko obrak atzerapenarekin datoz. Hirigintza Sailak adierazi du obrak amaitzeko epe berri bat finkatu behar dutela; ez dakite noiz. Telefono, gas eta elektrizitate sarea egokitu behar dute baina telefono sarearen arduradunak ez dira agertu. Irudiaren eskuinaldean ikus daiteke telefono postea ez direla ukitu: "Obretan halakoak gertatzen dira; Telefonikaren zerbitzua gero eta okerragoa da" dio Hirigintza Sailak.



GOIENA

## Abian da elkartasun zozketa

Eguenean abiatu zen euskal presoen aldeko elkartasun zozketa. Eguenero otzara bat zozketatuko dute: asteen zehar tabernetan eta 19:00etatik 21:00etara Portaloian txartelak saltzen egon ostean, 21:00etan bertan egingo da zozketa. Irabazleak 24 ordu izango du saria jasotzeko, Irati tabernan (943795611) Lehen zenbaki saritua, 505a: Iluntz tabernakoek zuten eta Gorka Morrased jaso zuen saria.



# 'Periodikua letuz ilustratzen gera': saldu, baina, gutxiago saltzen da

Asteburuetan igartzen dela eta salmenta lekuak gehitu egin direla ere badiote saltzaileek



Rosa Maiztegi, Garibai etorbideko kioskoan egunkaria saltzen. | J.I.

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Xabier Letek jarritako koplek zioten egunkaria irakurritz ilustratzen garena. Gizon -eta emakume- arrentena omen, baina Arrasateko prentsa saltzaileen arabera arrunt izateari uzten ari zaio poliki poliki, egunkaria erostearena behintzat.

"Urte batzuetako joera da salmenten beherakadarena. Eta are gehiago igartzen da asteburuetan. Jendeak alde egiten du herritik egubakoitzetan, eta astelehenera arte! Domeketan zapatueta baino zerbait gehiago saltzen da, baina gutxi", dio Garibai etorbideko kiosko Rosa Maiztegik.

Erdiko kaleko prentsa saltokiko Jon Arriaranek zenbateko bat ere eman digu: "Duela sei urte baino %30 edo %40 egunkari gutxiago salduko dut nik".

Arrazoi bila jarrita hainbat aukera aipatzen dituzte saltzaileek, pisuzkoena zein izan daitekeen zehazten jakin gabe: gero eta leku gehiagotan -bestelako komertzio, denda...- saltzen dutela; informazioa eskuratzeko bide asko eta berriak ditugula -Internet...-; egoera ekonomikoa -asteburuetako egunkariak, adibidez, gehigarri eta guzti, garestiak direla dio Maiztegik-; jendeak tabernan irakurtzen duela edo ez duela irakurtzen... Nahiz eta ezin uka gauza ederra denik, batzuentzat

behintzat, *goizean jeikitzean lehenbiziko gauza*, munduan zer berri den enteratzea, *kafesnia hartuta horrekin batera*.

## Realak ez du laguntzen

*Realak kuartro-uno galdu zuen atzo*; emaitza ez da beti errepikatzen, baina aspaldian -asteon Rayoren aurka zer egin duen jakin gabe- ez dira fin ari txurirudinak, eta horrek ere ez die laguntzen prentsa saltzaileei; Real ondo joateak, horrek bai: "Domekan Realak irabazi egiten badu astelehenean gehiago saltzen da, baina ez da garaiotako kasua", dio Rosa Maiztegik.

"Kirol lehiaren bat baldin badago eta gipuzkoarren batek irabazi egiten badu gehiago saltzen da hurrengo egunean. Bertako gairen bat baldin badago, kirolean, gizarte arloan, *Maritxu* bezalako jai bat edo ezbeharren bat, adibidez, baita ere. Baina bai, Realak saldu egiten du, ondo badoa", dio Jon Arriaranek.

*Gauzak gaizki dabilta, hau da komeriya*; baina Arrasateko kiosko eta prentsa saltokietan euren zereginen jarraitzen dute, urtean hiru egunetan izan ezik -Zapatu Santua, Eguberri eguna eta Urteberri eguna-, erosi nahi duenari egunkariak saltzen, egunero-egunero: gaur saldu eta... *bihar arte, aio!*



Jon Arriaran, Erdiko kaleko saltokian, gehien saltzen diren egunkariekin. | J.I.

## ESANAK

**"Jendeak alde egiten du herritik egubakoitzean, eta astelehenera arte; asteburuan asko igartzen da beherakada"**

ROSA MAIZTEGI | SALTZAILEA

**"Duela sei urte baino %30 edo %40 egunkari gutxiago salduko dut nik. Realak saltzen du, ondo baldin badoa"**

JON ARRIARAN | SALTZAILEA

## Zarzuela emanldirako sarrerak, Amaian, Internetez edo telefonoz

Hilaren 18an estreinatuko du Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak "La Revoltosa" lana, eta emanldietarako sarrerak eskuratu daitezke dagoeneko. Amaia-ko leihatilaz gain, aurrez erosteko bi bide daude: Kutzaren webgunean eta telefonoz -943001200 zenbakian-; kutxazainetan ez dira egongo, nahiz hasieran hala adierazi.

## Bedoñan ardo eta gazta dastatzea egiteko izena eman behar da

Mikel Garaizabalekin Arabar Errioxako ardoa, txakolina eta Idiazabal gazta dastatzeko saioa egingo dute azaroaren 25ean, Bedoña Batu elkarteak antolatuta. Parte-hartzaile kopurua mugatua izango da, eta hilaren 18a izango da izena emateko azken eguna: 688887902 zenbakira deitu behar da, iluntzetik aurrera.



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21  
[garbittu@euskalnet.net](mailto:garbittu@euskalnet.net)

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak  
•  
Obra bukaerako garbiketak  
•  
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak  
•  
Kristalen garbiketak  
•  
Arropa garbiketak



# 2.500.000 euro Bergarara, 25.000 euroko 100 dezimotan

Loteria Nazionaleko 57.230 bigarren zenbaki saritua osorik saldu dute Bergaran

MIREN ARREGI | BERGARA

Zapatuko Loteria Nazionaleko bigarren zenbaki saritua osorik saldu dute Bergaran. 57.230 da zenbaki hori eta 10 dezimoko 10 serie saldu dituzte. Dezimo bakoitza 12 eurotan saldu da eta bakoitzaren jabeak 25.000 euro irabazi ditu. Peñalba administrazioan eta Azpeitxi Jatetxean saldu dituzte dezimo sarituak eta dagoeneko jende asko agertu omen da boleto sarituarekin. Guztira 100 dezimo saritu daude Bergaran, horietatik 27 Azpeitxi Jatetxean salduak, eta gainontzekoak Peñalban. Zorionak zortedun guztioi!



Peñalba administrazioko Mari Carmen Heras zenbaki saritua eskutan | J.C.

ESANAK

**"Urte mordoia daramatzagu Peñalban zenbaki hori saltzen"**

MARI CARMEN HERAS | PEÑALBA

**"Auzotar askori tokatu zaio. Dagoeneko asko etorri dira zenbakiarekin"**

OLATZ BELDARRAIN | AZPEITXI



Azpeitxi Jatetxean sarituetako batzuk ospatzen. | ANDER MONEDERO

## Datozen asteotan ikastaroak Udalarekin eta Bizikasirekin

E.M. | BERGARA

Azaroan zehar hainbat ikastaro egiteko aukera dago. Gaur, astelehena, oinarritzko argazkilaritzari buruzkoa hasiko da. Eskolak, astelehen, martitzen eta eguaztenetan izango dira, 19:15etik 21:15era, Zabalotegin, Pol-Pol argazki taldearen egoitzan. Ikastaroak azaroaren 30era arte iraungo du. Prezioa 50 euro da, 30 euro ikasle, erretiratu eta langabeendako. Udaleko kultura zerbitzuak antolatu du ikastaroa. Argibideak 943 77 91 59 telefono zenbakian.

**Defentsa eta sukaldaritza**

Bestalde, Bizikasik bi hitzordu ditu azarorako. Alde batetik, aurreko urteotan bezala, defen-

tsa pertsonalaren inguruko ikastaroa antolatu dute. Gaur, astelehena, hasi eta abenduaren 14an amaituko da. Eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 17:30etik 19:30era. 30 euro da prezioa eta plaza mugatuak dira.

Bigarren hitzordua sukaldaritza begetarianoa da. Zuloa elkartearen egingo da ikastaroa, gaur hasita. Hurrengo hiru astelehenetan ere eskolak egongo dira Zuloa elkartearen, 18:00etatik 20:30era. Ikastaroaren prezioa 20 euro da.

Bizikasiren ikastaroetarako Miguel Altuna ikastetxean, edo 943 76 93 94 telefono zenbakian (Miren) eman dezakezue izena.



Sukaldaritza begetarianoa landuko dute gaurtik Zuloa elkartearen. | GOIENA

## Hilaren 24an Lizarrara joateko irteera antolatu dute erretiratuek

E.M. | BERGARA

Kultur hamabostaldia amaituta, herriko erretiratuek egunero martxari eutsi diote eta azaroaren 24an Lizarrara joateko irteera antolatu dute. Egun osoko irteera izango da eta autobusa 08:30ean aterako da Ibargaraiko bus geltokitik:

Lizarrara iritsitakoan bisita gidatua egiteko aukera izango dute. Hain zuzen ere, herri erdiko monumentu aipagarrien gaineko azalpenak jasoko dituzte; besteak beste, XII. mendeko San Migel parroikia edo Ega ibaia zeharkatzen duen Erdi Aroko zubia ikusiko dituzte. Bisita gidatua amaitu eta

gero, 14:00ak aldera, Irache Hotelean egingo dute bazkaria. Bazkalostean oparien zozketa egingo dute eta dantzaldia eta bingo jokoa ere izango dituzte. Izena emateko interesatuek erretiratuen egoitzara jo dezakete. Edozein argibidetarako 943 76 21 40 telefonora deitu dezakete interesatuek.

**Jarduerak astean zehar**

Erretiratuen egoitzan martxan dituzte hainbat jarduera: yoga eskolak astelehen eta eguaztenetan; eskulanak martitzenetan; eta, azkenik, pintura eskolak egubakoitzetan. Argibideak bertan jaso ditzakezue.



Lizarrako San Migel parroikia. | GOIENA



Jon Sarasua. | GOIENA

## Jon Sarasuaren hitzaldia eguaztenean Irizarren

'Hizkuntzak, bideak eta zubiak' izenburuko hitzaldia egingo du irakasle aretxabaletarrak

E.M. | BERGARA

Jardun euskara elkartearen eskutik, *Hizkuntzak, bideak eta zubiak* izenburuko hitzaldia egingo du Jon Sarasuak etzi, azaroaren 9an, Irizar jauregiko aretoan, 19:00e-

tan. Jon Sarasua Garabide Elkarteko sortzaile eta Zuzendaritza Batzordeko kidea da.

Sarasuak ahots propioa du euskalgintzan. Jende askorendako bertsolari gisa ezaguna bada

ere, urte dezente dira jendaurreko bertso-saioak utzi zituela. Orain irakasle dabil HUHEZIn eta, horrez gain, hainbat kooperazio-egitasmotan sartuta dago, besteak beste, Garabide elkartearen bidez. Kooperazio era berria egiten duen elkarte da Garabide.

**Elexpuru, hilaren 14an**

Era berean, azaroaren 14rako, toki eta ordu berean, Juan Martin Elexpururen hitzaldia antolatu du Jardunek. Zer gertatzen da Iruña-Veleian? hitzaldia egingo du Elexpuruk. Euskal filologian doktorea, gertutik ezagutzen du gaia idazle bergararrak.

Aspaldian zalaparta handia sortu da Iruña-Veleiako idazkunen inguruan. Adituen batzordeak erabaki zuen aurkikuntzak faltsuak direla, baina harrezkero kontu hori argitu gabe dagoela eta argitzeko eskatzen dutenen ahotsa sendo entzun da. Hain zuzen, horien artean nabarmendu da Elexpuru. Ostrakak banan-banan aztertu ditu hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, eta benetakoak izateko itxura guztia dutela dio. Hitzaldian azalduko du bere ikuspuntua.



# Euskarazko liburuen truke azoka Jardunekin hilaren 25ean eta 26an

Liburu zaharren bilketa egingo dute kultura etxean gaurtik azaroaren 24ra arte; euskal irakurketa surpertzera da azokaren helburu nagusia

EDU MENDIBIL | BERGARA

Jardun euskara elkarteak euskarazko liburuen truke azoka antolatu du aurten ere. Azaroaren 25ean eta 26an egingo dute, San Martin plazan. Iaz egin zuten lehenbiziko aldiz eta balorazioa positiboa da, Jarduneko ordezkarien arabera. Maitane Arizabaletak zera adierazi digu: "Jendearen erantzuna oso ona izan zen, ideia herritarren gustukoa izan zen eta parte-hartze handia lortu genuen, liburu asko jaso genituen-eta".

Bi dira ekimenaren helburuak: euskarazko irakurketa bultzatzea, batetik, eta liburuen berrerabilpena sustatzea, bestetik. Hain zuzen, Jarduneko azpimarratzen dutenez, etxean pilatu eta irakurtzen ez diren liburuei irtenbidea emateko modu bat da. Iazko ekitaldian adin guztietako herritarrek parte hartu zutela nabarmendu dute antolatzaileek. "Haur, gazte, zein helduengana iristea garrantzitsua da guretzat", dio Maitane Arizabaletak.

## Bilketa, gaurtik hilaren 24ra

Esan bezala, euskarazko liburuak aldatzeko aukera paregabea izango da azokan. Behar ez dituzuen eta egoera onean dauden liburuak eraman ditzakezue Jarduneko kultura etxean daukan bulegora. Liburuak sailkatu egingo dituzte adinaren arabera eta eraman-dako liburu bakoitzeko txartel bat emango zaie partaideei. Ondoren, txartel bakoitza sailkapen bereko edozein liburuarengatik trukatu ahal izango da azaroaren 25eko eta 26ko azokan.

Liburu bilketa hilaren 24an bukatuko da eta bien bitartean Jarduneko bulegoan jasoko dituz-



Iaz jasotako erantzunarekin pozik dira Jarduneko ordezkariak. | GOIENA

te liburuak, goizez 09:00etatik 13:00ak arte eta arratsaldean 15:00etatik 19:00ak arte. Egubakoitzetan 18:00etan ixten dute bulegoa. Edozein argibidetarako Jarduneko telefono zenbakira (943 76 36 61) deitu dezakezue.

**Azoka, San Martin plazan**  
Jardunen jasotako txartelen tru-

ke liburuak hartzeko aukera izango da azokako egunetan, hilaren 25ean eta 26an. Egubakoitzean, hilaren 25ean, arratsaldean izango da azoka, 18:00etatik 20:00etara eta zapatuan, hilaren 26an, goizez, 11:00etatik 13:00ak arte. Maitane Arizabaletaren hitzetan, "iaz oso giro ona sortu zen azokan; jendea liburuak ikus-

ten, aukeratzen... Jende ugari hurbildu zen azokak nola funtzionatzen zuen ikustera, ikusmina piztu zuen".

Betiere, eramaten diren liburuak egoera onean egon daitezzen eskatu dute antolatzaileek. Era berean, gizakion garapenerako liburuak tresna ezin hobeak direla azpimarratu dute.

## KINTADAK

**1943AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 12AN**  
1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 12an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea: 943 76 16 13 (Arantxa) edo 943 76 53 22 (Tejidos Fernandez).

**1946KO BERGARARREN BAZKARIA ZAPATUAN**  
1946an jaiotakoek bazkaria azaroaren 12an Tartufon. Izen-ematea bertan: 943 76 35 51.

**1930EKOEN OSPAKIZUNA HILAREN 12AN**  
1930ean jaiotakoek bazkaria azaroaren 12an Zumelagan. Aurretik, 14:00etan, Olibotan elkartuko dira argazkia ateratzeko. Izen-ematea: 943 76 22 22 edo 943 76 26 23.

**1947AN JAIOTAKOEN AFARIA ZAPATUAN**  
1947koen afaria azaroaren 12an Agorrosinen. Euskadiko Kutxako 0091140069 kontuan 45 euro ordaindu behar dira.

**1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA DOMEKAN**  
1933an jaiotakoek bazkaria azaroaren 13an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea (6 euro) Intxortan edo Azpeitxin.

**1934AN JAIOTAKOAK HILAREN 19AN BATUKO DIRA**  
1934koen bazkaria azaroaren 19an Errekin. Frontoian batuko dira, 14:00etan. Izen-ematea (12 euro) Errekin.

**1948AN JAIOTAKOEN AFARIA AZAROAREN 19AN**  
1948an jaiotakoek afaria azaroaren 19an Zabalan. Frontoitik autobusa aterako da 21:00etan. Izen-ematea (55 euro) Euskadiko Kutxan.

**1991 JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 19AN**  
1991koen afaria azaroaren 19an Tartufon. Izen-ematea Euskadiko Kutxan.

**1953KOEK AFARIA EGINGO DUTE HILAREN 19AN**  
1953koen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxa jatetxean. Izen-ematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoan (Tasio), azaroaren 17a baino lehen.

**1945EAN JAIOTAKOAK, AZAROAREN 26AN**  
1945ekoen afaria azaroaren 26an Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Azpeitxin bertan, 25 euro aurreratuta.

**1966AN JAIOTAKOAK, AZAROAREN 26AN**  
1966an jaiotako bergarrek afaria egingo dute azaroaren 26an. Batzokian afalduko dute, 22:00etan. Halere, 19:30ean elkartuko dira Ariznoa tabernan. Izen-ematea Ariznoa tabernan, azaroaren 7tik 24ra. 10 euro ordaindu behar dira fidantza moduan.

## Osintxuko koadrila Leitzan

Leitzako Peru-Harri museora irteera egin zuen Osintxuko talde batek urriaren hasieran. Iñaki Perurenaren museoa bisitatu ondoren, eta egiten zuten eguraldi ederra aprobetxatuz, ausartek bainua hartu zuten Beteluko errekan. Handik Altzo ezagutzera joan eta egun bikaina igaro ondoren etxera itzuli ziren. Argazkian, osintxuarrak Iñaki Perurenarekin.



OSINTXUKO HERRI BATZARRA



# Munduko 13 bazterretatik Oñatira, apirilera arte

Lege Soziologia Institutuan daude ikasleak masterra egiten

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Munduko bazter guztietatik heldu dira Lege Soziologia Institutura: Vietnam, Liberia, Uganda, Estonia, Portugal, India, Argentina, Euska Herria... Iaz egin zuten masterra egin ahal izateko eskaera eta irailan heldu ziren gurera. Apirilera arte Antia jauregian egongo dira bizi izaten. Askotariko kulturak elkartu dira, eta elkarbizitza "aberasgarria" dela diote. "Oso ezberdinak gara. Oñatira ezberdinak ditugu. Gauza ezberdinak jaten ditugu. Dena den, oso aberasgarria da kultura bakoitzetik zerbait ikasten dugulako", esan digu masterreko ikasleen ordezkari Luisana Aizprua.

Gainera, euren egonaldia errazteko asmoz eta Friendship programaren bidez, aukera dute Oñatiko hainbat koadrilatako kide izateko. "Oñatiarrak itxiak direla? Bai, zera! Gurekin oso ondo portatu dira eta herrian integratzeko aukera eman digute. Gainera, herriko jaietan heldu ginen gehienok eta parranda egiteko aukera izan digu", dio Beñat Etxebarriak.

## Tesia nola idatzi ikasten

Parranda eta bestelako ekintzak egiteko aukera dute aste bukaeretan, baina astelehenetik egubakoitzera arte buru-belarri egoten dira masterra egiten. 09:00etatik 12:00etara eskolak hartzen dituzte (aurreko astean eta oraingoan Daniel Bonilla irakaslearekin). Apirilera arte bi asteko 13 ikastaro egingo dituzte, bakoitzean irakasle batekin. Eskolak bukatzerakoan, aisialdirako



22. masterreko ikasleak Daniel Bonilla irakaslearekin, Jorge Oteizaren eskulturaren aurrean. | MIREIA BIKUÑA

### DATUA

# 22.

EDIZIOA

Hori da unibertsitateko masterrak beteko duen edizioa.

### ESANAK

"Oñatiko ikasleekin ekintzak egiten dihardute"

SUSANA ARRESE | KOORDINATZAILEA



ASIER SANTOS  
FRIENDSHIP-EKO KIDEA

"Kulturak eta ohiturak ezagutzeko, oso aberasgarria da"

Orain dela lau urte hasi zen Asier Santos oñatiarra atzerriko ikasleekin hartu-emanetan.

**Zergatik erabaki duzu Friendship programan parte hartzea?**

Ni ere ikasle izan naiz atzerrian, eta badakit ze zaila den integratzeko. Oñatira itzuli nintzenez, eta atzerriko ikasle taldea ikusi nuenean, euren gaitasuna hurbildu nintzen. Haren ondoren sortu zen Friendship programa. Eta asko eskertu genuen. Hasierako urtean era altruistan egin nuen, eta unibertsitatean proiektuari forma eman ziotenean, asko eskertu nuen. Orain, Susana Arreseren etengabeko laguntza dugu.

**Zer ematen dizu programak?**

Herrialde bakoitzeko kultura, ohiturak, janaria... eta, batez ere hizkuntza, ezagutzeko. Oso aberasgarria da.

denbora dute: liburutegia, gimnasioa, dantza ikastaroa...

Astean behin, eguaztenetan, tesi bat nola idatzi behar den ikasten dihardute. "Masterra bukatzen dutenean tesia egin behar dute euren herrialdean, eta tesia ez dira edonola idazten", esan digu Friendship programako koordinatzaile Susana Arresek.

## Herriko ikasleekin

Arratsaldeetan bestelako ekintzak egiteko aukera izaten dute: unibertsitate bisitan datozenen hitzaldiak entzun edo Friendship programako lagunekin geratu. "Euren artean elkartzen dira, eta aste bukaerako planak egiten dituzte. Gainera, aurretik bigarren aldiz, herriko ikastetxeetako ikasleekin ekintzak egiten dihardute", dio Arresek.

## BEÑAT ETXABARRI ETA LUISANA AIZPRUA | MASTERREKO IKASLEAK

"Oñatiarrak itxiak zirela esan ziguten, baina ondo hartu gaituzte, bai institutuan eta baita herrian"

Beñat Etxebarri Lizarrakoa da eta Luisana Aizprua Ekuadorkoa. Oñatin elkar ezagutu dute. Antia jauregian. Masterreko ikasleak dira.

### Zer moduz Oñatin?

Beñat Etxebarria: Oso gustura. Iaz ezagutu nuen unibertsitatea eta hemengo masterra, eta ez nuen birritan pentsatu.

Luisana Aizprua: Oso ondo. Beldur apur bat banuen, baina, egia esan, oso ondo hartu gaituzte, bai institutuan eta baita herriko gazteek ere.



Beñat Etxebarria eta Luisana Aizprua. | MIREIA BIKUÑA

**Antia jauregian bizi zarete elkarrekin. Erraza da ezagutu berri dituzuen lagunekin bizi izatea?**

B.E: Aberasgarria da. Egunerokotasunean ikusten

dugu ohitura eta ikuspuntu ezberdinak ditugula.

**Ondo integratu zarete?**

L.A: Bai. Askok lagundu digute. Ni beldurtuta nengoen, aurretik masterra egiten

egondako lagun batek esan zidalako nahiko itxiak zirela oñatiarrak, baina ez da horrela izan. Ondo integratu gara.

**Zeren falta sumatu duzue?**

L.A: Familia, lagunak, lan-kideak...

B.E: Ni Lizarrakoa naiz, eta familia gertuago daukat. Dena den, masterra egiten dudun artean Antian egongo naiz.

**Nola baloratzen duzu Friendship programa?**

B.E: Kanpotik gatozen ikasleak herrian integratzen laguntzeko beharreak dela uste dut. Orain arte ekintza asko egin ditugu.

L.A: Niretzat oso inportantea dira hemen egindako lagunak. Aberasgarria.

## Mendiko aseguruaren tramitazioa

M.B. | OÑATI

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak 2012rako mendiko aseguruaren tramitazioak hasiko ditu asteon. Hain justu ere, hilaren 9an, 10ean, 15ean eta 16an egongo dira Aloñaren egoitzan, 19:00etatik 21:00etara. Egun horietan, aseguru berriak egin, bajak eman eta kontsultak eta aldaketak egiteko aukera egongo da. Azken horiek mezu elektronikoko bidez ere egin daitezke, baina ez telefonoz.

Azaroko bigarren hamabostaldian kuota banketxetik pasako dute eta abenduan tramitatuko dute lizentzia.

## OHARRAK

### DEIALDIA

1967ko kintoek afaria egingo dute azaroaren 12an Soraluze hotelean. 19:00etan elkartuko dira plazan, eta, poteoa egin ondoren, afaltzera joango dira elkarrekin. Interesatuak azaroaren 11 baino lehen eman behar dute izena. 35 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutzako 3035 0005 35 0051045540 zenbakian.

### IKASTAROA

Gurutze Gorriak lehen laguntzaren gaineko ikastaroa egingo du azaroan 7tik eta 29ra, astelehenetik egubakoitzera. Interesatuak 619 00 35 00 telefonoan eman dezakete izena edo bestela mezua bidali [alto-deba@cruzroja.es](mailto:alto-deba@cruzroja.es) helbidera.

## Amaiur koalizioarendako posta bidezko botoa


Amaiur koalizioak azaroaren 20ko hauteskundeetarako posta bidezko botoa eman ahal izateko egunak zehaztu ditu: gaur, azaroak 4, eta hilaren 8an eta 10ean bete ahal izango dira inprimakiak kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara. Gainerako egunetan inprimakiak Arrano tabernan jaso eta bete ahal izango dira.

## Xake txapelketarako izena emateko epea zabalik gaztelekuan

Hilaren 19an jokatu dute XVII. xake txapelketa gaztelekuan. Izena emateko epea zabalik dute: 943 71 82 57 telefonoan edo [gazteinformazioa@oinati.net](mailto:gazteinformazioa@oinati.net) helbidean. Era azkarrean jokatu dute, suitzar erara eta sei itzulitara. Guztira, 1.035 euro banatu dituzte saritan



## ARETXABALETA



Goio Arrieta eguenean egindako ekitaldiko momentu batean. | M.A.

Goio Arrieta | Bakarrizketa-egilea

## "Etenaldia egin eta atzera begiratzea gomendatzen dut"

'Sustraiak han dituenak' ikuskizuna eskaintzen dabil; hurrengo saioak hilaren 10ean eta 23an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

*Harri irratixe* ikuskizunarekin hasi zen bakarrizketak egiten eta orain bigarren zatiarekin dator Goio Arrieta (Eskoriatza, 1961). Eguenean eskaini zuen Arkupen, eta beste bi saio egingo ditu, hilaren 10ean eta 23an (19:30).

**Sustraiak han dituenak da ikuskizunaren izena, sustraiak non?**

Atzera begiratu bat da saioa; oso bizkor bizi gara egun eta etenalditxo egitea komeni izaten dela uste dut. Aurrera begiratu beharra dago, baina nondik gatozen ahaztu barik, hau da, norberaren sustraiak ahaztu barik.

Sustraiak jatorria adierazten dute, baina era berean, uneoro gabiltza egiten sustrai horiek: koadrilan, lantokian...

**lazko Harri irratixe saioaren bigarren zatia da?**

Bai, lehenengo hura egin barik hau ez litzatekeelako izango.

**Eta zer daukate berdina eta zer ezberdina bi ikuskizunek?**

Ikuslearendako oso antzekoak dira, egitura berdintsua dutelako: musika, bideoa eta bakarrizketa umorea erabilia. Baina gaiak oso diferenteak dira. Lehenengoan neure gustuko musika erakutsi nuen, eta oraingoan, ideiak nituen

**"Mestizajea eta umorea landu ditut, musika horien zerbitzura jarrita"**

buruan eta horien zerbitzura erabili dut musika.

**Zein gai landu duzu?**

Hiru daude: lehenengo zatian, mestizajea; bigarrean, umorea; eta hirugarrena omenaldiz beteta dago. Baina ez dut pista gehiago eman gura, garrantzitsua delako ezustean hartzea ikuslea.

**Eguenean aurkeztu zenuen herrian; gustura geratu zinen?**

Bai, oso gustura; ez nengoen neure onenean eta oso pozik geratu nintzen. Antzuolan egin nuen aurkezpena urrian, eta hainbat kontu hobetzeko balio izan dit orain.

**Eta zeinendako da bakarrizketa?**

Edonorendako, entretenitzea beste helbururik ez duelako. Hala ere, gaiak oso landuak daude. Hori bai, ikusle bakoitzak era ezberdinean jasoko ditu gertatutako bideoak eta esandakoak.

**Mezuren bat bidali gura duzu, ala?**

Mezua? Norberaren bizitzan etenaldia egiteko proposamena egiten diet ikusleei, besterik ez. Sasoi bateko bizimodua eta oraingoa zenbat aldatu den hausnartzen dut, eta horretarako barruko kontu asko atera ditut. Gogorra ere izan da egia esan, eta eguenean, esaterako, asko hunkitu nintzen une batzuetan.

**Halako ikuskizun bat moldatzeko ideiak nondik jasotzen dituzu?**

Musikazalea eta zinemasalea naiz; bideo klipen jarraitzaile amorratua, istorioak musikarekin kontatzen dituztelako. Eta horietatik jasotzen ditut ideia asko.

**laz hasi zinen bakarrizketak egiten eta dagoeneko bigarrena etorri da; hortik jotzeko asmoa duzu?**

Antzerki mundua betidanik izan dut gustuko; urtean birritan, esaterako, Madrilera joaten naiz antzerkiak ikustera. Eta egiteko ilusio hori ere beti izan dut. Orain arte Aratusteetan ase izan dut gose hori, baina neure kabuz lanean hastea pentsatu dut, taldean lan egitea zailagoa da eta. **Bakarrizketa-egilea, showmana... zer zarela esango zenuke?**

Etxeko pailazoa naizela esan izan dut. Okerrera hartzen da pailazo berba, baina nik buelta eman gura diot. Etxe bakoitzean pailazo bat izatea komeni dela uste dut, gainera.

## Kiroldegiaren berri emango dute bihar, Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Kiroldegi berria urtarrilean zabalduko dutela iragarri du Udalak. Horren guztiaren berri eman eta herritarren galderak erantzuteko hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, Arkupen (19:00). Eta zapatuan, hilak 12, herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko saioa izango da (11:00-13:00), hau ere Arkupen.

Bestalde, kiroldegiaren izena aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Egubakoitza artean eman daitezke izenak Arkupen edo udaletxean. Saria, 50 euroko bonoa M5 dendarako.

## ESKORIATZA

## Argazkiak aukeratzeko boto ematea zabalik dago

Bost aukeratuko dituzte postalak egiteko

M.A. | ESKORIATZA

*Eskoriatzako txokoak* izeneko lehiaketara aurkeztutako argazkiak Udalaren webgunean daude ikusteko. Ikusi bakarrik ez, gustukoenak aukeratzeko ere bai. Hilaren 20a artean bozkatu ahal izango dute herritarrek.

Udalak herriko bost postal argitaratu gura ditu, hainbat dendatan salgai jartzeko, eta postaletako irudiak aukeratzeko argazki lehiaketa deitu zuen. Baita argazki mordoia jaso ere. Eskoriatzako altxorak ageri dira argazki gehienetan: Atxo-

rrotz, Apotzagako hilerria, San Pedro parrokia...

**Bakoitzak bost boto**

Argazkiok, 58 guztira, Udalaren webgunean daude eta gustukoenak aukera ditzakete orain herritarrek. Bakoitzak bost boto eman ahal izango ditu. Horretarako honako datuak eman beharko dira: izen-abizenak, telefono zenbakia eta posta elektronikoa.

Bozketan parte hartu duten guztien artean 50 euroko saria zozketatuko dute.

## 'Hartu hitza!' prozesuko bilera bi daude astean: bihar, Garapen Jasangarria eta etzi, Hirigintza

Eskoriatzako Udalak antolatutako *Hartu hitza!* parte hartze prozesua jarri zuten abian joan den astean, eta oraingoan jarraituko dute bilerekin. Bihar, martitzena, Garapen Jasangarriaren gainean jardungo duen taldea elkartuko da, Ibarraundi museoa (18:00), eta etzi, eguaztena, Hirigintza arloko kontuak eztabaidatuko dituzte kultur etxean (19:00).

## Zahartzaroko depresio eta antsietateaz jardungo dute eguenean hasi eta hilaren 18a bitartean

Zahartzaroko depresio eta antsietateak eragiten dituen desoreken gaineko ikastaroa egingo dute eguenean hasi eta azaroaren 18a artean, Ibarraundin. Eva Gartzia familia-hezitzailea izango dute gidari, eta Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak lagundutako bost saio dira. Bereziki gerontologian lan egiten duten eta pertsona nagusien zaintzaileei gomendatu diete.

## Luis Ezeiza herri eskolako etxebizitzarako eskariak aurkezteko epea bihar, martitzena, bukatuko da

Luis Ezeiza herri eskolan dagoen Udalaren jabetzako etxebizitza esleitu gura dute. Eskariak hartzeko epea bihar, azaroak 8, bukatuko da eta udaletxera eroan behar dira.

Hainbat baldintza jarri ditu Udalak, tartean gutxienez urtebetez Eskoriatzan erroldatuta egotea. Argibide guztiak Udalaren webgunean daude [www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net).

## OHARRAK

### ARIZMENDIARRIETAREN GAINEKO MAHAI-INGURUA

Kooperatiben sorkuntzan zeresan handia izan zuen On Jose Maria Arizmendiarrietaren gaineko mahai-ingurua dago gaur, hilak 7, Arkupen (19:00).

### MURRUKIXOREN DEIA

Murrukixo MEak jakinarazi du federatze kontuetan aldaketak egiteko epea zabalik dagoela hilaren 23a arte. Martitzenetan (19:00-20:00) egoitzan (943 79 93 74) edo [murrukixo@euskalerrria.org](mailto:murrukixo@euskalerrria.org) helbidean.

### GURASOENDAKO DEIA

Haurren hazkuntzaren gaineko zalantzak eta gogoetak trukatzeko guraso elkarte sortu gura dute; bilera, azaroaren 13an.

Bestalde, haurrendako dantza ikastaroa egingo dute Zainduzen (10:30-12:30): azaroak 12, abenduak 10 eta urtarrilak 14. Izena emateko azken eguna gaur da. Bataren zein bestearen argibideak jasotzeko: 650 93 96 93 (goizez) edo [alkurrena@gmail.com](mailto:alkurrena@gmail.com).

### 1961EAN JAIOTAKOAK ERRIOXARA, AZAROAN

50. urteurrena behar bezala ospatzeko asmoarekin Errioxara egingo dute irteera 1961ean jaiotakoek, azaroaren 19an. Hona egitaraua: Toloño mendira igo; Dinastia Vivanco upategira eta ardoaren museora bisita; eta bazkaria. Izena emateko Orly, Gurea edo Eguzki tabernetara jo (50 euro); azken eguna, azaroaren 10a.

## Emakumearen aurkako indarkeria berbagai azaroan

Ikastaroak, berbaldia, film emanaldia eta antzezlanak daude Berdintasun Sailak antolatuta

M.A. | ARETXABALETA

Azaroaren 25ean Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontra Nazioarteko Eguna dela gogoan hainbat ekitaldi antolatu ditu Berdintasun Sailak, horren gainean hausnarketa bultzatzeko.

*Pertsona guztiok edozer egiteko gaitasuna dugu* leloarekin ikastaro bi antolatu ditu, etxeko ardurak elkarren artean partekatzea bultzatzeko. Hona: brikolajea (iturrintza, elektrizitatea...) eta etxea eramaten ikasteko formazioa (sukaldaritza, garbiketa, diru kon-

tuak...). Izena emateko epea gaur bukatuko da, Arkupen.

### Nagore Laffage gogoan

Bestalde, hilaren 21ean, astelehena, *Amores y desamores* antzezlan eskainiko dute Las Torpedolevel-Ireki teatroak. Hilaren 22an, *Gizonezkoak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean* berbaldia izango da Gizonduz eta Emakunderen eskutik. Eta hilaren 24an, Iruñean eraildako Nagore Laffage gaztearen gaineko *Nagore* filma eskainiko dute.





lazgo bolo txapelketako jardunaldi bat Elgetako bolatokian. | AMAIA TXINTXURRETA

**ELGETA**

## Azaroaren 19an jokatu dute Elgetan Euskadiko hiru txirlo txapelketako saioa

Domekarako, azaroak 13, argazki lehiaketa antolatu dute Turismo eta Kultura batzordeek; bina argazki egin beharko dituzte parte-hartzaileek

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Abian da Euskadiko XXII. hiru txirlo txapelketa. Parte-hartzaileek zapatuan jokatu zuten lehenengo jardunaldia Elgoibarko San Pedron. Azaroaren 26ra arte ez ditugu txapelketako irabazleak ezagutuko egun horretan jakatuko baita Markinako Barinaga bolatokian laugarren eta azken jardunaldia. Bitartean, beste bi saio egingo dituzte bolariak, tartean azaroaren 19an Elgetako bolatokian egingo dutena.

Aurtengoan ere Elgetak ordezkariak du txapelketa horretan. Horrela jakinarazi du Sebastian Arantzabal bolariak. Beraz, jardunaldietako bat etxean hartzea gain txapelketarako lehian izango ditugu herritarrak. Azaroaren 19an Elgetako bolatokian jakatuko den saioa 17:00etan hasiko da.

**Eskolako gaztaina-erre jana**

Aste bukaera berean Maala guraso elkarteak urteroko gaztaina-erre jana egingo du. Hala, Herri eskolako neska-mutikoez bezperan, azaroaren 18an egingo dute gaztaina-erre jana.

Ikasle eta irakasleak 15:00etan irtingo dira eskolatik. Herriko plazara egingo dute gaztainak jasotzeko paperezko kukurutxo eskuan dutela. Kantu sorta eskainiko dute, eta jarraian ilaran ipiniko dira guraso elkarteak kideek prestatutako gaztainak jasotzeko eta jateko. Guraso guztiak daude ekitaldi horretan parte hartzera deitua.

**Argazki lehiaketa, domekan**

Turismo eta Kultura batzordeetatik, berriz, argazki lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa hori domekan honetan, azaroaren

13an, egingo dute. Parte-hartze librea izango du eta, iaz moduan, antolatzaileek gai bat proposatuko dute. Parte-hartzaileek bina argazki aurkeztu beharko dituzte, eta epaimahai batek lan onenak aukeratu dituzte bazkalordua baino lehen.

Iaz egindako ElgetaKlik ize-neko lehiaketan 15 lagunek hartu zuten parte. *Azkonabita* ize-neko argazkiarekin Koldo Izagirrek jaso zuen lehenengo saria. Bigarren saria Eneritz Larreak eraman zuen eta hirugarrena, berriz, Maite Mandalunizek. Nerea Villaren *Ostoartean* argazkiak aipamen berezia jaso zuen.

Argazki lehiaketarekin batera trikitilariak ibiliko dira aurtun kalez kale, eta herriko ostalariek pintxo lehiaketara aurkeztutako pintxoak eskainiko dituzte euro baten.

**ARAMAIO**

## Zuiako koadrilako orri markagailu lehiaketa abian da, hilaren 18ra arte

Aurtun ere lau maila egongo dira; liburutegian edo udaletxean aurkeztu behar dira lanak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Zuiako koadrilak seigarren orri markagailu lehiaketa antolatu du, koadrilako udalen eta Arabako Aldundiaren laguntzaz. Aurtun ere, lau maila: 2 eta 10 urte artekoak, 11 eta 14 urte artekoak, 15 eta 17 urte bitartekoak eta 18 urtetik gorakoak.

Orri markagailuak entregatzeko azken eguna azaroaren 18a da eta Aramaioko haur, gazte zein helduek liburutegian edo udaletxean utzi beharko dituzte. Hiru sari egongo dira maila bakoitzeko: lehen saria 150 eurokoa izango da, bigarrena 100 eurokoa eta hirugarrena, azkenik, 60 eurokoa. Epaimahaia Lierni Altuna Aramaioko alkateorde eta Zuiako koadrilako

presidentek izendatuko du eta abenduaren 16an jakinaraziko dira irabazleak, Zuiako koadrilako webgunean.

**Hiru lan bakoitzak, gehienez**

Gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. Folio edo kartulinar aurkeztu behar dira, alde batetik bakarrik apainduta, eta honako neurriarekin: 4,5x21 zentimetro, oinarri baten itsatsi gabe. Ez da bestelako neurririk onartuko.

Aurrez argitaratu eta sari gabekoak izan behar dira eta ez dira onartuko irudi, marrazki edo pertsonaia eza-gunak dituzten lanak. Argibide gehiagorako, deitu Murgiako udaletxera (945 430 167).



Azaroaren 18ra arte entrega daitezke orri markagailuak. | GOIENA

**LEINTZ GATZAGA**

## Zerga eta tasa gehienak %3 igoko dituzte 2012an

Zaborra da gutxien egingo duena gora; mankomunitateak proposatu du %2,8 igotzea

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Datorren urteko Udal zerga eta tasek zenbateko igoera izango duten erabaki du udalbatzak egunotan. Gehienak %3 igoko dituzte; zaborra, %2,8; eta tasa batzuek ez dute inolako igoerarik izango.

%3 igoko dituzten zergen artean daude: ondasun higiezin gainera; jardura ekonomiko gainera; etxeko obra txikiei dagokiena; eta ura. Ibilgailuen gainera zergari dagokionez ibilgailu txikien zergak ez igotzea erabaki dute azken urteotan legez, eta potentzia handikoena %3 igoko dute. Bestalde, pilotalekuaren erabileragatik ordaindu beharreko tasa eta gatz museoko sarrera ez dituzte igoko. Eta zaborraren tasa %2,8 igotzea proposatu du mankomunitateak.

**Ordezkariek izendatuta**

Mankomunitatean sortu dituzten hiru batzordetara joateko ordezkariak ere izendatu zituzten urrian egindako osoko bilkuran: Kontu, Ogasun eta Langile gaietarako batzordera alkate ardurak dituen Mikel Gonzalez joango da; Ingurumen Batzordera, Juan Luis Zabala; eta Garapen Ekonomiko eta Turismo Batzordera, Iñaki Agirreurreta (ordezkoa, Montse Valerio).

**Ura ordaintzeko epea**

Bestalde, zabalik dago aurtengo hirugarren hiruhilabeteari dagokion ur eta estolderia tasa ordaintzeko epea. Ordainagiria helbideratu barik dutenek abenduaren 23a bitartean izango dute udaletxera jo eta ordaintzeko epea.

**ANTZUOLA**

## Auzolanean etxe aurreko elurra kentzeko deia

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den egunean elurteei aurre egiteko planaren inguruko bilerak egin ziren udaletxean atariek arduradunekin. Guztira, 66 ordezkari batu ziren bileratan eta Udaleko ordezkariak dei egin zuten elurra egiten duenean auzolanean garbi dezatela atari bakoitzeko bizilagunek atari aurrea. Horretarako materiala eskuratu behar du Udalak eta jakin nahi dute ea zenbat atari dauden horretarako prest. Auzolan horretarako izena eman beharko da uda-

letxean; azaroaren 11, egubakoitzan, da azken eguna.

Elurteetarako Udalak duen emergentzia planean garbitzeko lehentasuna ematen zaie eraikin publikoei (Torresoroa, udaletxea, eskola...) eta herri barruko bideari. Ondoren garbitzen dira gainontzeko auzoak.

**Lapurretak**

Bestalde, joan den astelehenean martitzenerako gauean ibili ziren lapurrak herrian, eta eskolan 25 ordenagailu lapurtu zituzten.

Herri eskolako zuzendari Pantxike Arinek azaldu duenez, palanka bat erabili atzeko aldean dagoen sarrera indarrez ireki ostean sartu ziren. Lehen solairutik diru apur bat eta dokumentu batzuk eraman zituzten. Seigarren mailako gelatik 25 ordenagailu eta proiektore bat eraman zituzten. Ikasleen sei motxila ere lapurtu zituzten, baita informatika gelan zegoen pantaila bat ere.

Mujika harategian pertsiana apurtuta sartu ziren eta 400-500 euro inguru lapurtu zituzten.



## DEBAGOIENA EZAGUTZEN



**Gure bailaran dauden eliza eta eraikinetan asko dira XVIII. mendean eraikitakoak, argazkian ageri dena, kasu. Debagoieneko zein herritan dago eliza hau eta nola du izena?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

**JAKIÖN**

www.jakion.es

Jakionek emandako  
**Produktu sorta\***

\* 50 eurotan baloratutako sorta.

PARTE HARTZEKO

Telefonoz: 943 25 05 05

e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

SMS bidez. Bidali KLUBA ERANTZUNA

[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

## 2 SARRERA

'PLECS' antzerki ikuskizuna

Amaia antzokian, azaroaren 13an. 20:00etan.

Bidali KLUBA SARRERAK

[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



**Topakide txartelarekin parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora.**



## 2011n atera etekina txartelari

HOTELA \*\*\* JATETXEA  
**AZKOAGA**  
E N E A

**AZKOAGA ENEA HOTELA-JATETXEA**

Eskoriatza, 943 71 45 66

■ %8 deskontua asteburuko egonaldietan.

Ohe bikoitz eta egongeladuna hartuz gero, botila bat txakolin opari (Mendraka).

■ %10 deskontua jatetxeko kartan.

**Barceló**  
BIDAIK

**BARCELÓ BIDAIK**

Arrasate, 943 79 70 11/ Bergara, 943 76 08 43

■ 1.000 eurotik gorako erosketekin

"B Plana" OPARI

(kontratatuaren arabera: asteburuko egonaldia, irteera gastronomikoak, ongizate txartelak...)

**Esko Sport**

**ESKO SPORT KIROL DENDA**

Eskoriatza, 943 71 52 96

■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

ETA HAUETAN ERE BAI

REGIO

gahir fisioterapia osteopatia

CLINICA DENTAL BERGARA

GAES Centros Auditivos Entumen zentruak

MULTIÓPTICAS lehen zerbitzu optikoetan

LiLURBA EDERTZE INSTITUTUA

Autos RENAULT

AVARIVM

AVIA

TXIKI ZOO TXAKURRAREN BOUTIQUEA ETA ILE APAINDEGIA

iKER SUKALDEAK

TXURI-URDIN Donostia

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

Urteko kuota: 48 €.

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!





# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Uraren gaintetik baloia hobeto menderatu zuenak irabazi zuen Oñatiko derbia

Aitor Perezek egin zuen UDaren gola 72. minutuan area kanpotik egindako jaurtiketarekin

EMAITZA

ALOÑA MENDI

0-1

ARETXABALETA

eskuarekin jo arren, baloia ihes egin zion. Jokaldi hark erabaki zuen lehia, eta horregatik irabazi zituen hiru puntuak Aretxabaletak. Dena den, zelaian ikusitako joko eskasa, eta, batez ere, lehen zatian Aloñak egindako lanagarentik, emaitza justuena berdinketa litzateke.

### Lehenean Aloña hobeto

Euriak baldintzatu zuen goitik behera atzoko derbia. Dena den, zaleak ez ziren kokildu eta lagun dezente batu zen harmailetan: oñatiarrak batzuk, aretxabaletarrak besteak.

Ez zuten ikuskizun polita ikusi, baina bi taldeen ahalegina ikaragarria izan zen. Baloia lurretik bidaltzea ezinezkoa zen: moztuta geratzen zen futbol zelaian edozein lekutan. Hori horrela, baloi luzeekin jokatu zuten bi taldeek. Aretxabaletak lehen gol aukera area txikian solte geratu zen baloi batekin sortu zuen. Aldiz, Aloñaren garbiena, Iker Olalderen falta jaurtiketa izan zen laugarren minutuan. Biak ala biak, baloia geldu egonda.

Bi taldeek bina gol aukera izan zituzten, baina Aloñak menderatu zuen hobeto zelaia. Minutu asko eman zituen aretxabaletarren area inguruan, eta noiz edo noiz, hiru edo lau pase on egiten zituzten jarraian. Atsedenera gol barik heldu ziren.



UDako Igartua eta Aloñako Urkia euritan, baloia atzean utzita. | JULIO CALLEJA

### Bigarrenen gola

Bigarren zatian ez ziren aldatu ez partiduaren itxura ezta zelaiaren egoera, baina bai markagailua. 52. minutuan Aitor Perezek gola egin zuen. UDak zailena egina zuen. Aloñari zegokion berdinketa lortzea.

Azkargortaren mutilak ez ziren kokildu eta aurrera egin zuten. Biziki protestatu zuten Unai Bikuña, Aloñako aurrelaria area barruan erori zenean. 72. minutua zen eta penalti garbia egin zioten oñatiarrari, baina epaileak ez zuen ezer adierazi.

Zazpi minutu geroago, jokalaririk berak, beste aukera bat izan zuen. Atzelaria atzean utzi eta atezainaren aurrean bakarrik zegoenean, kanpora bidali zuen baloia.

81. minutuan berdintzeko aukera izan zuten oñatiarrak, baina Asier Ugarteren jaurtiketa atezainak geratu zuen.

UDak ere izan zuen bigarrena egiteko modua. Canasek baloia bota, eta Olalde desbideratu zuen ateko marraren gainean.

ren erruz, asko bigundu zen minutuek aurrera egin ahala. Hori horrela, bi taldeek baloi luzeekin antolatu zuten jokia.

Lehen zatian, Aurrerak sortu zituen aukera gehiago eta garbiagoak, baina ez zuten asmatu azken metroetan.

Bigarrenen Mondrak estutu egin zuen, eta izandako aukera garbienean, gola egin zuen. Luzapenean Aurrerak ezin izan zuen ezer egin.

Etiket kanpo batutako puntuekin, 10 dituzte arrasatearrek sailkapenean, eta 13. lekuan daude. Aste bukaeran, zapatuan, Mojategin jokatu dute Pasaia-aren kontra.



JUANAN CRUZ  
UDAKO ENTRENATZAILEA

"Zelaia egoera txarrean zegoen, eta bagenekien lehen gola egiten zuenak, lehia irabaziko zuela. Baloi luzeekin jokatu dugu, bigarren aldaratzearen zain. Lehen zatian bina gol aukera izan ditugu, eta guk bigarrenen izandako garbiena aprobeztatu dugu. Aloñak oso ondo jokatu du, baina sari barik geratu da.

Pena da harmailetan egon diren ikusleek ezin izan dutela joko ona ikusi, baina putzu asko zeuden futbol zelaian, eta baloia moztuta geratzen zen leku guztietan. Joko bako derbia izan da. Aspertu egingo ziren".



ANDONI AZKARGORTA  
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Eguraldi txarra, emaitza txarra, arratsalde txarra. Etxean geratzeko moduko eguna. Sari barik geratu gara. Akaso, justuena berdinketa litzateke. Zelaian zegoen ura ikusita, lehen gola egitea garrantzitsua zen hiru puntuak batzeko. Baina ez dugu asmatu. Bestalde, halako partidu parekatuetan, premia gehien duen taldea sari barik geratzen da. Kasu honetan, guk puntuak behar ditugu zulotik irteteko. Hori lortzeko egingo dugu lan. Asteazkenean zehar ondo egiten dugu lan, baina partiduetan ez dugu emaitzarik ikusten. Zulotik irtengo gara".

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Azkoagainen pilotuta zegoen uraren gainean baloia hobekien menderatu zuenak irabazi zuen Oñati jokatuako derbia. Aretxabaletak jokalaria Aitor Perezek 52. minutuan jakin izan zuen baloia atean sartzen. Area kanpotik jaurtiketa gogorra egin zuen, eta Aginagalde atezainak

OHOREZKO ERREGIONALA

## Mondrak 90. minutuan egin zuen gola: kontraerasoan Lander Andresek atezaina menderatu zuen

M.B. | ARRASATE

Etiket kanpoko lehen puntuak batu zituen Mondrak Ondarroako Aurreraren etxean. 0-1 irabazi zuen Unai Iglesiasen taldeak -Iban Rodriguez entrenatzailea bajan dago ebakuntza batengatik-, 90. minutuan, kontraerasoan egindako golari esker. Lander Andresek atezainaren gainetik loratu zuen baloia garaipenaren gola eginez.

"Egia esan, behar-beharrezko puntuak batu ditugu. Mojategin itxura nahiko ona eman izan dugu, baina etiketik kanpo ez gabiltza ondo. Arnasa hartzeko puntuak dira", esan digu Unai Iglesiasek.

### Euriarekin, zelaia bigundu

Partidu parekatua jokatu zuten Aurrerak eta Mondrak. Belar naturaleko zelaia zen, eta euria-

OHOREZKO ERREGIONALA

## Luzapenean jaso zuen Bergarak berdinketa, Oiartzunen

M.B. | BERGARA

Burumakur itzuli zen Bergara Oiartzundik. Neka Galanen mutilak 1-3 aurreratu ziren 70. minuturako, baina ezin izan zuten irabazi. Epaileak zazpi minutu luzatu zuen partidua, eta tarte horretan berdindu zuen Oiartzunek. "Tonto aurpegiarekin geratu gara. Luzapena gehiegizkoa izan dela uste dut, baina ez da aitzakia. Eskura izan dugu garaipena, eta ihes egin digu", esan zigun Neka Galan entrenatzaileak.

### Bergara bi gol aurretik

Oiartzun aurreratu zen bosgarren minutuan penaltiz. Bada, 20.ean buruz berdinketa egin zuen Aitor Oregik.

Bigarren zatian aurreratu egin ziren mahoneroak Jokin Baltzategik areaz kanpo egindako jaurtiketarekin. Hirugarrena ere, Baltzategik egin zuen penaltiz, 70. minutuan.

Emaitza ikusita Oiartzunek aurrelariak atera zituen zelaira, eta berdinketa egiteko gai izan zen.





Mondrako eta Oiartzungo jokalariek baloia menderatu guran Mojategin, atzo. | JULIO CALLEJA

## EMAKUMEEN 2. MAILA

## Jokalari bat gehiagorekin geratu zenean, atzean sartu eta galdu egin zuen Mondrak

Oiartzun liderraren bisita izan zuten atzo Mojategi zelaietan

## EMAITZA

MONDRA

1-2

OIARTZUN

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

"Edozeini irabazteko gai gara, baina partidu osoan %100 eman behar dugu. Bestela, akabo". Horiek dira Mondrako nesken entrenatzaile Jon Zuloagak atzoko partidu bukaeran esandako berbak. Arrasatearrek estu har-

tu zuten Oiartzun liderra, eta jokalaria bat gehiagorekin bukatu arren, galdu egin zuten.

**Jokalari bat gehiagorekin**

Mondra konturatu orduko Oiartzungo neskek aurreratu ziren markagailuan lehen zatiko lehen

minutuetan egindako golari esker. Arrasatearrek 37. minutuan berdinu zuten, Maitane Roak sartutako golarekin. Banakoarekin bikain jokatu zuen Mondrak atse-denera heldu arte. Bigarren zatia lehena bezala bukatu zen: Zuloagaren neskek agintzen futbol zelaiko lerro guztietan.

80. minutuan Oiartzungo jokalaria bat egotzi zuen epaileak. Erabakiak Mondrari eragin zion gehiago eta txarrerara: lerroak atzeratu eta Oiartzunen jokia eusten ahalegindu ziren. Berdinketa eskutan zutenean, bigarrena jaso zuten.

### Euskal Ligako Aretxabaletak bina berdindu zuen Ibarren

Sailkapenean aurrera egiteko beste urrats bat eman zuen UDAko gazteen taldeak. Bina berdindu zuen Peña Santurtziren kontra Ibarren. Dena den, puntu askoz gehiago behar dituzte: 13. lekuan daude zazpi punturekin.

### Arizmendiko neskek lehen lekua galdu dute Zarautzekin (3-0)

Emakumeen ligako bi talde indartsuenek jokatu zuten zapatuan Asti Txiki zelaietan: Zarautzek eta Arizmendik. Aretxabaletako neskek ez zuten aukerarik izan partidua irabazteko. Zarautzarrak hobeak izan ziren, eta lehen lekuan daude sailkapenean.

### Lehen Erregionaleko derbia Mondrak irabazi zuen (4-1)

Mondra B eta Aretxabaleta C taldeek Lehen Erregionaleko derbia jokatu zuten Mojategin zapatuan, eta arrasatearrek gailendu ziren, nahiko erraz (4-1). Eguraldiari aurre eginez, Mondrako mutilak hobeto moldatu ziren zelaira eta joko nahiko ona egin zuten.



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.



BERMEA  
2 URTE

1000 b/min  
6 Kg

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

ALF 1106 GARBIGAILUA

285 e ASPES



BERMEA  
2 URTE

1200 b/min  
6 Kg

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

3F-2612 GARBIGAILUA

315 e FAGOR



BERMEA  
2 URTE

1200 b/min  
7 Kg

A<sup>+++</sup> Sailkapen energetikoa

L-72750 GARBIGAILUA

385 e AEG



BERMEA  
2 URTE

1200 b/min  
8 Kg

A<sup>+++</sup> Sailkapen energetikoa

F-2812 GARBIGAILUA

430 e FAGOR



BERMEA  
2 URTE

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

2LF-013SX ONTZI-GARBIGAILUA

395 e FAGOR



BERMEA  
2 URTE

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X  
INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S

625 e edesa



BERMEA  
2 URTE

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

STA 1410 B/N LABEA ETA  
BITROZERAMIKA

360 e ASPES



BERMEA  
2 URTE

1440  
x  
545  
x  
600

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

ZEN-F211 HOZKAILUA

310 e edesa



BERMEA  
7 URTE

1850  
x  
600  
x  
600

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

FFJ-6725 HOZKAILUA

575 e FAGOR



BERMEA  
7 URTE

2000  
x  
600  
x  
600

A<sup>+</sup> Sailkapen energetikoa

FFK-6835X HOZKAILUA

675 e FAGOR

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabera energia aurreztea.

A<sup>+</sup> >>> 70%  
A >>> 45%  
B >> 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.





Xabi Igartua eta Gorka Alartzia aginduak ematen hirugarren laurdenean egindako hutsartean. | MIREIA BIKUÑA

EBA

## EBAko hirugarrenean kale egin zuen Aloña Mendik Cafes Aitonarekin

Puntu batera jarri zirenean (76-77), ez zuten asmatu Xabi Igartuaren mutilek

## EMAITZA

ALOÑA MENDI  
**77-85**

CAFES AITONA

## FITXA TEKNIKOA

**Aloña Mendi:** Iagoba (14), Ales (3), Mallabi (13), Mikel (9), Iñigo (3), Asier (19), Eneko, Iban, Beñat, Gorka (6), Ander, eta Jon (10).

**Cafes Aitona:** Castelruiz (8), Del Valle (17), Ascension (2), Aldalur (16), Aranburu (9), Fernandez, Arantzabal, Perez (9) eta Arzallus (10).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehen laurdena: 23-29. Bigarren laurdena: 41-51. Hirugarren laurdena: 56-64. Laugarren laurdena: 77-85.

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bi irakurketa egin daitezke zapatuan Aloña Mendik eta Cafes Aitonak jokaturako partidua ikusi ondoren: alde batetik, donostiarrek lehen zatian askoz hobeto jokatu zutelara, eta oñatiarrak mendean izan zituztela (44-60 eta eta 56-73); eta beste alde batetik, lehiak hiru edo lau minutu gehiago izan balitu, akaso, Aloñak partidua irabaziko lukeela. Bi irakurketa oso ezberdin, baina EBAko partidua laburtzeko balio dutenak.

Eta, zergatik ez zuten irabazi Aloñak, zailena egin ondoren? Bada, donostiarren abantaila puntu bakarrera murriztu zutenean (76-77), ez zirelako fin ibili. Lehia bukatzeko minutu eta erdi geratzen zen, eta ez zuten asmatu. Gamarrak hiruko jaurtiketa huts egin zuen, eta erasoan Cafes Aitonak *bi gehi bat* izan zuen

alde (biko jaurtiketa eta jaurtiketa libre). Hori horrela, 76-80 aurreratu ziren donostiarrek. Gainera, falta teknikoak adierazi zioten Aloñako entrenatzaileari. Cafes Aitonak bi jaurtiketa libre eta baloiaren jabetza izan zituen. Guztiak sartu zituen.

Azken unean, erabakigarrienean, zaleek asko estutu arren, Aloña Mendik ez zuen maila eman. Bai ordea Cafes Aitonak. Asier Arzallus pibota eta Iñigo del Valle antolatzailea dira taldeko izarrak, eta euren gain hartu zituzten azken uneko jokaldiak.

## Kanpoko jaurtiketan eskas

Hirugarren irakurketa bat ere badauka zapatuko partidua. Aloñak kanpoko jaurtiketa asko huts egin zituen: hiru puntuko 40 jaurtiketa egin zituzten, eta hamar bakarrik sartu; eta biko jaurtiketen portzentajea ere ez



MIREIA BIKUÑA

XABI IGARTUA  
ENTRENATZAILEA

"Irabazteko moduko partidua zen eta ez dugu asmatu"

Burumakur zegoen Xabi Igartua Cafes Aitonaren kontra galdu ostean.

**41 partidua jarraian irabazi ostean, gaur galdu.**

Triste nago. Irabazteko moduko partidua zen, baina minutu askotan galduta egon gara, eta markagailuan beti atzetik ibiltzea oso nekagarria da. Bukarera irabazteko aukerakin heldu gara, baina berandu izan da.

**Lehen zatian puntu asko egin dituzte donostiarrek.**

Defentsan motel ibili gara, eta euren saskiratzaile onak dituzte. Dena den, aukerak izan ditugu irabazteko, baina berandu hasi gara erreakzionatzen.

**Kanpoko jaurtiketarako portzentajeak nahiko eskasak izan dira.**

Asier oso ondo itxi dute erasoan, eta kanpoko jaurtiketekin ahalegindu arren, ez dugu asmatu.

zen ona izan: 39 jaurtiketatik 15 bakarrik.

"Zaleengatik, minduta eta triste" zeuden Aloñako kideak. Zubikoan 41 partidua jarraian irabazi dituzte, zapatu arte.

## EMAKUMEEN MAILA

## Liderraren kontra galdu Eskoriatzak

## EMAITZA

MURKIL

**58-56**

ESKORIATZA

M.B. | ESKORIATZA

Estu hartu zuten Eskoriatzako neskek Zarauzko Murkil liderra; eta, garaipena eskura izan arren, galdu egin zuten. "Zarauz-tarrak oso indartsuak eta garaiak dira. Irabazteko aukerak izan ditugu, baina lehen hiru laurdenetan akats asko egin ditugu. Inozo aurpegiarekin bukatu dugu", esan digu Inma Murillo entrenatzaileak.

## Azken jaurtiketa huts

Murkil Zarautz taldeak agindu zuen markagailuan lehen minututik. Erasoan azkar eta fin ibili ziren. Eskoriatzako neskek defentsa aldatu egin zuten bigarren eta hirugarren laurdenetan, eta liderrak ezin izan zuen abantaila handitu. Lehia laugarrenean erabaki zen.

Partidua bukatzeko hiru minutu falta zirela, hirukoa egin zuen Eskoriatzak eta puntu batera ipini zen. Zarautzek bi jaurtiketa libre izan zituen hurrengo jokaldian. Bakarra sartuta bi puntuz aurreratu zen. Zortzi segundu zituzten eskoriatzarrek azken jaurtiketa egiteko, baina ez zuten asmatu.

## GIPUZKOAKO SENIORRAK

## Berdintzeko jaurtiketak huts Bergarak

M.B. | BERGARA

Soraluze BKE saskibaloitzaileak galdu egin zuen atzo arratsaldean, Labegarrietan, Santo Tomas Lizeoaren kontra, 60-62. Baina, berdintzea egin eta luzapena jokatzeko aukera izan zuten: partidua bukatuta zegoela, bi jaurtiketa libre izan zituzten etxekoek berdintzeko. Biak huts egin zituzten.

## Jaurtiketa libreak kanpora

"Lehia guk galdu dugu, azken hiru minutuetan izan dugun makalaldiarekin", esan digu Jon Beistegi entrenatzaileak.

Bergararrek agindu zuten partiduan. Beti egon ziren aurretik markagailuan, eta gehienez, zazpi puntuko tartea izan zuten. Baina, ez zuten errenta mantentzen jakin izan, eta pikutara bidali zuten egindako lana laugarren tartean.

## LEHEN NAZIONALA

## Defentsan lan izugarria eginda MUK garaipen garrantzitsua lortu zuen

## EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**78-74**

SANTURTZI

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Mondragon Unibertsitateak Santurtziren aurka. Ez zen partidua erraza izan; etxekoek sailkapenaren goiko aldean dagoen taldea garaitzeko defentsan lan izugarria egin behar izan zuten.

Lehenengo laurdenean hasieran, MUKo jokalariek aurkariaren

erasoa blokeatzea lortu zuten, hala ere, une batzuetan galtzen joan ziren. Bigarren laurdenean, defentsa lanak alde batera utzi gabe, erasoan ere fin ibili ziren eta azken momentuan hirukoa sartu eta atsedendira markagailuan bi puntu aurretik joan ziren.

Hirugarren laurdenean oso orekatua izan zen, baina santurtziarrek punteria hobea izan zuten. Partiduaren azken hamar minutuetan, etxeko taldeak defentsa izugarria egin zuen eta markagailuan hamar puntuko alde lortu zuen. Bi minuturen faltan, kanpoko taldeak erreakzionatu zuen, baina etxekoek distantzia mantentzea lortu zuten.



MUKo jokalaria bi puntuko saskiratzea egiten. | ANDER MONEDERO



# BADATOR...



# Kantari

3. edizioa

***Azaroaren 12 eta 13an  
Aretxabaletan izango gara!  
Etorri zuen lagunak animatzera.***

**Aretxabaleta** eta  
**Eskoriatzako** partaideok,  
eman azken errepassoa  
abestiari eta koreografiari!

Abestien letrak eta koreografiaren bideoak  
<http://zugaz.com/blog/>

943 25 05 05

**goiena**<sup>“</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA



ANTXINTXIKA KROSA

# Dabid Gartzia nagusi aurten ere Soraluze-Bergara lasterketan

- ▶ Kristina Loeda eibartarra izan zen lehen emakumea
- ▶ 34 patinatzailek hartu zuen parte lehenengoz

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Euria goian behean zen zapatu arratsaldean, baina gustuko tokian aldaparik ez eta Soraluze Bergara lasterketa egiteko gertu agertu ziren korrikalariak zein patinatzaileak. Antxintxikak antolatutako Olatz Rementeria memorialean Iban Altube oñatiarra ere izan zuten gogoan eta haren emazte eta arrebak ere egin zuten korrika.

## Lasterketa bizkorra

Ezusteko gutxi izan zen lasterketan, eta ia zokor txapeldun Dabid Gartzia durangarra nagusitu zen. Oso gertutik jarraitu zioten Oier Ariznabarreta Durangoko lagunak eta Igor Esparza donostiarrak. Eguraldi narrasa izan arren oso bizkor hasi zuten lasterketa korrikalariak, eta bigarren kilometroarekin egin zuten ihes helmugan lehen postuetan sartu ziren hirurak. Txandaka ibili ziren tiraka eta Bergarara iristean Gartzia aurrera egin eta metro batzuen aldea atera zien beste biei (32:00). Bigarrena Ariznabarreta izan zen (32:07) eta hirugarrena Esparza (32:19).

**DATUA**

# 566

IZEN-EMATE

Sekula baino izenemate handiagoa izan da aurten, 566 guztira. 472 lagunek egin zuten korrika, eta patinatzaileak 34 izan ziren.

Antxintxika lasterketan lehenengoz parte hartu zuen Kristina Loeda eibartarra bikain ibili zen (38:36), "nahiz eta eguraldi beroa gurago izan korrika egiteko". Gizonezko taldetxo batean sartu hasieran eta gustura topatu zuen bere burua ezarritako erritmoarekin; hala, beste emakumezkoarekin ez zuela aurkari ikusita talde horrekin egin zuen lasterketa guztia. Bukaeran onartu zuen ez zela topera joan, baina eroso sentitu zela. Haren atzetik sartu ziren Estela Biain oñatiarra (40:42) eta Nerea Etxeberria azpeitiarra (41:04).

## Patinatzaileak lasai

Aurtengo berrikuntza patinatzaileen parte-hartzea izan da. 34 lagunek jardun zuten, hainbat Bergarako Hankalabanka taldekoak. Eguraldi kaskarraren ondorioz lehen kilometroak lasai egin zituzten, arriskuak ekiditeko, eta Osintxutik aurrera hartu zuten abiadura gehienek. Hala, helmugan Enrique Leiva gasteiztarra izan zen lehenengoa.

Eguraldi kaskarrak gurgildun aulkidunen parte-hartzea murriztu zuen eta hiru bakarrik izan ziren. Handbike modalitatean bakarra, Imanol Martinez, eta gurgildun aulkietan, Jose Antonio Iglesias eta Mikel Goikoetxea.

## Antolatzaileak pozik

Antxintxika taldeko kideak pozik ziren sekula baino korrikalari gehiagok eman zuelako izena: "Halako parte-hartzea duen lasterketa gutxi daude Gipuzkoan". Eta hartutako lan guztiaren ondoren ezusteko barik burutu zirelako lasterketa guztiak.



Markel Blanco arrasatearra eta Ion Arzubialde donostiarra Bergarako helmugara iristen; la



Enrique Leiva patinatzaile gasteiztarra helmugan. | JULIO CALLEJA

DABID GARTZIA | IRABAZLEA

## "Arin joan gara hasieratik eta erritmo aldaketa askoko lasterketa izan da"

Durangokoak bigarrenez irabazi zuen Antxintxika krosa. **Zelako lasterketa izan da?**

laz astiro irten ginenean, baina aurten nahiko arin eta segituan geratu gara hiru bakarrik. Erritmo aldaketa askokoa izan da.

### Zeuren zara tiraka?

Denok tiratu dugu. Azken kilometroetarako indarrak gordetzea gurago izaten dut nik, azkenetan erritmo gogorra ezartzeko.

**Iazko denbora hobetu duzu.**



Dabid Gartzia. | M.A.

Bai, nahiz eta ibilbidea apur bat aldatu duten. Minutu eta zertxobait gutxiago egin dut. Eguraldiak ez du lagundu baina hanke bai.

### Gustuko duzu lasterketa hau?

Bai, oso gustuko. Jende asko egoten da kalean animatzen

eta hori eskertzekoa da beti.

### Behobia gertatzera etorri zara?

Ez, aurten ez noa. Bilboko herri krosa egingo dute orduan, eta iaz irabazi egin nuenez hara joateko konpromisoa dut hartuta.

ARANTXA DE LA FUENTE  
BERGARA

"Lasterketa bizkorra izan da baina ondo bukatu dut. Nik gustura egiten dut korrika euriarekin, baina gogorra izan da; gainera, haizea ere izan dugu une batzuetan. Aurretik egindako denbora jaitsi dut eta oso gustura nago".

AITOR LETE  
BERGARA

"Eguraldiak ez du lagundu baina nik nahiago dut euria beroa baino. Hirugarren aldiz hartu dut parte, eta ia zokor denbora zertxobait hobetu dut. Behobiara joateko asmoa daukadanez hura gertatzeko lasterketa aproposa da".

MIREN AMASORRAIN  
ANTZUOLA

"Fenomeno egon da, nahiz eta giro txarra egin. Lehenengoz hartu dut parte; taldetxo bat korrika egiten hasi gara aurten eta oso ondo ibili gara. Abenduan, Zarautzen egingo den bikotekako krosera animatuko nuke jendea".






Augarren eta bosgarren postuan sartu ziren. | JULIO CALLEJA



Jose Antonio Iglesias helmugan. | JULIO CALLEJA



Patinatzaileak irteeran. | IRATI GOITIA



Estela Biain oñatiarra, emakumezkoetan bigarrena. | JULIO CALLEJA

**CRISTINA LOEDA | EMAKUMEZKOETAN LEHENA****"Ni ez nago ohituta euriarekin ibiltzera baina eroso egin dut lasterketa"**

Lehenengoz parte hartu eta irabazi egin zuen Eibarren bizi den Loedak.

**Zelan joan da lasterketa?**

Ondo. Poliki-poliki hasi naiz, berotan sartzeko. Gero taldetxo batekin elkartu naiz eta eroso nindoanez eurekin bukaeraino jarraitu dut.

**Eta zu zeu gustura ibili zara?**

Bai, oso gustura. Hori bai, eguraldiak ez digu batere lagundu, eta ni ez nago ohituta euriarekin ibiltzera, baina ondo joan da.



Kristina Loeda. | M.A.

**Behobiarra joateko asmorik baduzu?**

Ez. Gustuko dut aste bukaeratan korrikan egitea eta herri lasterketetan parte hartzea, baina aurtengo Behobia-Donostiara ez naiz joango.

**Eta datorren urtean berriro ikusiko zaitugu hemen?**

Eibarren bizi naiz orain eta datorren urtean ere errepikatuko dut ahal izanez gero behintzat. Ibilbidea asko gustatu zait, eta eroso sentitu naiz.

**LASTERKETAREN SAILKAPENA****GIZONEZKOAK**

1. Dabid Gartzia	32:00
2. Oier Ariznabarreta	32:07
3. Ibon Esparza	32:19
4. Markel Blanco	33:10
5. Ion Arzubialde	33:11
6. Antonio Merino	33:15
7. Jokin Redondo	33:26
8. Javier Galindo	33:47
9. Eduardo de Miguel	34:14
10. Andoni Agirre	34:21
11. Martin Berrizbeitia	34:29
12. Xabier Elkoro	34:36
13. Jose Antonio Ruiz	34:43
14. Ibon Iriondo	34:43
15. Arkaitz R. de Loizaga	34:58

**EMAKUMEZKOAK**

1. Kristina Loeda	38:36
2. Estela Biain	40:42
3. Nerea Etxeberria	41:04
4. Itziar Aldekoa	42:45
5. Ane Ziaran	42:53
6. Idoia Aranguren	44:33
7. Irati Sarriugarte	44:38
8. Ana Isabel Urmeneta	45:37
9. Nuria Molina	45:41
10. Rosa Agirre	46:16
11. Agurtzane Arriola	46:24
12. Esther Paguey	46:39
13. Eider Mugika	46:53
14. Leire Guenetxea	47:01
15. Lourdes San Martin	47:11

**PATINATZAILEAK**

1. Enrique Leiva	23:01
2. Nicolas Alonso	23:03
3. Enrique Martinez	23:22
4. Sergio Uriarte	24:12
5. Javier Jimenez	24:52

**AULKIAN (HANDBIKE)**

1. Imanol Martinez	28:00
--------------------	-------

**GURPILDUN AULKIAN**

1. Jose Antonio Iglesias	38:50
2. Mikel Goikoetxea	49:25

**MUTILEN KOADRILAK**

1. Los Mateos	1:46:18
2. Angiozar	2:05:32
3. LRT	2:07:42

**NESKEN KOADRILAK**

1. Lasterkariak	2:16:16
2. Anka Naparrak	2:33:08

**ESKUBALOIA****Eskura izan zuen garaipenak ihes egin zion Soraluze BKEri (29-30)**

M.A. | BERGARA

Partidu bizia eta emozioz beteak jokatu zuten atzo, Labegaraian, Soraluze BKEk eta Egia Katak. Eskura izan zuten garaipena Josetxo Muniategiren mutilek, baina, hainbat akats tarteko ezinean geratu ziren.

Partidua ez zuten batere ondo hasi; lehenengo minutuetan akats asko egin zituzten bergararrek eta zortzi gol atzetik jarri ziren segituan (3-11). Akats horiek zuzentzen saiatu zen entrenatzailea hainbat agindu emanda eta lehenengo zatia bukatzeko hiru minuturen faltan diferentzia murriztea lortu zuten (13-15).

Bigarren zatian gogotsu irten ziren, baita berdindu ere; par-

tidua, orduan, oso zabalik zegoen. Azken bost minutuak erabakigarriak izan ziren, baina Muniategiren mutilek arrisku asko hartu eta ezinean geratu ziren: "Bizkor jokatzera ohituta dago Egia eta guk ez diegu utzi. Hala ere, akatsak egin ditugu eta ez dugu jakin errematatzen", zioen entrenatzaileak.

Hala, azken asteotan etxean irabaztera ohituta zeuden bergararrei bolada ona moztu die donostiarrek, "eta kanpoan irabaztea dute erronka" orain.

**Ford Mugarrik berdindu**

Ford Mugarri talde arrasatearrak, ostera, berdindu egin zuen Romoren aurka zapatu arrasaldean (29-29).



Soraluze BKE taldeko jokalariek ezinean. | JULIO CALLEJA

**MENDIA****Bigarren geratu da Oihana Kortazar elgetarra Puig Campana mendian egindako kilometro bertikalean**

Zapatuan jokatu zuten Finestrat herriko Puig Campana mendian (Alacant) kilometro bertikal proba eta Kortazar elgetarra bigarrena izan zen emakumezkoetan (46:53), Laura Orgue kataluniarren atzetik (44:01). 1.000 metroko malda eta 3.500 metroko luzera gainditu behar izan zuten 370 parte-hartzailek.

Europako probarako puntuagarria zen Alacanten egindako proba eta sailkapen nagusian ere bigarren postuan geratu da Kortazar, Orgueren atzetik.



PALETA TXAPELKETA

JULIO CALLEJA

**Gurpildun aulkian ere, paletan**

Zapatu goizean Gipuzkoako Gurpil Aulkiko Gomazko Paleta Txapelketaren bigarren jardunaldiko partiduak jokatu zituzten Antzuolako pilotalekuan. Txapelketan parte hartzen duten hiru bikoteak izan ziren Antzuolan eta talde bakoitzak bi partidu jokatu zituen. Unamunok eta De Andak osatutako bikoteak bi partidu irabazi zituten eta hirugarrena, Peñak eta Lizasok irabazi zuten.



# Egiteko handia dugu; trebezien gainera jarrerak nabarmentzea

Zer egin esan behar, zergatik eta nola egin azaldu behar dugu gurasook

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Juan Amodia de la Rivak irakasleak formatzen ditu, eta zapatuan Euskal Herriko ikasleen gurasoen elkarteak, EHIGEk, Donostian egindako Hezkuntza Jarduera Onen Jardunaldian izan zen. Defendatzen du gurasook garrantzi handiko egitekoa dugula seme-alabek eskolan emaitza onak lor ditzaten. "Gurasoek aukera dute seme-alaben emaitzetan eragina izateko, eta, askotan, konbentzitu egin behar ditut horren inguruan", adierazi zuen Amodiak. "Egia da gizarteak, telebistak, irakasleek, gobernuek... eragin handia dutela, baina naturak guraso egin gaitu eta horrek beste faktore

guztien gainera pribilegio handiak ematen dizkigu".

Amodiaren esanetan, entzungor egin beharko genuke egin ezin ditugunak esaten dizkiguten guztietan. "Alderantzizko heziketa izan dugu urteetan, egin ahal ditugunak potentziatu behar egin ezin ditugunak nabarmendu dizkigute, eta apurto egin behar dugu hori", adierazi zuen.


## Zergatik eta nola

Seme-alabei gauzak zergatik eta nola egin behar dituzten esan behar diegula uste du Amodiak. "Zer egin behar duten errepikatzen diegu behin eta berriz: "Ikasi!", "jaso!", "entzun!"... baina ulertu

behar dugu gure seme-alabak ez direla automatik. Gauzak hobeto egingo dituzte zergatik egin behar dituzten eta nola egin behar dituzten azaltzen badiegu".

## Jarrerak nabarmendu

Euren irtenbide propioak topatzen dituzten belaunaldiak egin behar ditugula uste du Amodiak: "Eta ez geldirik egoteko edozein aitzakia bilatzen dituzten belaunaldiak". Dio gaitasunak ez direla erabakigarriak eta jarrerak nabarmentzen egin behar dugula ahalegina. "Konstantzia, lana, motibazioa... gutxieneko teknika batzuen laguntzarekin horiek dira ondo ikaste-ko tresna eraginkorrenak...".



Mutikoa eskolako etxeko lanak egiten. | ALAIN BACHELIER



Bikote gaztea musukatzen. | ZELLABY

## Gero eta nerabe gutxiago geratzen dira haurdun

Harreman sexualak dituen nerabe kopurua hazi egin da, baina neurriak hartzen dituzte

L.Z. | ARRASATE

Madrilgo Complutense Unibertsitateko Margarita Delgado dokto- rearen taldeak egin du ikerketa eta 15 urtetik gorako nerabeen artean 9.700 inkesta egin ditu autonomia erkidego guztietan. Bada, hiru ondorio nagusi atera ditu lantalde horrek: 20 urte bete aurretik sexu harremanak dituen gazteen kopurua hazi egin da, nerabeen artean izaten diren haurdunaldien portzentajea jaitsi egin da eta alde nabariak daude autonomia erkidegoen artean, hain zuzen ere.

## Beranduen, Euskadin

Euskal Autonomia Erkidegoa da gazteak lehenengo sexu harremanak beranduen hasten dituzten erkidegoa; 1971-85 bitartean jaio-tako emakumeen %60k izan dituzte sexu harremanak 20 urte bete baino lehen. Nafarroa, berriz, amaieratik hasita bosgarren erkidegoa da, %64,77rekin.

## Haurdunaldi gutxiago

Neurketak jaso du nerabeen haurdunaldiak jaitsi egin direla, eta erkidego guztietan izan da joera hori. Ikerketaren arduradunek

azaldu dute fenomeno hori antisorgailu eraginkorren erabilera- rengatik izan dela. Euskal Autonomia Erkidegoan gazteen %81ek erabiltzen dute antisorgailu eraginkorra harreman sexualetan.

## Klase sozialak

Neurketak bestelako ondorio bat ateratzea ere ahalbidetu du: eragile sozioekonomikoen garrantzia. Garbi islatzen da nerabeen artean izaten den haurdunaldi kopurua txikiagoa dela goi-ikasketa gehien, biztanle bakoitzeko errenta handien eta emakumezkoen lan merkatu- ratze handien duten erkidegoetan. Erkidegoek atal bakoitzean lortu duten puntuazioaren arabera sail- kapen bat osatu dute: Nafarroa, Madril eta Euskal Autonomia Erki- degoa buruan azaltzen dira eta Andaluzia, Extremadura eta Mur- tizia, berriz, azken postuetan.

Asier Kidam | Magoa

## "Magiarekin gaitasun komunikatiboak eta sozialak lantzen dira"

Mundu oso hermetikoa izan arren, seme-alabak magiara hurbiltzeko gomendatzen du Kidamek

L.Z. | ARRASATE

7 urterekin hasi zen magia egi- ten, baina salbuespena da. Gaur egun gaztetxoendako 14 urteko muga gomendatzen du. Ikuski- zunak eta tailerrak eskaintzen ditu, eta ziurtatzen du magia oso errekurso ona dela.

## Ze abilezia eskatzen ditu magiak?


Magia nahiko abstraktua da. Ume txikiak magian sinesten dute; ez dakite magia trikima- iluetan oinarritzen dela. Besteei trikimailuak ez erakustea asko kostatzen zaie. Bestetik, txan- ponak edo kartak maneiatzeko beharrezkoa da gutxieneko abi- lezia digital bat. Badaude oso errazak diren 7-8 trikimailu, baina gutxieneko abilezia eska- tzen dute guztiek.

## Zer ikas daiteke 14 urterekin?

Hurbileko magia; txanponekin edo kartekin edozein tokitan egin daitezkeen trikimailuak. Oso egokiak dira lagunartean eta familiaren aurrean egite- ko.

## Magoek lilura handia sortzen duzue.

Bai, oso polita da. Batzuetan, zalantza ikusten ditut taile- rretara etortzen diren gazte- txoak. Badakite magoek triki- mailuak egiten ditugula eta trikimailu horiek ikastera etor- tzen direla, baina, baten bat



Asier Kidam magoa. | ASIER KIDAM.COM

erakusten diedanean, "hori ez da magia" esaten didate. Kon- fliktoa sortu zaie, nahastuta daude. Orain gutxira arte magia existitzen dela entzun dute, eta sinistu egiten dute. Errezeloa hartzen dute. Polita da.

## Magiaren bitartez ze abilezia lantzen dira?

Gehienbat, abilezia digitala; eskuen mugimendua ondo kon- trolatzen. Baina abilezia komu- nikatiboak eta sozialak ere bai. Jendea entretenitzea da magoa- ren helburua, eta magia aitzakia oso polita da horretarako. Oso pertsona lotsatiendako triki- mailu batzuk ezagutzea bali- a- garria izan daiteke. Magia mundu osoari gustatzen zaio eta desinhibitzeko aukera han- diak ematen ditu.





# KULTURA



Zuazola institutuko aretoko oholtza gainean, parte hartzaile guztiak. | IRATI GOITIA

## Parte hartzea, umorea eta ura protagonista film laburren rallyan

MIREN ARREGI | OÑATI

Irudiz publizitate agentziak antolatuta, Oñatiko film laburren II. rallya egin zuten zapatuan Oñatin. Ura izan zen eguneko protagonista; kalean ura, eta ura parte hartzaileen film laburretan, ura izan baitzen antolatzaileek ipini zuten

gaia. "Izadiko lau elementuak ziren hasiera baten gaia, baina eguraldia ikusita, azkenean ura aukeratu dugu" zioten antolatzaileek.

Hamaika taldek hartu zuten parte, "lehenengo edizioan baino gehiago, eta hori seinale ona da" kontutan izanda egunak ez zuela

gehiegi laguntzen. Talde parte hartzaileetatik hamar ziren oñatiarrak, bat berriz, Eskoriatatik etorritako kideez osatua. Egun osoan zehar Oñatiko kale, auzo, ikastetxe, etxe zein tabernatan grabatu ostean aurkeztu zituzten lanak. Zine eta ikus-entzunezkoen

alorrean zeresana duten kidez osatutako epaimahaikideek hartu zuten erabakia; emaitzak jakin aurretik, baina, Zuazola Institutuko aretoan eskaini zituzten film guztiak; jende asko bertaratu zen eta barre algara ederrak egin zituzten askok eta askok.

### Umorez, dramaz, kantuz...

Nolanahi ere, lan txukunak aurkeztutako guztiak, izan ere, talde guztiak jakin izan zuten euren sorkuntzari ukitu propioa ematen. Batzuk kantuz, besteak umorez, beste batzuk drama ukitu batekin, baina guztiak ere txukun.

Film irabazleak, honakoak; Baratzeko Lamiak taldearen *Zure bila* lanarentzat lehen saria. Bigarrena Urtzi taldearen *Ura* lanarentzat eta hirugarrena, Gero pentsauku taldearen *Hidrolismoa* lanarentzat. Epaimahaiaren sari berezia, Satz 85 taldearen *Troskako urak* eroan zuten.



Urtzi taldeko kideak. Bigarren saria jaso zuten euren lanarekin. | BERNAT ALBERDI



LEIRE IRIZAR ETA ANE GALDOS

"Zure bila lana aurkeztu dugu, eta ezusteko ederra hartu dugu epaimahaiak lehen saria eman digunean. Oso pozik gaude, egun oso polita pasatzeaz gain saria ere eroan dugulako. Datorren edizioan ere ziur parte hartuko dugula".



ALAI BEITIA

"Epaimahaiaren sari berezia jaso du gure *Troskako Ura* lanak. Aurkeztu garen lehen aldia izan da. Azkenean lortu dut lagunak animatzea, urte bete belarria jaten ibili ostean. Zer eta sariarekin goaz etxera! Ez genuen inondik inora espero".



JOSU ZUBIA

"Arazo batzuk izan ditugu grabaketarekin eta bi bider grabatu behar izan dugu. Hala ere, azkenean lortu dugu aurrera ateratzea. Parodia bat egitea zen gure asmoa, ez dakit lortu dugun, baina ondo pasatzera etorri gara eta hori behintzat lortu dugu".

## Domingo de Iralaren gaineko liburua aurkeztu dute

Kursaleen egin zuten Elkoroberezibarrek aurkezpena Asunciongo Euskal Etxeko lehendakaria lagun

MIREN ARREGI | BERGARA

Donostiako Kursaleen aurkeztu zuten egubakoitzean *Domingo de Irala y su entorno en la villa de Bergara* liburua, Kanpoko Euskal Gizataldeen V. Mundu Batzarra-

ren testuinguruan. Miguel Angel Elkoroberezibar bergararra da liburuaren idazlea eta 2006an Paraguaiko Historia Akademiaren enkarguz argitaratu zuen liburuaren egokitzapena da hona-

koa. Hain zuzen ere, Paraguaiko Euskal Etxeetako ordezkari zabalza egon zen aurkezpenean; baita Argentinako eta Mexikoko ordezkari zabalza ere.

### Bergarako urteak oinarri

Iralak Ameriketara egin aurreko urteak dira liburuaren oinarria. XVI. mendean Bergara nolako zen eta Iralaren familiaren gaineko kontuak deskribatzen ditu Elkoroberezibarrek egokitzapen honetan. Liburua eskuratu guraz gero, idatzi [maelkoro@yahoo.es](mailto:maelkoro@yahoo.es) helbide elektronikora.



Elkoroberezibar eta Galo Egúez, egubakoitzean Kursaleen. | ELKOROBEREZIBAR



## Suediatik soinu trinkoa, energiaz betea eta gustagarria ekarri du Electric Boys taldeak

Arrasateko Jukebox taldeak eman zuen kontzertua suediarren aurretik

MIREN ARREGI | OÑATI

Franco Santunione taldeko gitarra-jotzailea ondoezik antza, eta ezin izan zuen Oñatiko Gaztelekuko kontzertuan egoterik izan. Hala ere, Suediako Electric Boys taldeko beste hiru kideek erakutsi zuten eurena musika dela;

musika sortzea, musika egitea eta musikaz gozatzea. Conny Bloom gitarra-jotzaile eta abeslariak, Andy Christell baxu-jotzaileak eta Niclas Sigevall bateria jotzaileak Jukebox talde arrasatearren ondoren egin zuten agerraldia. 1989an Suediako tal-

deak argitaratu zuen *Funk-O-Metal Carpet Ride* lehen diskoak izan zuen arrakastak Europako eta EEBBetako eszenatokietara katapultatu zuen taldea eta ordutik garapena geldiezina izan da. Taldeak arrakasta handia lortu zuen hein baten, Beatles estiloa, psikodelia eta gitarren riff heavyak nahasten zituelako. Suedian, Ingalaterran nahiz EEBBetan, euren single eta diskoek arrakasta lortu izan dute beti; iaz sartu ziren azkenengoz estudioan, *And Them Boys Done Swand* diskoaren grabaketarako.

### Soinu trinkoa

Soinuari erreparatu, ez da zaila izaten, talde baten musikaren kalitateaz ohartzea. Electric Boysek ez du zalantzarako tarterik uzten. Kontzertua entzun zuen oro jabetu zen taldearen soinu trinkoaz, bereziaz, kalitatezkoaz. Doinu berriak eta zaharrak eskaini zituzten eta taldekideek Gaztelekuan elkartu ziren ikusleak poltsikoratzen ere jakin zuten. Rocka, funkya, doinu gogorak eta leunagoak uztartuz eta ikusle ere ikuskizunaren parte ginez, taldeak profesionaltasunez erantzun zuen. Berdin egin zuen ikusleagoak ere.



Stockholmen sortutako Electric Boys taldea, Oñatin. | BERNAT ALBERDI

## Luis Laskurainek azken 10 urteotan egindako lana ikusgai dago egubakoitzetik Aroztegi aretoan

M.A | BERGARA

Denak dira oleoan egindakoak. 22 guztira. 22 margolan, azken 10 urteotan egin duen lana erakusten dutenak. Hiru multzotan sailkatzen du Laskurainek Aroztegin ikusgai dagoen obra: "Batetik hiriko paisaiak daude, hiriaren nire ikuspegi partikularra". Izan ere, lurra pintatzen du Laskurainek. Estoldetako herdoila, galtzadaren erliebea... Bestetik konposizioak deitzen dituenak ipini ditu: "Natura hil klasikoaren eboluzio bat dira, baina guztiaren gainetik konposizioa bilatzen dut lan horietan". Azkenik, bere "kapritxoak"

daude. Horietan, loreak marraztu ditu eta lehen aldiz, erakusgai ipini.

### "Erakusketa didaktikoa"

Laskurainek beretzat margotzen du. Baina, nolabait, ikusle bultzatu gura du bere koadroen aurrean ipini eta hausnartzera, bere koadroetan dagoena sentitzera. Horregatik, Andoni Salamero Alberdik, lan bakoitziari testu bat idatzi dio; horrek, ikusle gogoetara bideratuko duen asmoz.

Azaroaren 27ra arte egongo da Laskurainen obra Aroztegin, herritarren gozagarri.



Luis Laskurain, Aroztegi aretoan. | JULIO CALLEJA

# goienakluba

Deitu eta lortu Florida Guridirako 2 sarrera\*  
943 25 05 05



Abantailaz betetako kluba!

e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com

\* Sarrerak agortu arte.



## GURE MUSIKA TALDEAK

AGGRESSIVE  
COMBAT

Jon, Iurgi, Aritz, Iñaki, eta Mikel dira Aggressive Combat. | AGGRESSIVE COMBAT

# "Azken hiru urteotan egin ditugun 11 abestiz osatutako diskoa grabatu behar dugu"

- ▶ Lan berria 2012ko martxorako edo apirilerako kalean izatea espero du
- ▶ Lan berria 'Etorkizun iluna' eta 'Survive' diskoen jarraipena izango da

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Aggressive Combat talde arrasatearra 2004. urte bukaeran hasi zuen bere ibilbidea eta ordutik hona, bi disko kaleratu eta 100 kontzertu baino gehiago egin dituzte. Hurrengo astean hirugarren diskoa grabatzen hasiko dira. **Gazte hasi zineten taldearekin, ezta?**

Bai. 16-17 urterekin Arrasateko Depositoetan lokala lortu genuen. Ilusio handiarekin hasi ginen eta aurrera joateko gogoarekin jarraitzen dugu.

**Nolako bilakaera izan du taldeak?**

Hasi ginenean argi genuen *Street-punk* musika egin nahi genuela eta zazpi urteren ostean, estilo berdina egiten jarraitzen dugu. Estilo aldetik ez gara aldatu, baina urteekin hobeto jotzen ikasi dugu.

**100 kontzertu baino gehiago jo dituzue. Ez zarete lokalean sartuta geratzen den taldea.**

Bai, kontzertuak ematea gustatzen zaigu eta hasi ginenetik ez gara ia geldirik egon.

**Euskal Herrian zehar egin dituzue kontzertu gehienak, baina kanpoan asko mugitu den taldea da Aggres-**

**sive Combat.**

Bai. Urtero Galiziara joaten gara kontzertu batzuk ematera. Horretaz aparte, Katalunian, Madrilen, Asturiasen eta Bordelen jo dugu. 2009. urtean 'Survive', gure bigarren diskoa kaleratu genuenean, Alemanian eta Txekiar Errepublikan bira bat egin genuen.

**Ze nolako lekuetan jotzen duzue?**

Normalean gaztetxe eta tabernatan jotzen dugu baina areto eta jaialdietan ere jotzeko aukera izan dugu. The Business, Stigma, Blood or Whiskey edo Perkele

bezalako taldeekin jo dugu.

**Urte hauetan guztietan zuekin batera sortu diren talde askok ez dute bost urte baino gehiago iraun. Hasi-rako ilusioekin jarraitzen duzue?**

Zaila da zazpi urteren ondoren ilusioa izaten jarraitzea, baina guk hasierako ilusioa mantentzea lortu dugu.

**Boskote bezala hasi zineten, gero laukote izatera pasatu zineten eta, orain, berriz ere, bost kide osatzen duzue Aggressive Combat.**

Lehenengo bost urteetan bi gitarra jotzailer genituen taldean baina, gero, Arnaizek taldea utzi eta laukote bezala jarraitzea erabaki genuen. Horrela bi urte eman ditugu eta, irailean Iñaki sartzea erabaki genuen.

**Orain disko berri bat grabatu behar duzue.**

Hirugarren diskoaren grabaketa hurrengo astean hasiko dugu. Bi edo hiru aste bukaeratan grabatuko dugu Karlotek Aretxabaletan duen estudio berrian.

**Zenbat kantu grabatu behar dituzue?**

Azken bi edo hiru urteetan egin ditugun 11 abesti grabatu behar ditugu.

**Aurreko diskoa zuek kaleratu zenuen, baina hainbat banatzailek diskoa saltzea lortu zuten. Disko berriarekin berdina egingo duzue?**

Helburua hori da. Aurreko diskoak izandako banaketa izatea nahi dugu. 'Survive' diskoak Euskal Herriko, Madrileko, Alemaniako eta Italiako banatzaileak izan zituen.

## IKUSPUNTUA

IKER BARANDIARAN  
KAZETARIA |  
'ibarandiaran@goiena.com'

## Street-Punkaren ordezkaritza fidela

uzaroan Arrasate izan zen street-punkaren eta Oi!aren munduko irila bakarra, eta garai batzuetan oso emankorra. Gerora, bidea zabaldu zuten Puñetazo, Zakarrak eta Iskanbila desagertu ziren; eta arrakasta handiena izan zuten Des-Kontrol eta Never Surrender taldeek bestelako estiloak probatu zituzten. Bestalde, herriko gazteen artean bestelako tendentziak nagusitu dira: punk-rock, rock-and-rolla, garagea... Oso bitxia da luzaroan erreferente izan duen estiloak ordezkaritza gutxi izatea; baina horietatik fidelena Aggressive Combat da.

## Kanpoan jotzeko beharrekoa da banaketa on bat izatea?

Bai, Europatik zehar birak egiteko banaketa on bat izatea beharrekoa da. Kontzertuak antolatzen dituen jendeak zure materiala eskuragarri izan behar du, bestela oso zaila da kontzertuak lotzea.





# Kantari

## BERGARA

**Z**abalotegi aretoa lepo bete zen Bergarako eta Antzuolako artistak ikusteko. 200 neska-mutikok abestu zuten, 50 taldetan banatuta. Guztira, 10 saio grabatu zituen Goiena telebistak. Guraso eta lagun asko batu zen zapatuko eta domekako saioetan. ARGAZKIAK: JULIO CALLEJA



Bergaran grabatutako saioak hilaren 15etik 28ra emitituko dituzte, 13:30ean; biharamunetan, errepikapena 19:15ean; eta aste bukaeran, denak.



Kantari hurrengo saioak hilaren 12an eta 13an grabatuko dira, Aretxabaletako Arkupen, 17:00etan.



Argazkiak ikusteko:  
[goiena.net/gaiak/kantari](http://goiena.net/gaiak/kantari)









## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza ia berria salgai. 4 urte. 2 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekuua. Negozia garria. 615-00 72 16.

**Antzuola.** 73 m2ko etxebizitza salgai. 18 m2ko garaje itxiarekin. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldea. 660-70 04 48.

**Aramaio.** 90 m2ko etxebizitza salgai. Ibargoia kalean. Hiru logela eta komun bi. Dena kanpoalde berria. Ganbara eta garaje itxia. Deitu 652-72 83 60 edo 945-44 53 52 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta bainugela. 606 86 71 97

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Sailuente plazan. Musakolan. Guztiz berritua. Sotoarekin. Egoera paregabea. 143.000 euro. 666 53 95 39

**Atxondo.** 82 m2. 3 logela, sukaldea, egongela ederra, komuna. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berriztatuta eta altxatu hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. Tel.: 628-78 78 35.

**Azkoitia.** Etxebizitza salgai Azkoitian. 91 m2. 4. Solairua. 96.000 euro. Dena berritzeko. Aitzibel 6. (kusi edo negoziatzeko arazorik ez) 648-64 01 01.

**Bergara.** 140 metro koadroko duplexa salgai San Lorentzon. Estreinatzeke. Hiru logela. Bi terraza; bat 18 metrokoa. Bi bainugela. Sukalde guztiz jantzia eta hornitua. Beheko sua egongelan. 665 71 48 30

**Berriz.** Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berritua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobea. 647-77 3 92.

**Berriz.** Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m2. Oso kokapen ona. Guztiz jantzia dago. Sukaldea, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despensa txiki batez). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. 607-52 24 26.

**Biarritz.** Aukera paregabea Biarritzeko hondartzan. 30m2 tako estudioa terraza, solarium eta igerilekuarekin. Kontakturako: biarritzestudio@gmail.com

**Donostia.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Donostian, Antiguoa auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguzkitzua da eta lasaia. Precio 500 euro. 609-48 11 24.

**Durango.** Pisua salgai Murueta-Torren. 90 m2. Sukaldea eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berritua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia, eguzkitsua, bista eta kokapen ederra. San Garaia eta garajea. 686-13 89 09.

**Durango.** Pisua salgai Sasikoa kalean. 3 logela, komuna eta egongela-jangela handia. 2 balkoi. Kafetaria gas naturalarekin. Garajea eta ganbara. Precio ezin hobea. Deitu 679-38 23 69 telefono zenbakira.

**Durango.** Atiko zoragarria salgai Durangoko alde zaharrean. Eguzkitsua eta bista ederreko terraza handiarekin. Kafetaria eta aire egokitua. Iggogailurik ez. Zaharberrituriko eraikina. Deitu 665-94 46 74 telefono zenbakira.

**Elorrio.** Elorrioko erdialdean kokatua dagoen etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. 634-45 72 01.

**Elorrio.** Etxebizitza berria erdialdean. 2 logela, 2 bainugela, sukaldea ekipatua. Iggogailua. Trastelekuua. Aukera ona. 657-79 39 93.

**Elorrio.** Salgai estreinatzeaz dagoen 162 m2-ko terraza duen atikoa (73 m2). 2 logela, egongela bat, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekuua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. Deitu: 615-75 59 85 (goizez) eta 636-22 49 02 (arratsaldez).

**Eskoriatza.** Eskoriatzan 120 m2ko duplexa salgai. Berriberria. Jantzia. Precio onean. 679 -16 24 96.

**Oñati.** Etxea salgai kale zaharrean. 90 metro koadro gehi ganbara. Hiru logela. Oso eguzkitsua. Garajerik ez. Precio negoziagarria 657-79 43 29.

**Oñati.** Etxebizitza, 110 m2koa, salgai Errementari plazan. 9 urteko antzinasuna. Hirugarren solairua. Lau logela, bi komun, egongela handia, dena guztiz jantzia. Bi trasteleku eta bi plazako garaje itxia. Oso argitsua eta prezio interesgarria. 670-39 51 30.

**Oñati.** Etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Trastelekuua eta garaje itxia. Errementari plazan. 653-73 08 04.

**Oñati.** 72 m2ko etxebizitza salgai Kalebarrian. Sukaldea, egongela handia, bainugela eta bi logela. Dena guztiz jantzia. Patio erabiltgarria eta trastelekuua ere baditu. Garajea aukeran. Precio negoziagarria. Deitu 665 -71 77 98 telefonora.

**Tolosa.** Tolosako alde zaharrean atikoa salgai. Kale Nagusia 32an. 55 m2. 2 logela. 179.000 eurotan. 943-57 13 87. andoniudabe@hotmail.com.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Elorrio.** Elorrian etxea errentan. Harremanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 695-78 27 86.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxea errentan hartuko nuke. 663-28 75 10.

**Arrasate.** Bikote arduratsua gara, lanean diharduguna. Etxebizitza behar dugu errentan, epe luzerako. Bi logelakoa gutxienez. 662-66 34 20.

**Durungaldea.** Pisu nabil Durango, lurreta edo Elorrian. Tel.: 603-07 16 26.

**Durango.** Bikote arduratsua alokatuko pisu baten bila durango edo inguruetan. Deitu 617-86 00 55 telefonora.

### 105. ETXEA OSATU

**Antzuola.** Baserri batean logela ematen da errentan, sukalde eta abarrak erabiltzeko aukerarekin. Errentaz gain ez da beste ezer ordaindu beharko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-34 00 45.

**Aretxabaleta.** Aretxabaletan etxebizitza osatzeko gela bat daukagu libre, Araba libledean, mutil batentzat. Deitu 678-73 66 54 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakararentzat. 657-55 81 15, 648-86 05 49.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Langileak bizi dira bertan. Hilean 190 euro. Deitu 699-11 45 14 telefonora.

# ZURE IRAGARKIAK

### IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEN BAZKIDEEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen modulua.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

### ARRASATE.

Logela ematen da errentan arginen, unibertsitatetik gertu. Erosoa eta handia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645-01 05 84.

**Berriz.** Logela alokatuz baserri batean. Estreinatzeke eta leku paregabea. Nahiago emakumea. 619-66 58 57.

**Durungaldea.** Pisua konpartitzeko lagun bila nabil (emakumea nahiago). Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688-67 86 90.

**Durango.** Logela bat alokatzen da komun pribatuarekin Ibaizabal auzunean. 652-86 57 80.

**Durango.** Pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil durangan. 2 komun, 2 logela, 2 egongela eta sukaldea konpartitzeko. Tel.: 650-73 87 24.

**Eskoriatza.** Erdigunean, pisua konpartitzeko bi pertsona behar dira. Etxe guztiz eraberritua. 685-73 60 57.

### 2. GARAJEAK

#### 201. SALDU

**Berriz.** 42 m2-ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak iaz eginda. Komuna eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldeagaz. 2 edo 3 auto. Tel.: 615-75 21 36.

**Durango.** Itxitako garajea salgai Tronperri kalean, erdialdean. 628-78 78 35.

**Elorrio.** Autoa gordetzeko garaje bilazabilza? Berrio-otxo kalean baduzu horretarako aukera! 658-75 92 64.

**Eskoriatza.** 15 m2ko garaje itxia salgai Intxaurtxueta 23an. 679-16 24 96.

#### 202. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Monte bidean (Ertaintza alboan) 26 m2-ko garaje itxia errentan ematen da. 656-76 76 06.

**Durango.** Durangoko Antso Estegiz kalean garajea alokatuz. 690-18 91 68.

**Durango.** Garajea alokatuz Alluitz kalean. 669-63 03 12.

**Durango.** Zabalik dagoen garajea alokatzen da Murueta-torren. Oña eta merkea. Deitu 660-38 59 95 edo 660-38 60 43 telefono zenbakietara.

#### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Harane Erreka edo Bolu kaleetan garajea errentan hartuko nuke. Arratsadez deitu mesedez. 943 76 59 94

### 3. LOKALAK

#### 301. SALDU

**Abadiño.** Matiena. 44 m2-ko txoko berria salgai. Beharrezko baimen guztiak. Deitu 672-25 80 41 zenbakira.

**Bergara.** Lokal komertzial bat errentan eman edo saltzen da Bergarako San Lorentzo kalean. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 607 93 73 15

**Elorrio.** 360 m2-ko pabilioa salgai Elorrioko industrialdean. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 634 -45 72 01.

**Elorrio.** 950 m2-ko pabilioa salgai Elorrioko industrialdean. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 634 -45 72 01.

#### 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Erdigunean, bulego lanetan jarduteko gela daukat libre. Berria eta oso argitsua. Erabiltzeko gertu dago. Egun soltetan erabiltzeko aukera ere bai. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 651 70 17 41

### 4. LANA

#### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. goizean eta arratsaldean. Esperientzia izatea eskertzen da. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 678-32 90 62.

**Durango.** Pertsona euskalduna behar da ume bi zaindu, ikastolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 651-70 96 76.

**Bergara**  
Araindegirako langilea behar da. Deitu zenbaki honetara: 679 58 95 71

**Bergara**  
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da. Langilea. Egun osoz. 943 53 24 52

**Oñati**  
Pertsona euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 654 61 25 88 675 70 62 10

#### 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Arkitekturako ikasketak eta aisialdian esperientzia duen neska euskalduna asteburuetan lan egiteko prest. Arkitektura, sukaldea, taberna, aisialdia, etxeko lanak... 659-68 02 17 saioazuazu3@hotmail.com.

**Aretxabaleta.** Leire. Aretxabaletako. Haur hezkuntza ikasketak amaitu ditut. Umeak zaintzen lan egiteko nuke, posible bada aretxabaletan, baina balarara osoan ere bai. Interesa duenak dei dezala zenbaki honetara: 665-74 12 66.

**Arrasate edo Bergara.** Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketarik edo sukalde laguntzaile. Honetan esperientzia daukat. Interesa duenak dei dezala zenbaki honetara: 659 37 41 95

**Arrasate.** 53 urteko emakume euskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiteko eta abar... Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

**Arrasate.** Erreferentzia onak dituen neska lan ezberdinetarako gertu: garbiketa, nagusiak zaintzen eta abar. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 671 15 96 9. Marta

**Arrasate.** Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egiteko nuke. 682-31 97 37.

**Arrasate.** Bertako emakumea, arduratsua, gertu nagusiak zaintzeko. 606-88 94 14.

**Arrasate.** Haur hezkuntza ikasi duen neska euskalduna arratsaldean umeak zaintzeko prest. Arrasateko naiz. Deitu 665-73 10 08 zenbakira.

**Bergara.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 665 -75 41 32.

**Bergara.** Mutil gertu arratsaldetan lan egiteko, egunero. 654-98 69 14.

**Berriz.** Mutil gazte batek bere burua eskaintzen du lorazaintza lanak egiteko. Tel.: 652-72 38 69. Deitu arazorik gabe.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldari laguntzaile jarduteko zein gaixoak zaintzeko. Egunez eta gauaz. Esperientzia eta informak ditut. 661-48 86 74 / 943-79 67 96.

**Debagoiena.** Elikagaien manipularioarako titulua daukan neska gertu sukaldetan lan egiteko. Baita ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko, orduka edo egun osoz. Deitu 659-37 41 95 edo 681-37 60 13 zenbakietara.

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaileak lana egiteko luke. Deitu zenbaki honetara edo mezu utzi. 667-06 79 62.

**Debagoiena.** Asteburuetan lan egiteko nuke nagusiak zaindu eta etxeak garbitzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699-09 46 26.

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzaten ere bai. 659-77 96 22 / 943-76 48 80.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketarik egiteko. Orduka, egunez, gauetan edo etxean bertan bizi izanda ere bai. Erreferentzia onak daukat eta lanean berehala hasiko nintzateke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638-931148 edo 943-25 01 11.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzaten, edo bestela. 636-78 34 90.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu edo ume zein nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari ere. Eskarmetuduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674 -59 85 01.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, legezko paperekin, prest garbitasun lanak egiteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Lanean hasteko moduan nago eta erreferentzia onak daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674 -59 85 01.

**Debagoiena.** Gizon arduratsua, legezko paperekin, prest garbitasun lanak egiteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Lanean hasteko moduan nago eta erreferentzia onak daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 674 -59 85 01.

**Debagoiena.** Neska eskaintzen da debagoienan pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Lanean hasteko moduan nago eta erreferentzia onak daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-62 37 82.

**Debagoiena.** Neska eskaintzen da debagoienan pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Lanean hasteko moduan nago eta erreferentzia onak daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-62 37 82.

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bizi izaten edo orduka nagusi zein umeak zaintzeko, edo garbitasun lanetan jarduteko. Erreferentzia onak daukat eta berehala hasiko nintzateke lanean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 -07 31 33.

**Debagoiena.** Ikasketako soziosanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan jarduteko, asteburuetan. 649-15 72 47.

**Debagoiena.** Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu 14:00etatik aurrera. Deitu telefono zenbaki honetara: 637-18 07 23.

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko nuke. Egun erdiz edo osoz. Neska arduratsua naiz. 645-01 05 84.

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Astebukaeretan. Interesatuok 627-15 09 34.



**Deba Garaia Inmobiliaria**

Telefono Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37



Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokrosti.com

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- Bergara:**
- Martoko. 70 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin. 192.233 €.
  - Basarte. 68 m<sup>2</sup>. Terrenoarekin.
  - Artekale 40 m<sup>2</sup>. Berritua.
  - Koldo Eleizalde. 74 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. Precio ona.
  - Ozaeta. 96 m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria.
  - Osintxu. 84 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin. 153.258 €.
  - Ibargarai 54 m<sup>2</sup>. Garajearekin.
  - Burdinarte. 53 m<sup>2</sup>. 162.273 €.
  - Matxiategi 65 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin. 190.000 €.
  - Mizpildi. 70 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
  - Zubiaurre 79 m<sup>2</sup>. Berritua.
  - Zabalotegi 54 m<sup>2</sup>. 154.761 €.
  - Aranerrekala 80 m<sup>2</sup>. 189.319 €.
  - San Lorentzo 68 m<sup>2</sup>. Berritua.
  - Herri Lagunak 52 m<sup>2</sup>. Precio ona.
  - Zubiaurre 51 m<sup>2</sup>. Terrazarekin. 102.000 €.
  - Zubiaurre 81 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin. 183.909 €.
  - Zubietza 55 m<sup>2</sup>. Berritua. 150.000 €.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artzamedidi. 75 m<sup>2</sup>. Precio ona.
  - GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzon eta Ibargarain. Aukera ona.
- Antzuola:**
- Ondarren garajea salgai. 36 m<sup>2</sup>.
  - Buzintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
  - Herriko plaza 95 m<sup>2</sup>. Oso etxe ona.
- Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Dugun eskaera dela eta etxebizitzak behar ditugu alokatzeko

ANTZUOLA  
• Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eskarmentua duen mutila lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala lanean hasteko gertu. Legezko paperak ditut. 6 Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 03-14 59 17.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zela laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943-71 53 74 edo 695-73 87 95.

**Debagoiena.** Neska eskalduna, eskarmentuduna eta erreferentzia onekin, nagusiek lan egin edo umeak zaintzeko gertu. Baita garbiketako orokorrak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671-35 22 60.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-69 26 07.

**Debagoiena.** Ikasketa soziosanitarioak dituen neska gertu nagusiak zaindu edo garbiketako lanetan jarduteko, asteburuetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649-15 72 47.

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaintzen eta garbitasun lanetan jardungo nuke. Regina. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646-22 29 35.

**Debagoiena.** Neska arduratsua, esperientziaduna, nagusi edo umeak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-22 29 35.

**Debagoiena.** Neska eskalduna gertu umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617-90 55 82.

**Durango.** Altzarien muntaian, igeltserotzaren zein elektrizitate lanetan jarduteko prest. Esperientzia hiru esparruetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620-02 97 00.

**Durango.** Neska gazte eskalduna etxeko lanak egin, haurrak zaindu, klase-partikularrak eman, tabernari lanak egin edo garbitzaile lanak egiteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615-71 62 32.

**Durango.** Neska eskalduna naiz, EGA eta First Certificated in English tituluak dauzkat, eta farmazia ikasten ari naiz. Tabernaren batean lan egiteko, umeak zaintzeko edo klase-partikularrak emateko prest nago, arratsaldez. 638-85 78 60. Eskerrik asko.

**Durangaldea.** Neska gazte eskalduna umeak zaindu edota etxeko lanak egiteko prest. Goiz eta arratsaldez. Esperientzia. Gabinete pedagogikoa egon naiz laguntzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-13 13 27.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko, etxe, atari eta abarrak garbitzeko, edo sukalde laguntzaie jarduteko. Gidabaimena dut. 600-81 99 34.

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein motako lanetan jarduteko. 610-99 70 46.

**Debagoiena.** Neska gertu sukalde laguntzaie, garbiketa, eta abarretarako. Etxean bizi izaten edo orduka. Deitu zenbaki honetara: 662-26 71 41.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko: obratan, nekazaritzan, tabernetan eta abar. 600-80 68 83.

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko: garbitze-lanak, zerbitzari-lanak, obraketara abar. 687-26 89 05.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska, arratsaldean, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696-70 55 09.

**Debagoiena.** Esperientziadun auto mekanikaria lanerako gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660-23 12 73.

**Debagoiena.** Neska 20:00-etatik aurrera eta asteburuetan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 677-12 75 44.

**Debagoiena.** Neska gertu astean zehar orduka edo asteburuetan lan egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-90 85 13.

**Debagoiena.** Sukaldean, nagusiak zaindu zela garbiketako lanetan jardungo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662-26 71 41.

**Debagoiena.** Mutil gazte eskalduna edozein lanerako gertu, astean zehar zein goizez edo arratsaldez, baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645-70 80 71.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, legezko paperekin, gertu nagusiak zaintzeko. Baita bestelako lanerako ere. 673-60 77 38.

**Debagoiena.** Neska eskarmentuduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko zein garbitasun lanetan jarduteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606-41 04 00.

**Debagoiena.** Neska gaztea lanerako gertu: nagusiak zaindu, sukaldean lagundu, garbitasun lana eta abar. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688-29 67 41.

**Debagoiena.** Neska prest lanerako: ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketako lanetan. Etxean bizitzen, orduka, egun osoz, gauzez edo asteburuetan ere bai. Berehala hasteko aukerarekin. Erreferentzia onak. 619-96 54 76.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketako lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. 636-60 90 24.

**Debagoiena.** Neska gertu lanerako. Sukaldean, garbitasunak, nagusiak zaindu eta abarretan. 610-99 70 46.

**Debagoiena.** Nikaraguako neska arduratsua lanerako gertu, nagusiak edo haurrak zaintzen. Bergaran edo Debagoiena osoan. Deitu 606-62 37 82 edo 606-54 89 90 telefono zenbakiarekin.

**Durango.** Andre eskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-08 81 85

**Durango.** Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603-07 16 26.

**Durango.** Andre eskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616-30 04 15.

**Durango.** Neska gazte eskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsaldez, haurhezkuntzako ikasketak burutua. Esperientziaduna. Interesatuok deitu: 615-71 62 32.

**Durango.** Persona nagusien, umeen edo garbiketako lanen lan bila. Interna, esterna edo orduka. Pertsona arduratsua, esperientzia eta erreferentzietekin. 646-10 45 52.

**Durango.** Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Esperientzia. Erreferentziak. 697-12 64 38

**Durango.** Umeak zaindu zein etxea garbitzeko prest dagoen neska bat naiz (goizez edo arratsaldez). 619-20 11 19.

**Durango.** Andre eskalduna naiz eta pertsona nagusiak, gaixoak, ezindua... zaintzeko prest nago. Urte askoko esperientzia daukat, eta lehenbailehen hasteko prest nago. Interesatuok deitu 699-74 57 23 telefono zenbakira. Ines.

**Durango.** Emakume arduratsua pertsona nagusien edo umeen zaintzarako eta garbiketarako lan bila. Esperientziarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697-12 64 38.

**Durango.** Emakume arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onekin pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketako lanerako prest. Interna edo esterna modura. Orduka, jardunaldi erdi edo osoan, asteburuetan edo gauzez. Paperekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 628-00 22 17.

**Durango.** Umeen edo pertsona nagusien zainketarako zein garbiketako lanerako lan bila. Jardunaldi osoan, erdian edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 638-43 79 01.

**Durango.** Lan bila nabil etxeak garbitzeko edo umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tehebistako parilaranjarrarjapena. Premier eta encore programen ezagutza. Kontakurako telefonoa: 629-11 23 11.

**Durango.** Psikologia lizentziatua. Durangoko neska eskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak orduka zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646-53 83 90.

**Durango.** Emakume arduratsua bere burua eskaintzen du orduka eta externa bezala lan egiteko: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak, taberna garbitzeko eta antzokoetarako. Tel.: 670-67 46 41 (Juana).

**Durango.** Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila, interna edo externa modura, orduka zein gauzez. Esperientzia askorekin eta erreferentzietekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603-95 41 94.

**Durango.** Neska eskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-08 81 85

**Durango.** Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603-07 16 26.

**Durango.** Emakumea gertu garbiketako lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. 636-60 90 24.

**Durango.** Neska gertu lanerako. Sukaldean, garbitasunak, nagusiak zaindu eta abarretan. 610-99 70 46.

**Durango.** Nikaraguako neska arduratsua lanerako gertu, nagusiak edo haurrak zaintzen. Bergaran edo Debagoiena osoan. Deitu 606-62 37 82 edo 606-54 89 90 telefono zenbakiarekin.

**Durango.** Andre eskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659-08 81 85

**Durango.** Umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia daukat. Orduka, jardunaldi osoan edo erdian. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603-07 16 26.

**Durango.** Neska eskalduna haurrak zaintzeko prest, goizez zein arratsaldez, haurhezkuntzako ikasketak burutua. Esperientziaduna. Interesatuok deitu: 615-71 62 32.

**Durango.** Persona nagusien, umeen edo garbiketako lanen lan bila. Interna, esterna edo orduka. Pertsona arduratsua, esperientzia eta erreferentzietekin. 646-10 45 52.

**Durango.** Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketarako lan bila. Externa, interna edo orduka. Esperientzia. Erreferentziak. 697-12 64 38

**Durango.** Umeak zaindu zein etxea garbitzeko prest dagoen neska bat naiz (goizez edo arratsaldez). 619-20 11 19.

**Durango.** Emakume arduratsua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketako lanerako prest. Interna edo externa. Esperientzia eta erreferentziak. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660-64 20 89.

**Gasteiz.** Gasteiz edo inguruetan lan bila nabil, edozein lan mota egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696-38 10 07.

**Iurretta.** 51 urteko emakume eskalduna lan bila, batez ere, arratsaldez. Ume zaintzan esperientzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663-32 84 25.

**Oñati.** Mutil gazte eskalduna edozein lanerako gertu, astean zehar zein goizez edo arratsaldez, baita asteburuetan ere. 645 70 80 71

**Oñati.** Neska eskalduna gertu egun erdiz ume zein nagusiak zaintzeko. Klinikako laguntzaile titulua daukat. 677-05 39 06.

**Zumaia.** 3 urtetako lan esperientzia tokiko telebistan. Mota guztiak gertakari eta ikusizkoak grabatuz eta hauen ondorengo edizio lanak egiten. Telebistako parilaranjarrarjapena. Premier eta encore programen ezagutza. Kontakurako telefonoa: 629-11 23 11.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Arrasaten ingeles eskolak ematen ditut, DBH letik beherako maila guztiak. 688-63 80 50 / 943-79 55 98.

**Arrasate.** Neska eskalduna, LH, DBH eta batxilergoko mailan eskola-partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu: 677-75 12 90.

**Arrasate.** Neska eskalduna 6-12 urte bitarteko haurrei klase partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685-77 40 28,

**Arrasate.** Mondragon unibertsitateko Leinn graduak ikasle talde bat enpresagintzako fakultatean bertan eskola-partikularrak emateko prest dago. LH eta DBH-ko ikasleei. Orduetegiari dagokionez negoziagarria da baina beti ere arratsaldetan beharrok luke. 16:00etatik aurrera. Interesik izanez gero, deitu mesedez zenbaki honetara eta galdetu Oihanagatik. 685-76 92 05.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen dira ikasle zein irakaslearen etxean (poligonoa). LH eta DBH-ko edozein gai. Batxilergorako galdetu. Ingelesa edozein maila. Astean zehar 15:30etatik aurrera eta larunbat goizetan. Interesatuta bazaude deitu: 695-05 02 20.

**Bergara.** Ingelesko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654-94 87 26.

**Debagoiena.** Informatika eskolak ematen dira. Oinarriko maila. Programazio, oposizioak prestatzeko. 679-74 00 61.

**Debagoiena.** Frantseseko eskolak ematen dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-74 00 61.

**Debagoiena.** Gitarra elektriko eskolak ematen dira. Merke. Nahi izanez gero irakaslearen etxean ere bai. 679-74 00 61.

**Durandaldea.** Batxilergoko marrazketa tekniko klaseak emateko durandaldeko pertsona bat behar da. Ingenieritzako edota arkitektureko ikaslea edo lizentziatua. 655-71 75 27.

**Durandaldea.** Psikologo eskaldunak eskarmentu arazoetan laguntzeko prest. Ikasketa teknikak ere eskaintzen dira. 679-38 23 69.

**Durango.** Marrazketa tekniko-rako, algebra eta fisikarako irakaslea behar da. Deitu 659-84 17 75 edo 685-71 86 54 telefono zenbakietara.

**Durango.** Fisika, matematika, marrazketa tekniko, kimika,... Fisikan lizentziatua naiz eta klase partikularrak ematen esperientzia dut. Astelehenerdik larunbatera, goizez 14:00ak arte, eta igandean egun osoa libre. 646-65 65 89 (Iagoba)

**Durango.** Neska eskalduna klase partikularrak emateko prest. Astean zehar eta baita asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. Tel.: 653-71 24 60.

**Durango.** Sorteriz ingelesa den irakaslea, esperientziaduna eta Trinity College Certesolak kualifikatua, ingelesezko klase partikularrak emateko prest. Hizketaldi pertsonalatuak. Oinarriko eta goi maila, zure beharretara egokituta. Marrazketa klaseak edo talde buruztuak. Arrazoiako prezioak. teignvalleyenglish@gmail.com. 635-26 62 51 (Tristan Deane)

**Durango.** Ingeles magistratzan diplomata, klase partikularrak emateko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619-20 11 19.

**Gitarra eskola partikularrak Durango.** Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazza, funka eta abar. Eskalak, akordeak, eritmoa, teknika, inprobisazioa, irakurketa eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650-17 22 85.

**Tolosa.** Lehen hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut, nirekin kontaktuan jartzeko 92naiaara@hotmail.es emaila uzten dizuet.

**Trikitxako klaseak.** Trikitxako klaseak ematen ditut. Informatzako deitu 661-12 56 47 telefonora.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana salgai.** Autokarabana 2010eko uztailean erosi. Benimar 310. 7500km. Eta datorren uztaile arte aseguratua. 943-34 10 76.

**Mitsubishi Pajero Liberty 3.2cc 170zaldi salgai.** Extra askorekin (GPS, control cruise, klima, CD, aurreko kubieta, disko eta pastilla berriekin). Iker 652-73 82 74.

**Seat Ibiza salgai.** Seat Ibiza 1900 tdi salgai. 5 urte. 86.000km. 100 zaldi. Beltza. 3 ate. IAT-a pasatuta. 5.000 euro. Tel.: 669-83 87 68.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Asto bat saldu ta beste bat oparitu.** Batak urte bi ditu bestek bi. Landa ta basoak garbi edukitzez egokiak. 616-58 57 88.

**Astoa salgai.** Urte biko asto arra, etxean jaio eta hazitakoa. Txipajarrira. 650-17 22 85.

**Ehizako txakurrumeak salgai.** Español Breton-ak eta Setterrak. 150 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695-71 00 68.

**Oilasko lumagorriak salgai.** Tel.: 94-681 90 85 (20:00etatik 21:00etara)

**Rottweiler txakurkume bi saltzen dira.** Rottweiler txakurkume bi saltzen dira. Arrak eta bibilabeteok. Prezio onean. 646-25 12 75.

## 703. EMAN

**Arratoi txakur arra opari.** Arratoi txakur arra oparitzen dut. Urte bat inguru du. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 94-681 96 10.

**Arratoi txakurra opari.** Arratoi txakur umea oparitzen dut 2 hilabetekoa. 656-74 34 57.

## 704. BESTELAKOAK

**Asto bat hartzeko prest nago.** Arra edo emea, kumea edo nagusia, edozein motatako astoa hartzeko prest nago. Oso ondo zaindua egongo da, zelai eder batean. Informazio gehiagorako bidali mezua bat astoa@hotmail.es-era.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Autorako MP3 irratia salgai.** Autoarentzako CD/MP3/WMA Pioneer deh4700mpb irratia salgai. Erabili gabea. 636-27 15 08.

**Baxua salgai.** Baxu bat, ia berria, funda, kablea eta amplifikadore (20watio). Prezioa: 200 euro. Bidali mezua: jpbetgarjo@hotmail.com

**Biolina salgai.** Biolina salgai, gara 3/4 tamainakoa. Akzesorio guztiekin eta egoera onean. Deitu telefono zenbaki honetara: 666-05 73 15.

**Bergara.** Lursaila salgai 16.000 metro koadrokoa. 30 urteko pinuekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653-71 66 87.

**Bergara.** Ollagorra elkartean bazkide plaza traspasatzeko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 647 37 20 48

**Bi metroko luzera duen bi plazako sofa salgai.** Ia berria eta egoera oso onean. 300 euro. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 629-94 22 77 / 620-14 26 69.

**Bizikleta txikia salgai.** Bi gurpiletan ikasteko oso proposa. Kalitate onekoa eta egoera onean. 15 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 657-79 79 35.

**Bizikletarako umeen aulkia salgai.** Bizikletarako umeen aulkia saltzen dut. Ume txikia atzean eramateko eroso. Oso gutxi erabilia. Merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648-63 58 06.

**Durango.** Bulegoko altzariak salgai: mahaiak, aulkikiak, batzar gela... Egoera oso onean daude. Deitu 656-73 77 79 telefono zenbakira.

**Hozkailua Combi New Pol no-frost. 200 euro.** Frigorífico-congelador new pol experience xr-1850 ix nf. No-frost sistemaduna. Altzairuzko atea. 4 urtean marixan egondakoa, egoera onean dago. Neurriak: altuera 185 cm x zabalera 59 cm. 2 ate. Kristalezko apalak. Iozkailuaren kapacitatea: 75 litro. Hozkailuaren kapacitatea: 217 litro. 200 eurotan salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680-59 73 79.

**Iozkailua berria salgai.** Ia berria dagoen iozkailua salgai. 85 litroko edukiera. Prezioa: 100 euro. Deitu 94-655 06 04 edo 672-41 09 38 telefono zenbakietara

**Kanpadenda salgai.** Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonentzako. 120 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615-00 72 16.

**Literak salgai.** Literak salgai. Trenerako oheak salgai. Bi litera eta azpiko bat, guztira hiru ohe. Egur argia. Armairu handia ere badute ohe baten azpian. Egoera onean. Merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 657-79 79 35.

**Oñati.** Lursaila salgai, Lamiategi auzoan, landetxe ondoan. Ura eta argindarra hartzeko aukera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665-70 12 56.

**Paiste Alpha platerak salgai.** Nahiko berriak dira, eta oso gutxi erabiliak. Honako hauek dira: rock crash 16 eta 18, full ride 20, eta zildjian zht medium thin 16. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607-43 84 03 edo bidali mezua cuesta.roberto@gmail.com helbidera.

**Piano elektriko salgai.** Yamaha Clavinova clp 150 piano elektriko salgai. Kontakua: 650-17 22 85 stratokaster@gmail.com

**Scooterrantzat parabisas pantalla.** Scooter motorrarentzat haizearentzako pantalla, bere lorloju eta guzti. 50 euro. Informazio gehiagorako deitu telefono zenbaki honetara: 686-89 77 32

**Trabesiako botak.** Mendiko eskia egiteko botak salgai. Nordica tr-10. Hiru fijazio lotura. 27-27,5 neurrikoak (eu 42-42,5). Oso egoera onean. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es.

**Trabesiako eskiak.** Trabesiako eskiak salgai, taulak Fischer X-Trem 1,40 luzerikoak 111-72-98 fijazioa Silverette pure carbon tube 150 eurotan. 690-15 95 06.

**Tropeta salgai.**



# "Errobot sozialak", ziber-lagunak lapurtzeko

Ikerketa baten frogatu dute Facebookeko profil faltsua sortu eta datuak lapurtzeko erraztasuna

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Pribatutasun arazoei orain "errobot lagunak" batu behar zaizkie Facebooken. Columbia Unibertsitateak eginiko azterketa baten benetako profilak imitatzen dituzten "errobotek" osatutako sareak antzeman dituzte, profiletatik erabiltzaileen datuak lapurtu eta spam eta *phishing* saiakerak egiteko. 102 ordenagailuk osatutako sarea sortu dute. Sare horretan 3.055 Facebookeko lagun lortu eta 46.500 e-posta eta 14.500 kaleko helbide eskuratu dituzte socialbot horiek. Datu horiek gainera merkatu beltzean erraz saldu ei daitezke eta programa bera eskuratu 24 dolarren truke.

## Lagun imitatzailerak

Profil faltsuak sortu ala benetakoak okupatu eta *lagunak* egiten dituzte *socialbot* delakoak. Ostean, kontaktu horren lagunak portara imitatzen hasten da *socialbot*-a. Hortik eskuratzen ditu erabiltzaileen datuak eta horrez



Facebookeko irudia. | FACEBOOK

gain hark bisitatzen dituen webguneak imitatuz, gune faltsuak sor ditzake, datu pertsonalak eskuratzeko, *phishing* delakoa, eta, esate baterako, banketxeke datuak eskuratu.

## Kontrol falta

Facebookek profil berriak sortzeko unean dituen erraztasunez

baliatzen dira errobot hauek kontuak sortu eta kontaktuak egiten hasteko. Facebookentzat ere kontrolatzea zaila da erroboten ze haien portaera pertsonen oso antzerakoa da, mezuak eta argazkiak partekatzen eta lagun eskakizunak egiten baitituzte, gainontzeko erabiltzaileek bezala. Columbia Unibertsitateko ikerlari

taldeak 102 ordenagailuk osatutako sarearen jarraipena eginez jakin ahal izan du errobot hauek gauza direla profila zabaldu eta kontaktu baten kontutik minutu gutxitan datu pertsonalak eskuratzeko. Aipatutako datuak gainera 8 astetan eginiko jarraipen batekoak besterik ez dira baina sareak askoz ere lehenagotik dihardute profilak sortu eta datu pertsonalak lapurtzen. Facebookeko profil faltsuen aurkako alarma ere ez zen piztu, egunean 25 kontaktutik behera egiten baitzituzten lagunak, segurtasun neurri hori piztu aurreko kopurua. Normalean, eskuratutako datuak spamerako erabili ohi direla eman dute jakitera ikerlariak baina kaleko helbideak ere eskuratu ahal izan dituztela azpimarratu gura izan dute Columbiako Unibertsitatetik

## Facebooken erantzuna

Facebooketik erantzun dute ikerketa bera "oso etikoa ez" dela eta iruzurraren aurka egiteko daukaten sistemak defendatu dituzte. Euren buruak defendatzeko esan dute alarmak ez zirela piztu ikerketa egiten zebilen zerbitzaria bera unibertsitekoa zelako eta "seguru" moduan zeukatelako identifikatuta.

Edozelan ere, sekula ere ez dago sobera lagun eskaera araro ala ezezagunei arreta berezia jartzeko eskaera eta edozein portaera susmagarriaren aurrean Facebooken bertan aurki daitezke salaketa bideak erabiltzea.

# Susa argitaletxea ere hasi da liburu elektronikoak saltzen

Guztira 66 idazleren 142 lan daude deskargatzeko moduan, ale bakoitza 3,56 eurotan

J.B. | ARRASATE

Gero eta zabalagoa da euskaraz aurki daitezkeen e-book ala liburu elektronikoaren eskaintza. Orain dela gutxi literatura unibertsitateko titulu ugari ipini zituzten eskura, euskaraz, eta oraingoan eskal argitaletxe nagusietako bat izan da urrats digitala ematen hurrengo. Susa argitaletxea, hain zuzen, e-book formatuan hasi da bere liburuak eskaintzen. [Susa-literatura.com/ebook](http://Susa-literatura.com/ebook) helbidean aurki daitezke guztiak eta katalogo polita ipini dute, gainera, deskargatzeko moduan. PDF eta ePUB formatuetan jaits daitezke liburu guztiak. Poesia eta narratiba saileko bildumak dira.

## 3,56 euro liburuak

Liburu guztiak prezio berean daukate salgai, 3,56 eurotan eta jasotako dirutik, bi euro idazlearentzat dira eta euro bat argitaletxeak jasoko du. 56 zentimo

zergak dira. Fitxategiek gainera ez daukate DRM babesik, hau da, kopiarako galarazpenik ez daukate e-bookek eta gako barik zabal daitezke fitxategiak.

Guztira 66 idazleren 142 lan daude deskargatzeko moduan, autore berri zein ohikoaren lan ugariekin.

Aipatu beharra dago, era berean, Susa aurretik ere sarean Armiarma bildumako zerrenda luzea ere ipini zuela eskuragarri. Poesia kaierak eta argitalpen bereziek osatzen dute Armiarma bilduma eta doan jaits daitezke webgunetik bertatik. Horrez gain, GureBook izeneko liburu denda elektronikoan abian da iaztik. Proiektu honetan Alberdania, Elkar, Erein, Pamiela, Ttarttalo, Txertoa eta Arrain argitaletxeek hartzen dute parte. 166 lan dituzte salgai eta horietatik %60 euskarazkoak dira. Prezio aldetik baina askoz ere garestiagoak dira webgune horretan.

# Twitterreko istorio bitxi eta hunkigarriak, gune berezi baten

'Stories.twitter.com' webgunean twitterri esker sortutako istorio bereziak pilatu dituzte

J.B. | ARRASATE

Pertsonen arteko komunikazio tresna eraginkor eta humanoa dela erakutsi gura dute Twitterrekoek eta soilik 140 karakterekin bidalitako mezuek zenbat jenderi lagundu dioten kontatu gura dute. Horretarako, *Twitterreko istorioak* izeneko orria abiatu dute. Twitter abiatu zutenetik, mezularitza zerbitzu ezaguna lagungarri izan zaien erabiltzaileen istorioak jaso gura dituzte. *Stories.twitter.com* helbidean aurki daitezke helburu horrekin sortu duten webgune berezia.

## Solidaritatea twitterren

Istoriotako batek kontatzen du Rogert Ebert Hollywoodeko film kritikari ezagunenak batek minbizia dela-eta ahotza galdu zueneko. Hitz egiteko gaitasunik ez baina twitterri esker bere iritziak are urrunago iristeko modua aurkitu zuen,

komunikatzeko modu azkar eta zabal bat. Ala zelan Chad Ochocinco rugby jokalaria bere 100 jarraitzaile, bat batean, afaltzaera gonbidatu zituen tweet batekin, haien babesa eskertzeko. Aaron Durand, Portlandeko gaztea eta bere ama dira istorio hunkagarrienak baten protagonistak. Gorriak ikusten zebilen ama liburudendarekin, ixteko zorian. Semeak bere blogean idatzi zuen amaren liburu dendaren arazoei buruz eta segidan twit bat bidali zuen esanez Gabonetan amaren denda 50 dolar baino gehiago gastatzen zitueneri burrito bat erosiko ziola. Sekulako arrakasta izan zuen proposamenak eta salmenta itzela izan zuten, tweet eta retweetei esker. Orduetik bezero gehiago dituzte eta salmentak ondo doaz. Are gehiago, inoiz baino gehiago saltzen dute gaur egun semearen *tweet* bakarrari esker.

## Bateriaren iraupenean akatsak ditu iPhone 4S modeloak

Harrera txepela baina salmentetan arrakasta izan du azkenean iPhone 4Sak baina terminalak arazoak eman ditu lehen asteetan. Bateria izan da kexen motibo nagusia eta akatsa onartu eta soluziobidean dira Applekoak. Gailu askotan ere audioan arazoak antzeman dituzte. Konpainiatik bertatik jakinarazi dutenez arazoa iOS sistema operatzailearen eguneraketa batekin konponduko dute. Deskarga hori aurki ipiniko dute erabiltzaileen eskura.



iPhone 4Sa. | APPLE

## Egun bakarren 1.000 milioi mezu, WhatsApp aplikaziotik

Plataforma arteko mezularitza aplikazioak errekorra lortu du. Egun batean 1.000 milioi mezu bidali izanak esan gura du 41 milioi mezu bidaltzen direla orduko, minutuko 70.000 eta segunduko 12.000. 3G sarea ala Internet bidez mugikor artean komunikatzeko mezularitza aplikazioa da WhatsApp. Gaur egun zabalduenetako da eta arrakasta zor dio plataformaren ezberdinen artean erabili ahal izateko aukerari. Izan ere, WhatsApp-arekin iPhone, Blackberry edo Android mugikorren artean komunika daitezke.

## Googleen bilaketa algoritmoa berriz ere aldatu dute

Albiste ala gertakizunen bilaketak egiterakoan emaitza berrienen lehenak izan dezaten egin dute aldaketa eta erakusten diren emaitzen %35ari eragin diezaiotke. Hala, aurrerantzean, gai bati buruzko bilaketa bat egiterakoan, minutu gutxira sortutako edukia ager daitezke, nahiz eta artean bisita kopuru gutxi izan. Orain arte, sarritan, albiste bati buruzko bilaketa egiterakoan gertakizunari buruzko lotura zaharrak agertu ohi ziren, bisita gehiago izan ohi zituztelako. Orain albisterik berrienak ere hartuko dira kontuan.



## TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



## 'Watching Dead'

J oan den astean Halloween ospatu zuten askok. Festa horren ohitura gero eta presenteago dugu gure gizartean. Garai honetan, beraz, normala da beldurrezko filmak telebistan ikustea. Zubi honetako protagonistak izan dira dudarik gabe.

Hala ere, beldurrezko generoaren arrakasta hori aspaldikoa da. Badira hilabete batzuk beldurrak telebistan garrantzia hartu duela. Baniroak, otso-gizonak eta zombiak leku guztietan ikusten ditugu. Esate baterako, *The Walking Dead* telesailaren bigarren denboraldia laster estreinatuko da La Sexta katean. *Crónicas Vampíricas* telesaioa ere emititu zuen ETB2k eta *True Blood* Cuatro katean ikusi ahal izan dugu. Ohitura hori ere Estatu Batuetatik datorkigun eragina da, ia telesail guztiak handik datoz behintzat.

Genero berezi hori gustuko baduzu zortekoa zu. Hala ere, genero horrek ez bazaitu oraindik konbentzitu ez duzu beste aukerarik. Telebista munduan formatu berritzaileak egiten ausartzea zaila izaten da eta formatu batek funtzionatzen baldin badu zergatik beste formatu batetaz arduratu?

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 7



## Soraluze-Bergara atxintxika krosa

20:44

Zapatuan Soraluze-Bergara atxintxika krosaren zazpigarren edizioa egin zuten. Bada, gertatutakoa jasoko dugu gurean.

12:25 Magazinea

13:25 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Bertso saioa:

G-puntua

14:45 Berriak

15:15 Berbaz

16:15 Hamaika.bit

16:45 Berriak

17:15 Ur eta lur

17:47 28. Klip

18:17 Marrazki bizidunak

18:44 Berriak

19:14 Kantari

19:44 Magazinea

20:44 Harmailatik

21:29 Magazinea

22:29 Harmailatik

23:14 Gipuzkoa Kultura

MARTITZENA, 8



## Larraitz Ugarteri elkarrizketa

19:45

Foru Aldundiko bozeramailea eta Mugikortasun eta Bide-azpiegiturarako diputatu Larraitz Ugarteri izango dugu *Magazinea*-n.

12:30 Magazinea

13:30 Marrazki bizidunak

13:50 Kantari

14:17 Onein

14:45 Berriak

15:15 Bertso saioa:

G-puntua

15:43 Harmailatik

16:26 28. Klip

16:49 Berriak

17:19 Bizitegia

17:49 Harmailatik

18:34 Marrazki bizidunak

18:54 Berriak

19:21 Kantari

19:46 Magazinea

20:46 Mahaingurua:

hauteskundeak

21:46 Magazinea

22:46 Mahaingurua:

hauteskundeak

23:46 Magazinea

00:46 Gipuzkoa Kultura

EGUAZTENA, 9



## Bertsolaritza saioa

20:45

Bertsolaritzari eskainiko diogu tartea eguaztenean Goiena telebistan. G Puntuko emanaldi berri bat izango dugu ikusgai.

12:30 Magazinea

13:30 Harmailatik

14:15 Kantari

14:45 Berriak

15:15 Gipuzkoa Kultura

15:45 Mahaingurua:

hauteskundeak

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:42 Bertso saioa:

G-puntua

18:07 Harmailatik

18:50 Berriak

19:20 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bertso saioa:

G-puntua

21:15 Magazinea

22:15 Tolosako

Abesbatzen lehiaketa

23:25 Magazinea

EGUENA, 10



## Erakusketak ikusgai

22:15

Koldo Mitxelena dau den bi erakusketak ikusi ahal izango ditugu: *Hiriko fikzioak* eta Juan Carlos Eguilloren erakusketak.

12:30 Magazinea

13:30 Marrazki bizidunak

13:55 Kantari

14:20 Bizitegia

14:45 Berriak

15:15 Onein

15:42 Mahaingurua:

hauteskundeak

16:42 Berriak

17:12 Kantari

17:42 Bertso saioa:

G-puntua

18:12 Erositaikasi

18:22 Ikusmira: Baxurako

arrantza

18:47 Berriak

19:17 Kantari

19:44 Magazinea

20:44 Hamaika.bit

21:14 Magazinea

22:14 Gipuzkoa Kultura

22:44 Magazinea

23:44 Bertso saioa:

G-puntua

EGUBAKOITZA, 11



## Bergarako kantariak

19:20

Gaurko saioan Bergarako artista gazte baina handiak ezagutzen hasiko gara Kantari karaoke ikuskizunarekin, 19:20an.

12:30 Magazinea

13:30 Marrazki bizidunak

13:55 Kantari

14:22 Onein

14:47 Berriak

15:14 28. Klip

15:44 Marrazki bizidunak

16:14 Kantari

16:44 Berriak

17:17 Marrazki bizidunak

17:47 Ipupomamua

18:17 Onein

18:45 Berriak

19:20 Kantari

19:47 Magazinea

20:47 Gipuzkoa Kultura

21:17 Magazinea

22:17 Mahaingurua:

hauteskundeak

23:17 Magazinea

00:17 Tolosako

Abesbatzen lehiaketa

## ARRASATE IRRATIA

## 'La Revoltosa' zarzuelarako sarrerak ditugu zozketan

Izaskun Murgia elkarte lirikoak aurten egingo duen zarzuelarako sarrerak daukagu zozketan Arrasate Irratian. Aste honetan, lehenengo sarrerak zozketatuko ditugu. Zozketan parte hartzeko bi aukera dituzu; deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera.

## Gidabaimena ateratzeko azterketa praktiko berriari buruz

Gidabaimena ateratzeko azterketa praktiko berria izango dugu hizpide aste honetan *Igo autobusera!* irratsaioan, besteak beste. Gaiari buruz hitz egiteko eta horri buruzko xehetasunak emateko 107.7ko uhinetara etorriko da gainera Peñakoba autoeskolako Iban Peñakoba.

## Disko berri bat aurkeztu baduzue, bidali Arrasate Irratira

Garai honetan irratan disko asko jasotzen ditugu eta horiek ezagutarazteko lekua egingo dugu aurrerantzean 107.7ko autobusean. Beraz, diskoren bat atera baduzue, jarri gurekin kontaktuan 943 25 05 05 telefonon edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera. Aste honetan *Saint Chickens* taldea ezagutuko dugu.

## TELE-ALBISTEAK

# Hauteskundeei begira, mahai-ingurua martitzenean

Hauteskunde kanpainaren jarraipena ere egingo dugu telebistan, paperean, sarean eta irratan

**AMIA TXINTXURRETA** | ARRASATE  
Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeen gaineko mahai-ingurua eskainiko dizuegu bihar, martitzena, Goiena telebistan. Ordubete inguruko saioa izango da hori eta iluntzeko 20:45ean eskainiko dizuegu.

Alderdi politiko ezberdinetako kideak gurean izango ditugu, gainera. Goiena telebistara etorriko dira Amaiurreko Maitte Aristegi, EAJko Arantza Tapiá, PSE-EEko Eneko Andueza eta PPko Juana Maria De Bengoetxea. Besteak beste jardungo dute Madrilen Euskal

Herriarendako egingo duten lanari buruz eta baita Kongresuak eta Senatuak Euskal Herriarendako egingo duten behararen inguruan.

Saioa aurkezten eta gidari lanak egiten Goiatz Arana izango dugu.

## Kanpainaren jarraipena

Azaroaren 20ko hauteskundetara begira, gainera, Goienak informazio zabala eskainiko dizue hedabide guztietan. Alderdiak gure ibarrean antolatzen dituzten ekitaldien berri emango dizuegu paperean, [Goiena.net](http://Goiena.net) atarian, telebistan eta irratan.

Eta hauteskundetako emaitzak ere jasoko ditugu, noski. Hauteskunde gauaren bihar-munean gaia modu zabalean landuko dugu; emaitzak, hauteskunde osteko balorazioak, irakurketak, analisiak, iritzi zutabeak, herritarren inkestak hautestontzietan, eguneko gorabeherak... Horretarako irudiak, argazkiak, taulaks eta grafikoak erabiliko ditugu, besteak beste.



Goiatz Aranak aurkeztu eta gidatuko du saioa. | GOIENA



## ZORION AGURRAK



**ARRASATE**  
**Naroa Kortabarria Maskariano**  
Azaroaren 13an, 5 urte.  
Zorionak, printzesa!  
Gure pinpilinpaxak bost urte betetzen ditu! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bana: Uxue, aitatxo eta amatxo.



**ARRASATE**  
**Maren Alonso Lopez**  
Azaroaren 13an, 5 urte.  
Zorionak, maitia! Eskuko hatzamar guztiak bete dituzu, bihotza. Ederto ospatuko dugu bazkarian egun berezi hau. Kiloka marrubizko muxu potolo etxekoan, Beñat, aitatxo eta amatxoren partetik. Maite zaitugu, marimatraka!



**OÑATI**  
**Lier Esnaola Osinaga**  
Azaroaren 13an, 2 urte.  
Zorionak, Lier! Ondo pasatu eguna eta in fuerte putz kandlei. Patxo handi-handi bat etxeko danon partetik.



**OÑATI**  
**Iraide Loiti Palacios**  
Azaroaren 12an, 5 urte.  
Zorionak, poxpolintxo!  
Ondo pasatu, printzesa, zure urtebetetzean. Bost muxu goxo-goxuak zure familia guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Keltse eta Kemen Malbadi**  
Azaroaren 11n, 2 urte.  
Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna eta jaso patxo potolo biña etxeko danon partetik.



**OÑATI**  
**Naroa Moia Bikuña**  
Azaroaren 11n, 6 urte.  
Zorionak, potxola!  
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna!  
Patxo handi bat etxekoan partetik!



**ARRASATE**  
**Ixiar Okina Altube**  
Azaroaren 10ean, 7 urte.  
Zorionak eta muxu handi bat. Manex, aiton-amona eta gurasoen partetik.




**OÑATI**  
**Amaiur Olabarria Urionabarrenetxea**  
Azaroaren 9an, 2 urte.  
Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen. Zorionak, zapaburu!



**ORMAIZTEGI**  
**Goiatz Arana**  
Azaroaren 9an, urtebetetzea. Zorionak lankideen partez! Patata tortilla, txorizo eta urdaiazpiko iberikoa, gazta, kakahueteak... guztiak izango dira ongiatorriak!



**ARETXABALETA**  
**Lihier Moneo Quiros**  
Azaroaren 8an, 7 urte.  
Zorionak, pirata.  
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzeko egunean. Muxu handi bat familiaren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Nahia Aguirre Barquero**  
Azaroaren 8an, 4 urte.  
Muxu potolo bat eta zorionak etxeko danen partetik, printzesa!



**OÑATI**  
**Izar Kortabarria Suarez**  
Azaroaren 8an, 6 urte.  
Zorionak, potxola. Muxu erraldoi bat eta ondo pasatu zure urtebetetzea, etxekoan partetik.



**OÑATI**  
**Irati Ugarte Garitano**  
Azaroaren 6an, 10 urte.  
Hamar urte pasatu dira eta gure umetxoa neskato polit bat bihurtzen ari da. Etxekoan partetik belarritik tirakada handi bat -handiena Aritzena- Zorionak, *presiosi*.



**ANTZUOLA**  
**Aintzane Muruamendiaraz**  
Azaroaren 8an, urtebetetzea. Antzuolara noiz gonbidatu bihar gaittuz ba? Kit Kat-a poltsikoan, Irimora mendi bueltia noizko? Peña Karapaixo.



**ARETXABALETA**  
**Oxel eta Aitor Artolazabal**  
Zorionak bioi! Oxel, azaroaren 4an 6 urte betetzen dituzu; ze handia! Eta 7an, Aitor, zuk urtebetetze borobila, 40! Oso ondo pasatu familia guztiaren eta bereziki Lurren partetik! Muxu handi-handi bat bioi!




**OÑATI**  
**Maia Olalde**  
Azaroaren 4an, 7 urte.  
Zorionak, maitia. Azkenean iritsi da zure zazpigarren urtebetetzea. Ondo-ondo ospatu eta primeran pasatu. Muxu pila bat.




**ARETXABALETA**  
**Eneko Zugasti**  
Azaroaren 3an, 2 urte.  
Zorionak, Eneko! Patxo asko aita, ama eta bereziki Anerren partetik.



**ARRASATE**  
**Ane Diaz de Tuesta**  
Azaroaren 2an, 24 urte.  
Zorionak, Ane!  
Ondo-ondo pasatu eta muxu handia.



**ARETXABALETA**  
**Alaitz Agirre**  
Azaroaren 1ean, 9 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Gari Urrutia Atxa**  
Urriaren 30ean, 10 urte.  
Zorionak eta muxu handi-handi bat. Julen eta Anaren etxeko guztien partetik.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.  
Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaituz [goiena.net](http://goiena.net) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezu bat bidali [zorionagurrak@goiena.com](mailto:zorionagurrak@goiena.com) helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituz GOIENAKO ordezkari batzera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




**JAIOTAKOAK**



**Saioa Bergaretxe Astigarraga**

Arrasate 2.730 kilo. Urriaren 30a. Gurasoak: Ainhoa eta Unai. Argazkian, ama, aita eta ahizpa Arraterekin.



**Eleder García Hermosel**

Arrasate 3.430 kilo. Urriaren 29a. Gurasoak: Rosario eta Iñigo. Argazkian, Eleder gurasoekin.



**Adur Rodriguez Barcala**

Bergara 3.640 kilo. Urriaren 31. Gurasoak: Estibaliz eta Miguel. Argazkian, umea gurasoekin.



**Kimetx Karpio Azpitarte**

Otxandio 4.040 kilo. Urriaren 30a. Gurasoak: Estitxu eta Ruben. Argazkian, umea gurasoekin.



**Mati Pagaldai Gomez**

Angiozar 3.130 kilo. Azaroaren 1a. Gurasoak: Lide eta Iñigo. Argazkian, Mati amarekin.



**Ekhi Osinalde Altube**

Arrasate 3.450 kilo. Azaroaren 1a. Gurasoak: Zuriñe eta Jose Luis. Argazkian, Ekhi sehaskan.



**Ioritz Madinabeitia Calleja**

Aretxabaleta 3.850 kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Ainhoa eta Asier. Argazkian, umea amarekin.



**Unai Antia Villar**

Arrasate 3.400 kilo. Azaroaren 2a. Gurasoak: Gurutze eta Asier. Argazkian, Unai sehaskan.

**BABESLEA**

**IKUSI MAKUSI**

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

**DENBORA-PASA**

**HITZ GEZIDUNAK**

	Indonesia-ko hiriburua	Ugaltzeko aparatua	Jantzi mota
	Tripa	Litekeena	Lixibaz garbitua
	Kutxak		
	Martiri		
Erretegiak	Elur zati txikia		
Gizon izena	Zentzu		
			Txistuak, listuak, istuak
Ekialdean, bost		Kanpo, landa	
Bertako bihurtu		Intsektu mota	
Ernel		Bururatua	
Ikertzeko gaiak		Kontso-nantea	

**BILA-BILA 7**

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



**SOLUZIOAK**

K	A	I	V	A	G	R	E	K	I
A	U	O	T	A	D	I	A	D	I
U	T	A	K	O	T	A	B	E	R
A	T	Z	B	O	R	T	Z	A	K
S	A	R	I	A	S	A	K	A	Z
A	T	A	L	U	T	M	A	L	
K	A	X	A	K					
A	B	E	L	A	S	A	B	E	L
J	S	J	S	J	S	J	S	J	S

T	O	U	B	K	A	L	B	J
A	E	G	I	X	G	O	K	A
A	M	V	Z	K	L	P	T	N
K	E	N	Y	A	S	A	D	K
J	R	J	I	O	P	E	E	S
M	U	I	O	N	X	L	P	T
A	R	W	K	M	B	G	I	E
I	O	P	J	O	P	O	R	H
K	A	M	E	R	U	N	T	O

6	4	2	3	5	8	7	9	1
8	9	7	4	1	2	6	3	8
8	3	1	9	6	7	2	4	5
7	2	5	6	3	4	1	8	9
3	8	4	7	9	1	5	6	2
1	6	9	8	2	5	3	7	4
2	7	6	5	8	9	4	1	3
9	5	3	1	4	6	8	2	7
4	1	8	2	7	3	9	5	6



Enbido.  
Hieroglifikoak:

**SUDOKUA**

			2	7				
	5				6	8		7
	7	6		8	9			3
1	6		8		5	3		4
3								2
7				3	4			
				6		2		5
			4					8
	4	2	3	5	8			9


**HIZKI SALDA**

Topa itzazu Afrikako bost mendi.

T	O	U	B	K	A	L	B	J
A	E	G	I	X	G	O	K	A
A	M	V	Z	K	L	P	T	N
K	E	N	Y	A	S	A	D	K
J	R	J	I	O	P	E	E	S
M	U	I	O	N	X	L	P	T
A	R	W	K	M	B	G	I	E
I	O	P	J	O	P	O	R	H
K	A	M	E	R	U	N	T	O

**HIEROGLIFIKOA**

Musean.






## AI, ENE!

### Toreatzaileendako ere, txandala

Arropa munduan dena asmatuta zegoela? Adidasek toreatzaileendako diseinatu duen txandalak argi uzten du ezetz.  
www.nopuedocreer.com



## AHOBERO

### "Zorionez, umeak amaren antza dauka, eta ez aitarena"

BARACK OBAMA | AEB-ETAKO PRESIDENTEA

Obamak berriz ere aita izan den Sarkozyri esandakoak dira hitzok, eta hobe, bai, Carla Bruniren geneak Frantziako presidentearenak baino nabarmenagoak izatea. Nork zioen nazioarteko gailurretean gauza serioei buruz bakarrik berba egiten zela?  
www.20minutos.es

## EGURALDIA



Max. 16°

Min. 12°

Astelehenean euri kontuekin jarraituko dugud. Iparraldeko haizea ibiliko da.  
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

# goiena

2011-11-07

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Leire Martinez** 'Cometas por el cielo' da La Oreja de Van Gogh talde donostiarraren seigarren lana, gure elkarrizketatuaren ahotsa duen bigarrena; lekutan daude 'Factor X'-en garaiak... | TXOMIN MADINA

## "Taldeko emakume bakarra izanda, mimo guztiak niretzat dira!"

**1.** Bi astez salmentetan nagusi izan da zuen diskoa. Ilusioa egiten du ala dagoeneko ohitu zarete? Ikaragarritzko ilusioa egiten du; horrelako gauzetara ez gara inoiz ohituko.

**2.** Diskoan hamaika kometa, hamaika abesti bota dituzue zerrara. Zeinekin geratzen zara zu? Beharbada, *La niña que llora en tus fiestas* aukeratuko nuke, aurkeztu genuenetik oso emaitza onak eman baitizkigu. Nik neuk noiz egin dudana negar azken aldiz? Atzo, beharbada... Oso negartia naiz, eta gauza askogatik emozionatzen naiz maiz.

**3.** Bigarren diskoa duzu La Oreja de Van Gogheko kide moduan. Zure ukitua nabariagoa izan da? Nire parte-hartzea osoa izan da. Disko honetan bai, hasieratik sentitu ditut abestiak; jaiotzen ikusi ditut; beraz, espero dut jendeak nire ukitua nabaritzea.

**4.** Askoren ustez, zuen letrak nahiko pasteloiak dira. Zer esan haiei? Gertu ditugun gauzen inguruan idazten dugu; beharbada, *pasteloi* itxura izan dezakete. Baina lerro artean irakurrita historia nagusiagoak agertzen dira: terrorismoa, homosexualitatea, bakardadea, heriotza...

**5.** Diskoa prestatzea edo zuzenean defendatzea, zer nahiago? Jendaurrean defendatzea. Izugarritzko emozioa sentitzen da agertoki gainean egonda.



JON POZO

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Gauza asko egingo nituzke, baina..."

"Mundu mailan gauza asko egingo nituzke, inguruan duguna begiratu besterik ez dago gauzak nola doazen ikusteko, Baina, gustatuko litzaidakeen arren, horietako asko ez daude nire esku..."

**6.** Ondo daroazu boskotean emakume bakarra izatea? Ohituta nago emakume bakarra izatera. Batzuetan, faltan igartzen da beste norbait inguruan izatea, baina, bakarra izanda, mimo guztiak niretzat dira! [Barre]

**7.** Nola prestatzen da bat hilabetez etxetik kanpo eroango zaituen kontzertu bira bati aurre egiteko? Gustuko dudana egiten nagoela jakiteak asko lagutzen du, eta, noski, ahal den guztia deskantsatzea beharrezkoa da. Gehien, familia eta lagunak igartzen ditut faltan.

**8.** Musikaren industria dioten bezain gaixo dago? Bai, oso. Jendeak ez du musikatik dirurik eman nahi, ohitu egin gara gauzak doan lortzera... Denok berdin egingo bagenu, zer gertatuko litzateke jatetxeekin edo bestelako lanbideetan?

**9.** Eta famatu moduan, nola daroazu prentsa arrosa? Nahi baino atsekabe gehiago eman didate. Uste dut halako gauzetara ez naizela sekula ohituko; baina bueno, horren aurka ez dago askorik egiterik...

**10.** Jendea harritu egiten da euskaraz hain ondo hitz egiten duzula entzunda. Harritu egiten al zaitu horrek? Bai; izan ere, ni euskalduna naiz, beste jende asko bezala; eta ezin da euskalduna izan La Oreja de Van Gogheko abeslaria?

## BIHARAMUNA



JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

### Zazpi mila milioi

Badirudi iritsi garela zazpi mila milioi biztanle izatera. Hori da, bederen, zenbakietako adituek kalkulatu dutena. Ez digute guztiz zehaztu, ordea, ar ala emea den, ezta zer hemisferiotan jaio zaigun ere. Badugu Malthus eta bere teoria guztiak gizadiak gaineratik pasatu ote dituen pentsatzeko gaia.

Gauzak mundu osoan ia denentzat gaizki dabilzten arren, jaio berri horrek zailago aterako du aurrera bizi-modua munduratu den inguruko baldintzak ez bazaizkio aldeko margoarekin pintatu. Eta estatistikek diotenez -probabilitateen legeak lagun-gizaki txikitxo horren haserak miseriazko xehetasunak izan daitezke nagusi. Errakuntzarako aukera gutxiarekin, beraz, besapeko ogiarekin ailegatu beharrean etsipen eta madarikazio-karga batekin jaio dela esan liteke. Eta horrek ez digu mundu honetara aspaldi ohitu ginenoiz ezelako ohorerik egiten, aldeantzez baizik.

Txarrena, nolana ere, ez da ez garela gauza izan zazpi mila milioiko dortsala daraman horrentzat kabi egoki eta duina prestatzeko. Okerrena da, gizaki anonimo horri beste askok jarraituko diotela bizi-baldintza berdin edo txarragotan. Oker ninteke, baina ez dut uste. Zoritzarrez.

## Escarrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK  
BAINURAKO ALTZARIAK  
HORMA ARMAIRUAK  
BESTELAKO ARMAIRUAK

ESKAINITZA  
BEREZIAK  
FINANTZAKETA  
ZURE NEURRIRA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate  
Tel.: 943 79 01 82 • Faxa: 943 10 69 66  
scarrasc\_1@infonegocio.com

